

CATICHIMA

BAIONACO DIOSESACOA

FRANCOIS MARIE GIEURE

BAIONA, LESCAR RIZ OLOHONCO JACIN APUSARDIANTY

MONIZ MOIDATIA

Prezion Hamalaur ses.



TOURS

ALFRED MAHE AITA SEMEEN

MOLOETHGIETAN

1911

93

Javier Gárriz, *Pbro.*



Comitè de paper

CATICHIMA

BAIONACO DIOSESACOA

Comitè 1921.





Jesu-Christo haurren erdian.

H-69050
F-72999

GOÑI'TAR ERAPEL

AV
30552

CATICHIMA

BAIONACO DIOSESACOA

FRANÇOIS-MARIE GIEURE

BAIONA, LESCAR ETA OLOBONECO JAUN APHEZPICUAREN

MANUZ MOLDATUA



TOURS

ALFRED MAME AITA SEMEEN

MOLDETEGIETAN

1913

BAIMENA

GUC, FRANÇOIS-XAVIER-MARIE-JULES GIEURE, Jaincoari eta Aita Sainduari esker, Baiona, Lescar eta Oloroneco Aphezpicuac,

Emaiten diogu Mame moldetzaileari gure baimena, bere moldetegietan molda dezan Baionaco Catichima berri hau, gure diosesa gucicotz onhetsi duguna.

Baionan egina, gure icenarekin, gure cigiloarekin, eta gure Aphezpicutegico secretario-nausiaren sinadurarekin, Martchoaren lehenean 1912^{an}, San Leon, aphezpicumartiraren, Baionaco apostolu eta patroinaren phesta egunean.



† FRANÇOIS-MARIE,
BAIONA, LESCAR ETA OLORONECO
APHEZPICUA.

Jaun Aphezpicuaren manuz :

J.-B. LASSERRE,
Calonje, secretario-nausia.

BAIONA, LESCER ATA OLORONECO
JAUN APHEZPICUAREN

MANUA

DIOSESACO CATICHIMA BERBIAREN AGERTCEAZ

FRANÇOIS-XAVIER-MARIE-JULES GIEURE, Jainco
urricalmendutsuari eta Aita Sainduari esker, Baiona,
Lescar eta Oloroneco Aphezpicuac, here Diosesaco
aphez eta fededuneri, agur eta benedicione.

GURE ANAIA GUCIZ MAITEAC,

Iduritu zaicu on citekela gure catichimaren berritcea.
Orai arte ginuena ongi egina cen; bainan, han-hemen,
escasac bacituen, eta ihardeste cenbeitetan ez cen aski
garbiki ageri cer nahi cen erran. Bertcenaz, lehena-
goco Catichima bera izanen da, antolamendu cenbeite-
kin, eta egungo egunean ecin baztarrerat utciac diren
galde eta ihardeste cenbeitez emendatua.

Erranen du laburzki cein diren fededunen eginbi-
deac gauza premiatsu batzueri buruz; halanola escolac,
bozac, ezcontzaren haustea, caceta tzarren iracurtcea,
aphecen paga, Jaincoaren legea zangopean ezartcen duten

lege makhurren ez onhestea, Elizaren ontasunac behar den baimena gabe erosten edo alocatcen dituztenen contraco escumicoa. Mintzo da haur ttipien comunionea manatcen duen legeaz. Hitz bat ere badu aphez, fraide edo serora egiteco Jaincoac egortcen duen deiaz.

Ikhusico duzue, Anaia maiteac, galdeac conda errechac dire, eta ihardesteac laburrac. Bizkitartean hein on bat bada, eta jaun erretorec artha izanen dute behar diren chehetasunen emaiteco. Itchuraz da gure Catichima luzescoa, eta ez dugu laburtu nahi izan. Galde cenbeiten aiticinean diren gurutceec eracusten dute cein diren beharrenac, eta hola errechten, behar orduan, gauza premiatsuenen ikhastea.

Orhoituric Catichima dela, oroz gainetic, familietaco liburua, bethi escuetan dena jakiteco cer egin, nahiago izan dugu ez soberaric laburtu, hainitcec atceman dezaten hor gure erlisione sainduaren hobeki ikhas-teco errechtasuna.

Hortaco ere nahi dugu Catichima hau izan dadin liburu bat ederra. Hala da, balin bada liburu bat gucientzat egina, hura da Catichima, eta behar da bar-raiatu ahal becenbat. Bizkitartean, ikhustearekin haurren escuetan emaiten diren bertce liburuac, halanola ichtorioac, aritmeticac, jeografiac, gramerac, ongi eginac, potretez edertuac eta merke; ahalgegarri citzai-cun liburu hau, Jaincoaz, Elizaz, arimaz, gauzaric handienez eta beharrenez mintzo dena, izan zadien nolana hizcoa, deus edergailuric gabe.

Lehenagoco precio berean, gure Catichima hunec izanen ditu, paper eder batekin, potret hainitz; eta potret horiec maicenic erakhutsico dauzkigute gure tokietaco cenbeit gerthacari saindu.

Ezarri ditugu, hastapenean, goiceco eta arratseco othoitzac, gure zaharrec ikhasi cituzten hec berac. Othoitz horiec sartcen dire gogoan; zaharrec erraiten eta erran-arazten diozcate haur ttipieri. Familia hainitcetan ohi dute othoitz elgarrekin erraitea. Entzun baitugu bihotzminekin ez dela gehiago, escualde cenbeitetan, othoitz hola elgarrekin erraiten; galdetcen diotegu jaun erretoreri mintza diten hola eginicaco othoitzac duen indar bereciaz. Ecen deusec ez dezake hobeki begira, bethitic gure tokietan haurrec burhasoentzat izan duten beldurtasun ezta, eta jauts-araz familien gainerat Jaincoaren benedicionea.

Eman ditugu lehenago ez ciren cenbeit othoitz, Meza, Bezperac, eta bertce batzu ere, haurrac khartsu bilacarazten laguntceco. Hitz batez, nahi izan dugu Catichima izan dadin haurarentzat liburu gucietaric maiteena, hari atchikia egoiteco; gero ere berriz iracurdezan amultsuki, eta hola gogoan atchikiz hitz balios horiec, errepica detzan heriotceraino.

Badire liburu hori begiratcen dutenac, gauzaric sainduena bezala, hortaric izan baitituzte beren atsegin lehenac eta hortan baitute beren orhoitzapen gozoena. Catichima berriari esker, hola izanen da berriz ere, eta oraino hobeki.

Ez da harrigarri, Anaia maiteac, aphezpicuec bethi artha hartcen badute zueri emaitiaz Catichima bat geroago eta hobekiago egina. Errana da ez dela predicuric Catichima balio duenic; hortan, ez bakharric haurrec, bainan oraino adin gucietaco jendeec, ikhasiten dute hobekienic erlisione saindua.

Zer izan da Jesu-Christo gure Jauna publicoan ereman dituen hirur urtheetan? Catichima egile bat, dite-

ken hoberena. Predicuric handienac eta ederrenac egin cetzazken, eta Catichima bakharric egiten diote bere Apostolueri eta dicipulueri. Haur ttipiac hurbil-arazten ditu : Utz zatzue haur ttipiac ene ganat ethortcerat, zuen erraiten ; besarcacben cituen, eta escuac hedatuz benedicacben. Apostoluec ere Catichima dute egiten ; haurren meneco emaiten dire, ama on bat bere haur ttipiarekin bezala. Heien ondotic saildu eta aphezpicu handiec Catichima dute egiten, eracaspengucietaric beharrena delacotz. San Gregorio Nysecoa, San Agustin, San Ieronimo, San Bicente Ferrierecoa, San Frantses Xavierecoa, San Frantses Salesecoa, San Bicente Paulecoa, eta oraino berrikitan Arseco erretor saildua, Catichima egile batzu ciren, eta ez deus berteric.

Jesu-Christo gure Jaunac, Apostoluec, Elizaco jakintsun aiphatuenec, sailduec, hoinbertce goretsi badute eracaspemota hori, zuec, burhaso giristinoac, ikhusico duzue zuen eginbideetaric hertsiena duzuela, catichimetarat zuen haurren ongi jarraicaztea.

Eta zuec, gurekin lanean ari zarezen aphez maiteac, erakhutsico diozue munduari, deus-gutizat daucan cargu hori dela egiazki handiena eta ederreña ; ecan Catichima egileac behar ditu altchatu Jaincoaren haurrac, eta bethiereco zorionean sartceco gai egin. Huna Jesu-Christo beraren hitza : « Qui fecerit et docuerit, hic magnus vocabitur in regno cœlorum. » Horra cersari ederra agindua zaioten beren ahal guciaz Ebanjelio saildua eracatsico duteneri.

Hortaco, manacben diotegu erretoreri, omoniereri, bicarioeri, burhasoeri eta, gure diosesan giristino era-

caspena emanen duten gucieri, Catichima berria eracas dezaten, eta ez bertceric.

Manamendu hau gora iracurtua izanen da gure Diosesaco eliza eta capera gucietan, agertu ondoco lehen igandean.

Baionan egina, gure icenarekin, gure cigiloarekin, eta gure Aphezpicutegico secretario-nausiaren sinadurarekin, Martchoaren lehenean 1912^{an}, San Leon, aphezpicu-martiraren, Baionaco apostolu eta patroinaren phesta egunean.



† FRANÇOIS-MARIE,
BAIONA, LESCAR ETA OLORONECO
APHEZPICUA.

Jaun Aphezpicuaren manuz :

J.- B. LASSERRE,
Calonje, secretario-nausia.



GOICECO OTHOITZA

ETCHECO GUCIEC ELGARREKIN EGIN BEHAR LUKETENA

Aitaren †, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean.
Halabiz.

JAINCO guciz botheretsua, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, zoinac creatu bainauzu zure ezagutceco eta maithatceco ahalarekin, huna non nagon humilki zure aiticinean belhaunico. Ezagutcen dut ene miseria eta ezdeustasuna, adoratcen zaitut gauza gucien Creatzalea eta Nausi soberanoa bezala.

Jauna, sinhesten dut zu baithan, ceren egia bera baitzare; esperantza dut zu baithan, ceren guciz ona baitzare; maite zaitut ene bihotz guciaz, ene arima guciaz, ene indar guciez, ceren baitzare osoki maithagarria.

Cer bihurtuco derautzut, Jauna, zu ganic errecebitu ditudan ongi egin gucientzat? Deus ez dut zure jenerostate handiari zor ez diotanic. Eskerrac deraitzut bereciki ceren creatu nauzun, bekhatutic erosi, egiazco fedeaz argitu, eta egundino contserbatu, egiazco Aita baten artha guciarekin.

Hemen contsideratu behar da cer gracia egin deraucun Jaincoac, egun hau gure salbamenduan trabailatceco emanaz; eta hunen sainduki iragaiteco chede cin bat hartu.

Orhoitu behar da zoin diren maicenic egiten diren hutsac, aiticinetic ikhusi bekhaturat deramaten ocasioneac, eta deliberacione hartu hulaco bekhatutic eta ocasionetic urrutceco. Hortacotz egon behar da hemen aphur bat ichilic.

IKHUSTEN ditutzu, Jauna, ene bihotzaren azken pleguetarainoco guciac, eta bereciki memento huntan hartcen ditudan deliberacione sainduac; bainan ezagutcen duzu halaber ene flakecia, nola begira naiteke bekhatutic zure laguntza gabe? Jainco guciz botheretsua, salba nezazu; emadazu, othoi, ene arimaren etsaiari bihurtceco eta bekhatuan erori gabe egun hunen iragaiteco behar ditudan indarrac. Egizu zure graziaz, ene pentsamenduac, hitzac, obrac, sofricarioac, oro zure lege sainduaren arauera izan ditzen. Halabiz.

GURE Aita, ceruetan zarena, erabil bedi sainduki zure icena; ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure borondatea, ceruan bezala lurrean ere; iguzu egun gure eguneco ogia; barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direnei barkhatcen dioztegun bezala; eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortcera, bainan begira gaitzatzu gaitcetic. Halabiz.

AGUR, Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin, benedicatua zare emazte gucien artean, eta benedicatua da zure sabeleco fruitua Jesus.

Maria Saindua, Jaincoaren Ama, egizu othoitz gu bekhatoreentzat, orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.

SINHESTEN dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan, ceruaren eta lurraren creatzalean. Eta Jesu-Christo, haren Seme bakhar gure Jauna baithan, zoin contcebitu baitcen Izpiritu Sainduaren berthutez, sorthu cen Maria Birjina ganic; pairatu zuen Pontcio Pilatusen manuaren azpian, gurutceficatu zuten, hil cen eta ehortci zuten; jautsi cen ifernuetarat; hirugarren egunean jaiki cen biciric hilen artetic; igan cen ceruatarat, jarria dago Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinean; handic ethorrico da bicien eta hilen jujatcera.

Sinhesten dut Izpiritu Saindua baithan; Eliza Catolico Sainduan; Sainduen partaliertasunean; bekhatuen barkhamenduan; haragiaren phiztean; bethi iraunen duen bicitcean. Halabiz.

COFESATCEN nitzaio Jainco Aita bothere gucia duenari, Maria bethi Birjina dohatsuari, Micael Arcanjelu dohatsuari, Joanes Batista dohatsuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei (eta zuri, ene Aita), ceren egin baitut sobera bekhatu, gogoz, hitcez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hortacotz othoitz egiten diot Maria bethi Birjina dohatsuari, Micael Arcanjelu dohatsuari, Joanes Batista dohatsuari, Petri eta Paulo Apostolu Sainduei, Saindu guciei (eta zuri, ene Aita), egin dezozuen enetzat othoitz gure Jainco Jaunari.

Jainco bothere gucia duenari urrical gakizcola, eta gure bekhatuac barkhaturic, helaraz gaitzala bicitce eternalera. Halabiz.

Gure bekhatuen barkhamendua, absolucionea eta erremisionea eman dezagula Jainco bothere

gucia duenac eta misericordiaz betheac. Halabiz.

Birjina Maria Saindua, Jaincoaren Ama, ene Patroin Saindua, eta Saindu guciac, balia zaizkitet Jaincoaren aitcinean. Ene Aingeru begirale saindua, begira nezazu eta lagun salbamenduco bidean. Halabiz.

Denbora denean erran ditazke Jesusen Icen Sainduaren Lethaniac.

JESUSEN ICEN SAINDUAREN LETHANIAC

(300 Egunen Indulientcia.)

KYRIE, eleison.	Jesu admirabilis, miserere nobis.
Christe, eleison.	Jesu Deus fortis, miserere nobis.
Kyrie, eleison.	Jesu Pater futuri sæculi, miserere nobis.
Jesu, audi nos,	Jesu magni consilii Angele, miserere nobis.
Jesu, exaudi nos.	Jesu potentissime, miserere nobis.
Pater de cælis, Deus, miserere nobis.	Jesu patientissime, miserere nobis.
Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.	Jesu obedientissime, miserere nobis.
Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.	Jesu mitis et humilis corde, miserere nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.	Jesu amator castitatis, miserere nobis.
Jesu Fili Dei vivi, miserere nobis.	Jesu amator noster, miserere nobis.
Jesu splendor Patris, miserere nobis.	Jesu Deus pacis, miserere nobis.
Jesu candor lucis æternæ, miserere nobis.	Jesu auctor vitæ, miserere nobis.
Jesu rex gloriæ, miserere nobis.	Jesu exemplar virtutum, miserere nobis.
Jesu sol justitiæ, miserere nobis.	
Jesu fili Mariæ Virginis, miserere nobis.	
Jesu amabilis, miserere nobis.	

Jesu zelator animarum, miserere nobis.	A morte perpetua, libera nos, Jesu.
Jesu Deus noster, miserere nobis.	A neglectu inspirationum tuarum, libera nos, Jesu.
Jesu refugium nostrum, miserere nobis.	Per mysterium sanctæ Incarnationis tuæ, libera nos, Jesu.
Jesu pater pauperum, miserere nobis.	Per Nativitatem tuam, libera nos, Jesu.
Jesu thesaure fidèlium, miserere nobis.	Per Infantiam tuam, libera nos, Jesu.
Jesu bone Pastor, miserere nobis.	Per divinissimam vitam tuam, libera nos, Jesu.
Jesu lux vera, miserere nobis.	Per labores tuos, libera nos, Jesu.
Jesu sapientia æterna, miserere nobis.	Per agoniam et Passionem tuam, libera nos, Jesu.
Jesu bonitas infinita, miserere nobis.	Per Crucem et derelictionem tuam, libera nos, Jesu.
Jesu via et vita nostra, miserere nobis.	Per languores tuos, libera nos, Jesu.
Jesu gaudium Angelorum, miserere nobis.	Per mortem et sepulturam tuam, libera nos, Jesu.
Jesu rex Patriarcharum, miserere nobis.	Per Resurrectionem tuam, libera nos, Jesu.
Jesu magister Apostolorum, miserere nobis.	Per Ascensionem tuam, libera nos, Jesu.
Jesu doctor Evangelistarum, miserere nobis.	Per gaudia tua, libera nos, Jesu.
Jesu fortitudo Martyrum, miserere nobis.	Per gloriam tuam, libera nos, Jesu.
Jesu lumen Confessorum, miserere nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Jesu.
Jesu puritas Virginum, miserere nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Jesu.
Jesu corona Sanctorum omnium, miserere nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis, Jesu.
Propitius esto, parce nobis, Jesu.	Jesu, audi nos.
Propitius esto, exaudi nos, Jesu.	Jesu, exaudi nos.
Ab omni malo, libera nos, Jesu.	
Ab omni peccato, libera nos, Jesu.	OREMUS
Ab ira tua, libera nos, Jesu.	DOMINE Jesu Christe, qui dixisti : Petite, et accipietis; quærite, et invenietis; pulsate, et aperietur vobis : quæsumus, da nobis petentibus divinissimi tui amoris affe-
Ab insidiis diaboli, libera nos, Jesu.	
A spiritu fornicationis, libera nos, Jesu.	

ctum, ut te toto corde, ore
et opere diligamus, et a tua
numquam laude cessemus.

Sancti Nominis tui, Do-
mine, timorem pariter et
amorem fac nos habere per-

petuum : quia numquam tua
gubernatione destituis quos
in soliditate tuæ dilectionis
instituis. Qui vivis et regnas in
sæcula sæculorum. *ñ.* Amen.

*Igandetan erranen dire Jaincoaren eta Elizaren
Manamenduac.*

JAINCOAREN MANAMENDUAC

1. JAINCO bat adora zazu,
Halaber maitha osoki.
2. Juramenturic ez duzu
Ez cinic eginen banoki.
3. Igandea begira zatzu,
Jauna ere cerbitza debotki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu,
Bici zaitecen luceki.
5. Nehor obraz hilén ez duzu,
Ez borondatez gaichtoki.
6. Lohikeria eginen ez duzu,
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertcerena ebatsico ez duzu,
Ez atchikico injustuki.
8. Lekhucotasunic ez duzu,
Ez hitz erranen faltzuki.
9. Gogoeta lohiac khenduco tutzu
Bihotza begiratz garbiki.
10. Guticia izanen ez duzu,
Bertcerenaren gaizki.

ELIZAREN MANAMENDUAC

1. PHESTAC begira zatzu,
Manamenduzcoac sainduki.

2. Meza Saindua entzun ezazu,
Phesta Igandetan debotki.
3. Bekhatuac cofesa zatzu,
Urthean behin osoki.
4. Gorphutz-Saindua errecebi zazu,
Phazcoz bederen humilki.
5. Garthac, Bichiliac, barur zatzu,
Garizuma ere osoki.
6. Ortciralean janen ez duzu,
Ez larunbatean haragi.

*Othoitz hau egunean hiruetan erraiten da, ezkilac
jotcen duenean.*

ANGELUS Domini nuntia-
vit Mariæ, et concepit de
Spiritu Sancto.

Ave, Maria, etc.

Ecce ancilla Domini, fiat
mihi secundum verbum tu-
um.

Ave, Maria, etc.

Et Verbum caro factum
est, et habitavit in nobis.

Ave, Maria, etc.

ÿ. Ora pro nobis, sancta
Dei Genitrix, rñ. Ut digni
efficiamur promissionibus
Christi.

OREMUS

GRATIAM tuam, quesu-
mus, Domine, mentibus
nostris infunde; ut qui
Angelo nuntiante, Christi
Filii tui Incarnationem co-
gnovimus, per Passionem
ejus et Crucem ad Resur-
rectionis gloriam perduca-
mur. Per eundem Christum
Dominum nostrum.

rñ. Amen.

JAUNAREN aingeruac ekharri-
cion Mariari berria, eta con-
tcebitu zuen Izpiritu Saindua-
ren berthutez.

Agur, Maria, etc.

Huna Jaunaren nescatoa,
egin bekit zure hitzaren ara-
bera.

Agur, Maria, etc.

Eta Jainco Semea gizon egin
cen, eta egotu gutartean.

Agur, Maria, etc.

ÿ. Jaincoaren Ama Saindua,
othoitz egizu guretzat. Rñ. Jesu-
Christoc hitcemanac mercei
ditzagun.

OTHOITZA

ICHUR zazu othoi, Jauna,
zure gracia gure arimetara;
Aingeruaren ganic Jesu-Chri-
sto zure Semearen Incarnacio-
nea jakinic, hel gaiten, haren
Pasionearen eta Gurutcearen
bidez, Phizte loriosera. Jesu-
Christo gure Jaunaren icenean.

rñ. Halabiz.



San Leon, aphezpicu-martira, Baionaco apostolu
eta patroina.

(Baionaco eliza-nausian.)

ARRATSECO OTHOITZA

Aitaren $\frac{1}{3}$, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean.
Halabiz.

JAINCO guciz botheretsua eta eternala, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, zoina baitzare lekhu gucietan, jiten nitzautzu ene adoracionen eta ohoren bihurtcerat, gaurco descantsuaren hartcerat joan baino lehen.

Adoratcen zaitut, ô ene Jaincoa, maite zaitut, laudatcen eta benedicatcen zaitut. Zu zare Aita urricalpenez bethea, Jainco consolatzalea, egiazco dohain gucien ithurria. Eskerrac deraitzut, ahalaz humilki, egin deraiztazun ongi guciez, eta bereciki egun huntacoez.

Bainan nola ihardetsi dut, Jauna, zure ontasun izarigabecoari? Ala esker gaichtoz pagatu baitzaitut hambat bekhatutan eroriz, bethi ongi egiten ari cinaitan denboran.

Jauna, argi zazu ene izpiritua, ezagut ditzadait ene bekhatuen nombrea eta handitasuna; bero zazu ene bihotza zure amodioaren suaz, damu egiazco bat izan dezadan zu ofentsaturic.

Hemen ikhusi behar da egun cer bekhatu egin den gogoz, hitcez, obraz, edo egin behar cena ez

eginez, nahiz Jaincoaren, nahiz lagunaren, nahiz bere buruaren contra; baratzen delaric particularzki maicenic egiten diren bekhatuez orhoitcen.

ATHORTCEN ditut, Jauna, zure aitcinean ene bekhatuac, orotaz barkhamendu escatcen derautzut Jesu-Christoren merecimenduen berthutez. Hastiatcen ditut, ceren zure ofentsac diren, eta hitcemaiten derautzut, zure graciarekin batean, urrunducónizala hemendic aicina bekhatutic eta bekhatuaren ocasionetic, eta eginen dudala orotaz penitencia.

CONFITEOR Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaeli Archangelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis, et tibi, Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo et opere : meâ culpâ, meâ culpâ, meâ maximâ culpâ. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaëlem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Misereatur nostrî omnipotens Deus, et dimissis peccatis nostris, perducatur nos ad vitam æternam. Amen.

Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus. Amen.

PATER noster, qui es in cælis, sanctificetur Nomen tuum; adveniat regnum tuum; fiat volun-

tas tua sicut in cælo et in terrâ; panem nostrum quotidianum da nobis hodiè; et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris; et ne nos inducas in tentationem; sed libera nos a malo. Amen.

Ave Maria, gratiâ plena, Dominus tecum, benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.

Sancta Maria, Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus, nunc et in horâ mortis nostræ. Amen.

CREDO in Deum, Patrem omnipotentem, Creatorem cæli et terræ. Et in Jesum Christum, Filium ejus unicum, Dominum nostrum; qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus ex Mariâ Virgine; passus sub Pontio Pilato; crucifixus, mortuus et sepultus; descendit ad inferos; tertiâ die resurrexit a mortuis; ascendit ad cælos, sedet ad dexteram Dei Patris omnipotentis; indè venturus est judicare vivos et mortuos.

Credo in Spiritum Sanctum, sanctam Ecclesiam Catholicam, Sanctorum communionem, remissionem peccatorum, carnis resurrectionem, vitam æternam. Amen.

FEDEZCO ACTA

ENE Jaincoa, sinhesten ditut cinez eta ene bihotz guciâz, Eliza Catolico Apostolico Erromanoac sinhesten eta irakhasten dituen gauza guciâc : ceren zuc, egia bera zarenac, irakhatsi baiterai-zcotzu,

ESPERANTZAZCO ACTA

ENE Jaincoa, esperantza dut, sinheste fermu batekin, emanen derautazula, Jesu-Christoren merecimenduen berthutez, mundu huntan zure gracia, eta zure manamenduei jarraikitzen banaiz bertcean zure gloria, ceren hitzeman baituzu eta baitzare zure hitcetari osoki leiala.

CARITATEZCO ACTA

ENE Jaincoa, maite zaitut ene bihotz guciaz eta gauza gucien gainetic, ceren baitzare guciz ona eta osoki maithagarria : maite dut halaber ene laguna ene burua bezala zure amoreagatic.

OTHOIZTEN zaitut, Jauna, zure benedicioneac eta graciaic ichur ditzatzun gure Aita Sainduaren, gure Jaun Aphezpicuaren, gure aiticindarien gainerat, halaber ene ahaide, adiskide, etsai, eta jeneralean ene othoitcetarari cerbait dretcho duketen presuna gucien gainerat. Gida gaitzatzu othoi guciac salbamenduco bidean.

Othoizten zaitut ere, Jauna, Purgatorioetaco penetan diren arimentzat; emozute bere bekhatu gucien barkhamendua, eta sarrarazkitzu hanbat lehiarekin igurikitzen duten egoitza dohatsuan. Escatcen derautzut Jesu-Christo gure Jaunaz, zoina bat baita zurekin eta Izpiritu Sainduarekin, mende gucietaco bicitcean. Halabiz.

Birjina Saindua, Jaincoaren Ama, ene Patroin Saindua eta Saindu guciac, balia zaizkitet Jesu

Christo gure Jaunaren aitcinean. Ene Aingeru begirale Saindua, begira nezazu eta lagun salbamentu bidean. Halabiz.

Jainco guciz botheretsu eta urricalpenez betheac, Aita, Seme eta Izpiritu Sainduac, digutcila gau ezti bat eta heriotce dohatsu bat. Halabiz.

Denbora denean erran ditazke Birjina Sainduaren Lethaniac.

BIRJINA SAINDUAREN LETHANIAC

(300 Egunen Indulientcia.)

KYRIE, eleison.	Mater amabilis, ora pro nobis.
Christe, eleison.	Mater admirabilis, ora pro nobis.
Kyrie, eleison.	Mater boni consilii, ora pro nobis.
Christe, audi nos.	Mater Creatoris, ora pro nobis.
Christe, exaudi nos.	Mater Salvatoris, ora pro nobis.
Pater de cælis, Deus, miserere nobis.	Virgo prudentissima, ora pro nobis.
Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.	Virgo veneranda, ora pro nobis.
Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.	Virgo prædicanda, ora pro nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.	Virgo potens, ora pro nobis.
Sancta Maria, ora pro nobis.	Virgo clemens, ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix, ora pro nobis.	Virgo fidelis, ora pro nobis.
Sancta Virgo virginum, ora pro nobis.	Speculum justitiæ, ora pro nobis.
Mater Christi, ora pro nobis.	Sedes sapientiæ, ora pro nobis.
Mater divinæ gratiæ, ora pro nobis.	Causa nostræ lætitiæ, ora pro nobis.
Mater purissima, ora pro nobis.	Vas spirituale, ora pro nobis.
Mater castissima, ora pro nobis.	Vas honorabile, ora pro nobis.
Mater inviolata, ora pro nobis.	
Mater intemerata, ora pro nobis.	

Vas insigne devotionis, ora pro nobis.	Regina Virginum, ora pro nobis.
Rosa mystica, ora pro nobis.	Regina Sanctorum omnium, ora pro nobis.
Turris Davidica, ora pro nobis.	Regina sine labe originali concepta, ora pro nobis.
Turris eburnea, ora pro nobis.	Regina sacratissimi Rosarii, ora pro nobis.
Domus aurea, ora pro nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Domine.
Fœderis arca, ora pro nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Domine.
Janua cœli, ora pro nobis.	Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.
Stella matutina, ora pro nobis.	ŷ. Ora pro nobis, sancta Dei Genitris.
Salus infirmorum, ora pro nobis.	ŕ. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.
Refugium peccatorum, ora pro nobis.	
Consolatrix afflictorum, ora pro nobis.	
Auxilium christianorum, ora pro nobis.	
Regina Angelorum, ora pro nobis.	
Regina Patriarcharum, ora pro nobis.	
Regina Prophetarum, ora pro nobis.	
Regina Apostolorum, ora pro nobis.	
Regina Martyrum, ora pro nobis.	
Regina Confessorum, ora pro nobis.	

OREMUS

CONCEDE nos famulos tuos, quæsumus, Domine Deus, perpetua mentis et corporis sanitate gaudere, et gloriosa beatæ Mariæ semper Virginis intercessione a præsentis liberari tristitia et æterna perfrui lætitia. Per Christum Dominum nostrum.

ŕ. Amen.

HILEN OTHOITZA

De profundis clamavi ad te, Domine: * Domine, exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendentes * in vocem deprecationis meæ.

Si iniquitates observaveris, Domine, * Domine, quis sustinebit?

Quia apud te propitiatio est, * et propter legem tuam sustinui te, Domine.

Sustinuit anima mea in verbo ejus; * speravit anima mea in Domino.

A custodia matutina usque ad noctem, * speret Israel in Domino:

Quia apud Dominum misericordia; * et copiosa apud eum redemptio.

Et ipse redimet Israel * ex omnibus iniquitatibus ejus.

ŷ. Requiem æternam dona
eis, Domine. R̃. Et lux per-
petua luceat eis.

ŷ. Requiescant in pace.
R̃. Amen.

SAN BERNATEN OTHOITZA

MEMORARE, o piissima
Virgo Maria, non esse au-
ditum a sæculo quemquam
ad tua currentem præsidia,
tua implorantem auxilia,
tua petentem suffragia, esse
derelictum: ego tali anima-
tus confidentia, ad te, Virgo
virginum mater, curro, ad
te venio, coram te gemens
peccator assisto, noli, Ma-
ter Verbi, verba mea despi-
cere, sed audi propitia et
exaudi. Amen.

ORHOIT zaite, o Birjina guez
urricalmendutsua, ez dela egun-
daino aditu, nehor zure ganat
ihes egin duenic, zure laguntza
galdegin duenic, zure ararteco-
tasuna escatu duenic, izan dela
laguntzaric gabe utcia. Fidan-
tcia beraz sustatua, nic ere,
Birjina Birjinen Ama, zure ganat
laster egiten dut, zure ganat
heldu naiz, bekhatorosa auhe-
nez nago zure aitcinean. Etza-
zula arbuia ene othoitza, Jainco
Semearen Ama, bainan bai
adi fagorezki eta entzun. Hala-
biz.



OTHOITZ LABUR BATZU

Jesu-Christo gure Jaunari.

Ene Jesus, egidazu misericordia.

100 eg. ind. aldi bak. (Pio IX, 1846.)

ÿ. Laudatua izan bedi Jesu-Christo. R̄. Menderen mendetan *edo* Halabiz.

50 eg. ind. aldi bak. (CLEMENT XIII, 1759.)

Jesusen Bihotz Sacratuari.

Jesusen Bihotz Sacratua, zutan dut ene confidentcia.

300 eg. — Ind. plen. ilhabethe bak. (Pio X, 1905.)

Jesusen Bihotz ezta, izan zaite ene amodioa.

300 eg. ind. eg. behin. (LEON XIII, 1892.)

Ama Birjinari.

O Maria bekhaturic gabe contcebitua, othoitz egizu guretzat, zuri gaude.

100 eg. ind. eg. behin. (LEON XIII, 1884.)

Mariaren Bihotz ezta, izan zaite ene salbamen-
dua.

Ind. plen. ilhabethe bak. (Pio IX, 1852.)

Jesusi, Mariari, Josepi.

Jesus, Maria eta Josep, emaiten dautzuet ene bihotza, ene gogoa, eta ene bicia.

100 eg. ind. aldi bak.

Jesus, Maria eta Josep, lagun nezazue ene azken orenean.

100 eg. ind. aldi bak.

Jesus, Maria eta Josep, bakean hil nadila zuen compainia sainduan.

100 eg. ind. aldi bak. (Pio VII, 1807.)

GIRISTINOAC

EGUN BAKHOTCHEAN DITUEN EGINBIDEN

BILDUMA.

Giristinoa, orhoit hadi behar ducala egun :

Jaincoa goretsi eta maithatu,	Eternitateaz orhoitu,
Hartaco baihau creatu,	Ducan denbora ez galdu,
Jesus ona imitatu,	Laguna edificatu;
Haren odolaz baliatu,	Mundua arbuiatu,
Birjina saindua othoiztu,	Debruen contra guducatu,
Aingeruac ohoratu,	Jaidura gaichtoac zaphatu,
Hire arima salbatu,	Herioa menturaz pairatu,
Gorphutza mortificatu,	Jaincoaz izan jujatu,
Contcientcia etsaminatu;	Gero dohatsu bethicotz!
Bekhatua erreparatu,	Edo dohacabe ondicotz!
Berthutea praticatu,	O Giristinoa,
Cerua merecitu,	Horier emac gogoa.
Ifernutic urrundu,	

OTHOITZAC

EGUN BAKHOTCH ARDURACO EGINBIDEN SAINDUKI BETHETCECO

IRATZARTCEAN

Goicean iratzartcearekin egizu gurutcearen seinalea eta errazu :

Ene Jaincoa, emaiten dautzut ene bihotza; egidazu, othoi, egun hau iragan dezadan zu ofentsatu gabe.

Beztitu zarenean, ur benedicatua har zazu, eta belhaunico gurutceficaren aitcinean, errazu goiceco othoitza.

LANA HASTERACOAN

Ene Jaincoa, ofreitcen dautzut ene lana, nahi dut egin zure gatic; emozu, othoi, zure benedicionea.

JAN AITCINEAN

Jauna, benedica gaitzazu, gu eta hartcera gohacin jan-haria.

JAN ONDOAN

Eskerrac deraitzugu zure ongi-egin gucientzat, Jainco errege botheretsua, bici zarena menderen mendetan. Halabiz.

TENTACIONETAN

Jesus, zato ene laguntcera. Maria bekhatuic gabe contcebitua, othoitze egizu guretzat, zuri gaude.

Cenbait bekhatutan erortceco zorigaitza izan dukezunean, bereciki mortala dela beldur bazare, egizu lehen-bai-lehen *Contricionezco acta bat.*

ETZATERACOAN

Etzan baino lehen, har zazu ur benedicatua, eta egin arratseco othoitza.

Etzan-eta, khurutcearen seinalea eginic, errazu :

Jesus, salba nezazu; Maria, Jaincoaren Ama, egizu othoitzenetzat. Ene Jaincoa, hil nadila zure gracion. Fededun hilen arimac bakean pausa ditela. Halabiz.



COFESATCECO

ETSAMINA EGITERACOAN

Ene Jaincoa, nahi duzu ene bekhatuen aphezari erraitera joan nadin, haren ganic barkhamenduaren ardiesteco. Bainen nola erranen diozcat, ez baditut nihaurec ezagutcen? Zato beraz, Jauna, argi zazu ene bihotza; ez dadin geldi ni baithan bekhatuic, nic ezagutuco eta hastiatuco ez dudanic.

CONTICIENTCIACO ETSAMINA

JAINCOAREN MANAMENDUETAN

I^o *Jainco bat adorá zazu*, etc. — Ikhusi behar da : othoitzac egin direnetz ; — egin direnetz errespetuic eta atencioneric gabe ; — Elizan gaizki egon denetz ; — gaizki mintzatu denetz erlisioneaz, gauza sainduaz, aphecez : — bekhatu egin denetz Fedearen contra, fedezco cerbait egiaz bere nahitara dudatuz ; — Erlisionearen contraco libururic edo cacetaric iracurtu denetz.

II^o *Juramentaric ez duzu*, etc. — Ikhusi behar da : Jaincoa lekhuco hartu denetz gezurraren fincatceco ; — Cin egin denetz beharic gabe ; blasfemioric egin denetz ; — boturic hautsi denetz.

III^o *Igandearic begira zazu*, etc. — Ikhusi behar da : Meza Saindua huts egin denetz igandetan edo phesta manatuetan, bere faltaz ; — berantegi ethorri denetz ; — egun hetan lanean arizan denetz, egiazco beharic gabe.

IV^o *Aita amac ohora zazu*, etc. — Ikhusi behar da : burhasoei obeditu denetz ; — edo obeditu denetz gogo gaichtoz ; — zor zaioten errespetuari huts egiten denetz ; — eman zaiotenetz penaric, heiec nahi ez bezala biciz, edo heiec debecatu urhatsetan ibiliz ; — heien hutsac agertu direnetz ; — nausien alderat izan denetz zor zaioten errespetua eta obedientcia.

V^o *Nehor obraz hilen ez duzu*, etc. — Ikhusi behar da : nehor jo denetz ; — nehorri elhe gaichtoric erran denetz ; — norbait hastiatu denetz ; — harentzat herraric atchiki denetz ; — gaizkiric desiratu zaionetz ; — mendecatu nahi izan denetz ; — utci direnetz pobreac lagundu gabe ahalaren arabera ; — escandalaric eman denetz : hitcez, obraz ; gehiago dena, gaizkia eracatsiz.

VI^o eta IX^o *Lohikeria eginen ez duzu*, etc. — Ikhusi behar da : bekhatu egin denetz garbitasunaren contra; gogoz, guticiaz, behatzez, hitzez, obraz; — cantatu denetz cantu tzarric; liburu tzarric iracurtu denetz; — libertimendu desonest eta lanjerosetan ibili denetz.

VII^o eta X^o *Bertcerena ebatsico ez duzu*, etc. — Ikhusi behar da : cerbait norbeiti ebatsi zaionetz; — burhasoei hartu denetz; — sal-erospenetan nehor tronpatu denetz, edo jocoan; — damuric egin denetz nehor; — conseilu gaichtoric eman denetz, bertcei calte egin-arazteco; — bertcerenaren guticia izan denetz zucen contra.

VIII^o *Lekhucolasunic ez duzu*, etc. — Ikhusi behar da : erran denetz gezurric; — gezurtia izan denetz arduran; — laguna gaizki jujatu denetz arrazoinic aski gabe; — bekhatu egin denetz medisentciuz edo calomniaz.

ELIZAREN MANAMENDUETAN

Ikhusi behar da : Phazcoric egin gabe gelditu denetz; — haragiric jan denetz ortciraletan, edo Elizac debeatu bertce egunetan, behar egiazcoric edo permissioneric gabe; — baruric hautsi denetz arrazoinic gabe.

BEKHATU CAPITALETAN

Urgulua. — Ikhusi behar da : urgulutsu izan denetz, bere burua estimatuz bertceac baino gehiago; — aiphatua eta alchatua izan nahiz; — burhasoez ahalgetuz.

Abaricioa. — Onthasunei atchikiegi izan denetz.

Jelosia. — Atsegin hartu denetz lagunari gerthatu gaitzaz; edo atsecabe, hari gerthatu onaz.

Gormandiza. — Jan denetz sobera, edo edan; — edan denetz ezagutza galtcerainocoan.

Colera. — Coleraz bekhatu egin denetz.

Alferkeria. — Denbora galdu denetz; — egitecoac egin gabe utci dirennez, bere nahiz; edo lazoki egin dirennez.

CONTRICIONEA ETA CHEDE CINA

Galda zozu Jaincoari humilki eta confidentciarekin Contricione on baten gracia, erraiten diosularic :

Jauna, urricaltcecoa naiz. Izan dut zorigaitza, zure ofentsatceco; eta orai, zure laguntza gabe, ez naiteke itzul zure ganat. Hunki zazu ene bihotza; emadazu egin ditudan bekhatuen egiazco urrikia, eta chede cina ez berriz hetan erortceco.

Errazkitzu gero, bihotzetik, hitz haue :

1º Ene bekhatuez ifernua merecitu dut.

2º Ene bekhatuez Jesu-Christo berriz gurutzeficatu dut.

— Zaude gurutzefica bati beha, edo zoaci gogoz Calbariora, ikhus-azu Jesu-Christo, Jaincoaren Semea, zuretzat hiltcera doala, zuri bekhatuen barkhamenduaren ardiesteco. Egizu beraz zure buruarekin :

3º Ene bekhatuez ofentsatu dut Aitaric hoberena.

Gero erran bekhatuac etsaminac eracutsi bezala.

Egizu orai Contricionezco acta :

Ene Jaincoa, handizki damu dut zu ofentsaturic, ceren guciz ona zaren, eta bekhatua hastio duzun. Barkha zadazu Jesu-Christoren merecimenduen berlhutez; hartcen dut chede cin bat, zure graciarekin batean, zu gehiago ez ofentsatceco eta penitencia egiteco.

COFESIO ONDOAN

Cofesioaren ondotic egizu ahal becen laster aphezac eman penitencia; eta erabil gogoan cofesoraren abisuac. Erran dezakezu othoitz hau :

Ene Jaincoa eta Salbatzailea, zoin zaren ona eta urricalmendutsua ! Cer eginen dut, eskerren zuri emaiteco ? Hitcemaiten dautzut hemen, etzaitudala ofentsatuco gehiago. Bainan badakizu, zoin naicen ahula, eta ahantzcorra; zu gabe deus ez dezaket; benedica-zkitzu beraz ene chedeac, atchic ditzadan bethi leialki. Halabiz.

Gure Aita., Agur, Maria...



San Tarcisius hiltcen dute.

COMUNIONE ATCINECO ACTAC

FEDEZCO ACTA

Jesu-Christo ene Jauna, sinhesten dut cinez, hor zarela egiazki Aldareco Sacramenduan, eta zure errecebitcera nohala Comunione Sainduan.

ADORACIONEZCO ACTA

Ene Jesus! Adoratcen zaitut hemen, ogiaren itchuraz gordea. Ezagutcen dut, ene Creatzalea eta Jaincoa zarela.

HUMILTASUNEZCO ETA CONTRICIONEZCO ACTA

Jauna, ez dut mereci ene baithan sar zaiten, hanbat ofentsatu zaitudan ondoan, bainan errazu bakharric hitz bat, eta ene arima sendatua izanen da. Urricalmendezco hitz bat errazu, eta barkha-zkidatzu ene bekhatuac; bihotcetic hastiatcen ditut.

ESPERANTZAZCO ACTA

Salbatzaile maitea, esperantza dut ni baithan egoitera jinez, ene arima garbituco duzula, eta betheco zure graziez eta zure amodioaz.

AMODIOZCO ACTA

Jesus, ene onthasun bakharra : maithatu nauzu, zure haragiaz haci nahirainocoan ; maite zaitut ene bihotz guciaz, ene arima guciaz, ene indar guciez. Nahi naiz bici eta hil zure amodio sainduan.

DESIRCUNDEZCO ACTA

Zato, Jesus! zato ene bihotcerat ; libra zazu bere gaitz gucietaric ; bethe zazu graciaz ; khartsuki desiratcen du zure errecebitcea.

COMUNIONE ONDOCO ACTAC

ADORACIONEZCO ACTA

Ene Jaincoa eta ene Salbatzailea, adoratcen zaitut ene bihotcean zarelaric, eta juntatcen naiz Aingeruec eta Sainduec zure ohoratceco Ceruan bihurtcen daitzuten adoracionei.

ESKER ONEZCO ACTA

Eskerrac deraitzut, ene Salbatzaile maitea, ceren nitarat jin nahi izan zaren Comunione Saindu huntan. Cer bihurtuco derautzut zure ongi-egin gucientzat ?

OFREIMENEZCO ACTA

Jesus Jauna, emaiten nitzauzu naicen gucia osoki, zu niri eman zaren bezala ; egidazu gracia, zuretzat baicic ez biciteco.

AMODIOZCO ACTA

Ene Jesus ona, maite zaitut ahalaz khartsuki ; zure amodioaren suac bero, erre, suntsi dezala ene bihotza.

CHEDE CINEZCO ETA GALDEZCO ACTA

Ene Jaincoa, hartcen dut chede cin bat, zuc hastio dituzun gucietaric begiratceco, eta ni-ganic galdatcen dituzun gucien egiteco. Egizu zure graciaz, maitha zaitzadan eta lorifica, ene biciac dirauno ete mende gucietan.

On da behin baino gehiagotan acta horien egitea, khartsukiago errailera sustalceco.

Acta horiec egin ditazke ere bertce hitcez, edo bertce moldez ; eta bakhotchac, bere debocionearen arabera, bertce zorbait othoitz erran dezake.

Othoitz hau guruteeflea baten aitcinean erraten duenarentzat indulgentzia osoa, egunean behin, cofesatuz, comuniatuz eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginex. Indulgentzia hori irabaz ditake Purgatorioco arimentzat.



HUNA, o Jesus ona eta guciz ezlia, non naicen zure aitcinean belhaunico emana; eta arimaco khar handienarekin othoizten zaitut, eta errekeritcen, barna sar detzatzun ene bihotcean fedezco, esperantzazco eta caritatezco sentimenduric bicienac, ene bekhatuen egiazco urrikia, eta gehiago ez egiteco chederic hazcarrrena: nic, bihotceco amodio eta min handi batekin, zure bortz zauriac ene baithan ikhusten ditudalaric eta gogoan erabiltcen, begien aitcinean atchikiz zutaz Dabid profetac zure ahoan ezartcen cituen hitz hauc: « Zilhatu dituzte ene escuac eta ene oinac, condatu ene hezur guciac. »





Andredena Maria Baionacoa.
(Baionaco eliza - nausian.)



Laissez venir a moi les petits Enfants

CATICHIMA

BAIONACO DIOSESACOA!¹

HASTAPENA

1^o Giristinoaren icena, Giristinoaren marca.

✠ G. *Giristino zare?*

I. Bai, Giristino naiz Jaincoaren graciaz.

✠ G. *Cer da Giristinoa?*

I. Giristinoa da Jesu-Christoren dicipulua.

G. *Cerc egiten gaitu Giristino?*

I. Bathaioac.

✠ G. *Cer da Giristinoaren marca?*

I. Hura da gurutcearen seinalea.

G. *Certaco diozu Gurutcearen seinalea Giristinoaren marca dela?*

I. Ceren, Gurutcearen seinalea eginez, Giristinoac bere Nausitzat ezagutcen baitu Jesu-Christo Gurutcearen gainean hil izan dena.

✠ G. *Nola egiten da Gurutcearen seinalea?*

I. Egiten da escu escuina emanaz copetan, handic bulharretan, gero ezkerreco sorbaldan, azkenic

¹ Catichima huntan, galderic beharrenac gurutce batez marcatuac dire.

escuinecoan, erraiten delaric : *Aitarean, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean. Halabiz. Edo latinez : In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti. Amen.*

G. Cer indar du Gurutcearen seinaleac ?

I. Gurutcearen seinaleac, fede eta errespeturekin egina delaric, debruac casatcen ditu, tentacioneac urruntcen, eta Jaincoaren benedicioneac jautsarazten.

G. Noiz egin behar da Gurutcearen seinalea ?

I. Egin behar litake, goicean ohetic jeikitcean, arratsean etzateracoan, obra printcipalen aitcinean eta ondoan, hirriscu handietan, eta guciz tentatua denean ?

2º Certaco garen mundu huntan.

✠ *G. Norc creatu gaitu eta eman mundurat ?*

I. Jaincoac.

✠ *G. Certaco Jaincoac creatu gaitu eta eman mundurat ?*


I. Jaincoac creatu gaitu eta eman mundurat haren ezagutceco, maithatceco, cerbitzatceco, eta hola ceruaren irabazteco.

G. Cer egin behar da Ceruaren irabazteco ?

I. Ceruaren irabazteco behar da giristinoki bici.

G. Aski othe da bathaiatua izaitea giristino on izaiteco ?

I. Ez, behar da oraino Giristino dotrina sinhetsi, eta praticatu.



Baionaco eliza-nausia.

3º Giristino dotrina cer den, eta cenbat pharte diren Catichiman.

G. Cer da giristino dotrina?

I. Hura da Jesu-Christoren eracaspina Elizaren bidez izaiten duguna.

G. Cer aurkhitcen da giristino dotrinan?

I. Giristino dotrinan sartcen dire : lehenbici-coric, sinhetsi behar diren egia; bigarrenecoric, bethe behar diren eginbideac; hirugarrenecoric, sinhete eta eginbide horieri buruz Jaincoac emaiten dauzkigun laguntzac.

G. Hirur gauza horiec non dire eracatsiac eta esplicatuac?

I. Hirur gauza horiec eracatsiac eta esplicatuac dire catichiman.





Trinitate Saindua.

LEHEN PHARTEA

SINHETSI BEHAR DIREN EGIAC

LEHEN CAPITULUA

Sinhesten dut. Hirur misterio printeipalac.

G. Non aurkhiten dire sinhetsi behar diren egia printeipalac ?

I. Egia horiec aurkhiten dire Sinhesten dutean.

G. Nola deitzen dire Sinhesten dutean diren egia ?

I. Deitzen dire Sinhesten duteco hamabi articuluac.

✠ *G. Errazu Sinhesten dut.*

I. 1. Sinhesten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren eta lurraren Greatzai-lean;

2. Eta Jesu-Christo, haren Seme bakhar, gure Jauna baithan;

3. Zoin contcebitu baitcen Izpiritu Sainduaren berthutez, sorthu cen Maria Birjina ganic;

4. Pairatu zuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, gurutceficatu zuten, hil cen eta ehortci zuten, jautsi cen ifernuetarat;

5. Hirugarren egunean jeiki cen biciric hilen artetic;

6. Igan cen ceruetarat, jarria dago Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinean;

7. Handic ethorrigo da bicien eta hilen jujatcerat;

8. Sinhesten dut Izpiritu Saindua baithan;

9. Eliza catolico Sainduan, Sainduen parta-
liertasunean;

10. Bekhatuen barkhamenduan;

11. Haragiaren phiztean;

12. Bethi iraunen duen bicitcean. Halabiz.

G. Conpreni detzazkegu Sinhesten duteco egia guciac?

I. Ez, ez detzazkegu conpreni guciac, hetaric asco misterioac baitire.

G. Cer da erlisioneco misterio bat?

I. Hura da gure adimenduaz goragoco egia bat, conpreni ez dezakeguna, bainan sinhetsi behar duguna.

G. Certaco behar ditugu misterioac sinhetsi?

I. Ceren Jaincoac eracasten baitaizkigu bere Elizaren bidez, eta Jaincoa egia bera baita.

G. *Estonagarri othe da misterioac izaitea erlisionean?*

I. Ez, ez da estonagarri; ceren mundu huntan berean baitire hanitz gauza conprenitcen ahal ez ditugunac.

✠ G. *Cein dire Erlisioneco hirur misterio principalac?*

I. Hec dire Trinitate Sainduco, Incarnacioneco eta Erospeneco misterioac.

✠ G. *Cer aditcen duzu Trinitate Sainduco misterioaz?*

I. Aditcen dut Jainco bakhar bat hirur presuntan : Aita, Semea eta Izpiritu Saindua.

✠ G. *Cer aditcen duzu Incarnacioneco misterioaz?*

I. Aditcen dut Jaincoaren Semea gizon egin izan dela.

✠ G. *Cer aditcen duzu Erospeneco misterioaz?*

I. Aditcen dut Jesu-Christo guretzat Gurutcearen gainean hil izan dela.

BIGARREN CAPITULUA

1^{en} Articulua : *Sinhesten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan, Cernaren eta lurraren Creatzailean.*

Jaincoa.

✠ G. *Nola dakizu Jainco bat badela?*

I. Badakit Jainco bat badela, ceren Jaincoac berac ezagut-araci baitaucu bere izaitea.

✠ G. *Baduzu bertce arrazoinic sinhesteco Jainco bat badela?*

I. Bai, 1^{ic} nere adimenduac erraiten daut ez litekela, Jaincoa gabe, ez ceruric ez lurric; 2^{ic} orotan eta bethi sinhetsia izan da Jainco bat badela.

✠ *G. Cer da Jaincoa?*

I. Jaincoa da Izpiritu huts bat, eternala, osoki perfeta, gauza gucien Creatzailea eta Nausi soberanoa.

G. Cer da izpiritua?

I. Hura da gorphutz ez den izaite bat, ezagutceco eta maithatceco ahala duena eta bere nahia-
ren jabe dena.

G. Certaco diozu Jaincoa Izpiritu huts bat dela?

I. Ceren Jaincoac ez baitu gorphutcic, gurea bezala ikhus eta hunki ditakenic.

G. Certaco diozu Jaincoa eternala dela?

I. Ceren Jaincoac ez baitu behinere izan hasteric, ez izanen akhabantzaric.

G. Certaco diozu Jaincoa osoki perfeta dela?

I. Ceren Jaincoac baititu perfeccione guciac, eta haren perfeccionec ez baitute mugaric.

✠ *G. Non da Jaincoa?*

I. Jaincoa orotan da.

✠ *G. Jaincoac ikhusten ditu oro?*

I. Bai, Jaincoac oro ikhusten ditu, gure gogoetaric gordeenac ere.

✠ *G. Jaincoac egin ditzazke nahi dituen guciac?*

I. Bai, Jaincoac egin ditzazke nahi dituen guciac, nekheric gabe; nahi izaitea aski du.

G. Cer erran nahi da, Jaincoa Creatzaile dela?

I. Erran nahi da, Jaincoac ez-deusetaric egin dituela diren guciac.

G. Certaco diozu, Jaincoa gauza gucien Nausi soberanoa dela?

I. Ceren oro Jaincoarenac baitire, eta ez baita

deus gerthatcen, haren manua edo haren permissionea gabe.

G. *Jaincoac artha du bere creaturez ?*

I. Bai, Jaincoac artha du bere creaturez, eta bereciki Gizonaz.

G. *Nola deitzen da Jaincoac gutaz duen artha hori ?*

I. Deitzen da Jaincoaren Probidencia.

Jaincoa agertcen zaio Moisi sutan den sasi batean.
(EXOD. III.)

Jaincoaren Probidencia bere creaturen alderat. (MATTH. VI, 25 et seq.)

HIRURGARREN CAPITULUA

I^{en} Articuluaren segida.

Trinitate Sainduco Misterioa.

✠ G. *Bada Jainco bat baino gehiago ?*

I. Ez, ez da Jainco bat baicic, eta ez da bat baicic izaiten ahal.

✠ G. *Cenbat presuna dire Jaincoa baithan ?*

I. Badire Jaincoa baithan hirur presuna bereci : Aita, Semea eta Izpiritu Saindua.

✠ G. *Aita Jainco da ?*

I. Bai, Aita Jainco da.

✠ G. *Semea Jainco da ?*

I. Bai, Semea Jainco da.

✠ G. *Izpiritu Saindua Jainco da ?*

I. Bai, Izpiritu Saindua Jainco da.

✠ G. *Beraz badire hirur Jainco ?*

I. Ez, hirur Presuna horiec ez dire Jainco bakhar bat bera baicic.

✠ G. *Hirur presuna horietaric bat handiago da, botheretsuago, edo zaharrago bertee biac baino ?*

I. Ez, hirur presuna horiec orotan bardin dire.

G. *Nola deitzen da misterio hori : Jainco bat hirur presunetan ?*

I. Deitzen da Trinitate Sainduco misterioa.

Jesu-Christoren bathaioa. (MATTH. III, 13 et seq.)





Aingeru begiralea.
(Steinheil. Baionaco eliza-nausian.)

LAURGARREN CAPITULUA

I^{en} Articularen segida.

Aingeruac.

G. *Cein dire Jaincoaren creaturarie perfetenac?*

I. *Hec dire Aingeruac eta Gizonac,*

✠ *G. Cer dire Aingeruac ?*

I. Aingeruac dire izpiritu huts batzu, Jaincoac creatu dituenac bere loriacotzat eta bere cerbitzuc.

G. Certaco diozu Aingeruac izpiritu hutsac direla ?

I. Ceren Aingeruec ez baitute gorphutic, gurea bezala ikhus eta hunki ditakenic.

✠ *G. Aingeru guciac Jaincoari fidel egon dire ?*

I. Ez; badire Aingeru gaichtoac, Jaincoaren contra altchatu direnac.

G. Nola Jaincoac saristatu ditu Aingeru onac ?

I. Eman diote ceruco zorion bethierecoa.

G. Cer ari dire Aingeru onac ?

I. Aingeru onac ari dire bethi Jaincoaren laudatcen eta haren manuen egiten.

✠ *G. Cer dire Aingeru begiraleac ?*

I. Aingeru begiraleac dire, gutaric bakhotcharen salbamenduaz Jaincoac bereciki cargatu dituenac.

G. Cer zor diogu gure Aigeru begiraleari ?

I. Behar dugu gure Aingeru ona maiz othoiztu, haren presentcia errespetatu, eta haren contseilu oneri jarraiki.

G. Nola deitcen dire Jaincoari jazarri zaizcon Aingeruac ?

I. Deitcen dire Aingeru gaichtoac edo Debruac.

G. Cer izan da Aingeru gaichtoen edo Debruen gaztigua ?

I. Jaincoac condenatu ditu ifernuco pena eternaletarat.

G. Debruac lehiatcen dire guri calte egiterat ?

I. Bai, lehiatcen dire bereciki gu bekhatuan


eror-arazterat; bainan garhait ditzazkegu Jaincoaren graciarekin.

Aingeruac agertcen Abrahami (GEN. XVIII); *Lothi* (GEN. XIX).

Rafael Arcanjeluac gidatcen Tobias gaztea. (TOB. V et seq.)

Debruac tentatcen Job. (JOB. I et seq.)

Debrua Jesu-Christoc garhaitcen. (MATTH. IV.)



San Frantses Salesecoaren
aphezpicu - makhila.



Haurren cantua ceruan.
(Castaing.)

BORTZGARREN CAPITULUA

I^{en} Articuluaaren segida.

Gizonaren Creatcea.

✠ *G. Cer da gizona ?*

I. Gizona da creatura bat adimendu-duna, arima eta gorphutz dena.

G. Cer da gizonaren arima ?

I. Gizonaren arima da izpiritu bat, Jaincoaren idurirat egina, eta gorphutzari bicia emaiten dioena.



Andredena Maria Betharramecoa, othoitz egizu guretzat.

G. Certaco diozu gure arima Jaincoaren idurirat egina dela?

I. Ceren gure arima, Jaincoa bezala, izpiritu bat baita hil ez ditakena, ezagutceco eta maithatceco ahala duena, eta bere nahiaren jabe dena.

✠ *G. Cein dire Jaincoac creatu dituen lehen gizona eta lehen emaztea?*

I. Hec dire Adam eta Eba, gure lehen burhasoac.

G. Certaco deitzen dituzu Adam eta Eba gure lehen burhasoac?

I. Ceren hetaric athera baitire gizon guciac.

✠ *G. Cer estatutan creatu cituen Jaincoac, Adam eta Eba?*

I. Jaincoac creatu cituen Adam eta Eba, saindu eta dohatsu, eta ez zuten hil behar.

G. Non ezarri cituen Jaincoac Adam eta Eba?

I. Jaincoac ezarri cituen Adam eta Eba Lurreco Parabisua deitzen cen zorionezco toki batean.

Adamen eta Ebaren creacionea. (GEN. I et II.)

SEIGARREN CAPITULUA

I^{er} Articulua segida.

Adamen bekhatua eta Bekhatu orisinala.

✠ *G. Adamec eta Ebac iraun zuten Jaincoac creatu cituen estatu dohatsuan?*

I. Ez, estatu hartaric laster athera ciren, Jaincoari desobedituric.

✠ *G. Adamec eta Ebac certan desobeditu cioten Jaincoari?*

I. Fruitu debecatutic janez.

G. Norc desobedi-araci cioten gure lehen burhasoeri?

I. Debruac, sugearen itchura harturic.

✠ *G. Cer izan ciren gure lehen burhasoentzat bekhatu horren ondorioac?*

I. Galdu cituzten graciazco estatua eta ceruratceco dretchoac; izan ciren ordutic gaizkirat erorcor eta jakitatez gabetuac; sofritcerat eta hiltcerat condenatuac.

✠ *G. Cer izan dire guretzat gure lehen burhasoen bekhatuaren ondorioac?*

I. Adamen bekhatuaren ondorioz, sortcen gare guciac bekhatu beraz hobendun, eta miseria berekin.

✠ *G. Nola deitzen da Adam gure lehen aitaren ganic ethortcen zaucun bekhatu hori?*

I. Deitzen da bekhatu orisinala.

✠ *G. Jaincoac ez othe du nehor begiratu bekhatu orisinaletic?*

I. Bai begiratu du Birjina Saindua bekhatu orisinaletic, eta bertce bekhatu gucietaric.

G. Nola deitzen da Birjina Sainduac izan duen gracia bereci hori?

I. Deitzen da Contcebicione notharic gabea.

Adamen eta Ebaren bekhatua. (GEN. II et III.)

ZAZPIGARREN CAPITULUA

II^{en} Articulua (Sinhesten dut) : *Jesu-Christo haren Seme bakhar, gure Jauna baithan.*

Incarnacioneco misterioa.

✠ *G. Jaincoac abandonatu ditu gizonac, Adamec bekhatu egin ondoan ?*

I. Ez, Jaincoac Adami berari hitceman cion, igorrico zuela Mesias munduaren salbatceco.

✠ *G. Jaincoac hitceman Salbatzailea ethorri da lurraren gainerat ?*

I. Bai, Salbatzailea ethorri da : hura da Jesu-Christo gure Jauna.

✠ *G. Nor da Jesu-Christo ?*

I. Jesu-Christo da Jaincoaren Seme, gizon egina.

✠ *G. Jaincoaren Semeaz, nor aditcen duzu ?*

I. Aditcen dut Trinitate Sainduco bigarren presuna, deitcen dena oraino Berboa.

✠ *G. Cer erran nahi duzu, diozunean Jaincoaren Semea gizon egin dela ?*

I. Erran nahi dut, Jaincoaren Semeac hartu dituela gureac bezalaco gorphutz bat eta arima bat.

G. Jaincoaren Semea khanbiatu da gizon egitearekin ?

I. Ez, Jainco denaz geroz, ez zaiteken khanbia; bainan gizonaren natura du altchatu, bere Jainco-tasunari juntatuz.

G. Cenbat natura dire Jesu-Christo baithan ?

I. Badire Jesu-Christo baithan bi natura : Jaincoarena eta gizonarena.



Jesusen sortcea. Artzainec adorategen dute.

✠ G. *Beraz Jesu-Christo Jainco eta Gizon da ?*

I. Bai, Jesu-Christo Jainco eta Gizon da.

✠ G. *Ba othe dire bi presuna Jesu-Christo baithan ?*

I. Ez, ez da Jesu-Christo baithan presuna bat baicic, hura da Jainco Semearen presuna.

✠ G. *Nola deitzen da Jaincoaren Seme gizon eginaren misterioa ?*

I. Deitzen da Incarnacioneco misterioa.

Mesias hitcemana. (GEN. III, 15; XXII, 18.)

Jesu-Christo bere Bathaioan Jaincoaren Seme deithua (MATTH. III, 13 et seq.); orobat Transfiguracionean (MATTH. XVII).

Jondoni Petriren hitzac. (MATTH. XVI, 13 et seq.)

ZORTCIGARREN CAPITULUA

III^{en} Articulua : *Concebitu baitcen Izpiritu Sainduaren berthutez, sorthu cen Maria Birjina ganic.*

Incarnacioneco Misterioaren segida.

✠ *Jaincoaren Semeac non hartu ditu gorphutza eta arima ?*

I. Jaincoaren Semeac hartu ditu gorphutza eta arima Birjina Maria dohatsuaren sabelean.

✠ G. *Nola egin cen misterio handi hori ?*

I. Izpiritu Sainduac Birjina Sainduaren odol garbienetic moldatu zuen Jesu-Christo gure Jau-naren gorphutza.

✠ G. *Birjina Saindua Jaincoaren Ama da ?*

I. Bai, Birjina Saindua Jaincoaren Ama da, haren Semea, Jesu-Christo, Jainco denaz geroz.

✠ *G. Birjina Saindua, Jaincoaren Amatcearekin, Birjina egon da?*

I. Bai, bethi Birjina egon da.

G. Nor cen San Josepe?

I. San Josepe cen Birjina Sainduaren esposa, eta haren birjinitatearen begiratzaila, Jesu-Christo gure Jaunaren aita hazlea.

G. Cein egunez concebitua izan da Jesu-Christo Birjina Maria dohatsuaren sabelean?

I. Martchoaren 25^{an}, Anonciacione egunean.

Gabriel Arcanjeluaren mezua Birjina Mariari. (Luc. 1, 26 et seq.)

BEDERATCIGARREN CAPITULUA

II^{en} eta III^{en} Articuluen segida.

Jesu-Christo gure Jaunaren Bicia.

✠ *G. Cein egunez sorthu da Jesu-Christo?*

I. Jesu-Christo sorthu da Eguberri gauean.

G. Non sorthu da?

I. Betelemen, establia tchar batean.

G. Nola ezagut-araci zuen Jaincoac Jesu-Christoren sortcea?

I. Jesu-Christoren sortcea Jaincoac ezagut-araci cioten artzaineri Aingeruez, eta Magoeri izar miragarri batez.

G. Cein egunez adoratu zuten Magoec Jesu-Christo?

I. Trufania egunean, heldu baita urtharrilaren seian.

G. *Cein egunez izan cen presentatua tenploan?*

I. Birjina Mariaren Purificacioneco egunean, heldu baita otsailaren bian.

✠ G. *Cenbat denbora bici izan da Jesu-Christo lurtean?*

I. Hogoi eta hamahirur urtheren ingurua.

G. *Cer bicitce ereman du Jesu-Christoc hogoi eta hamar urthetaraino?*

I. Jesu-Christoc hogoi eta hamar urthetaraino ereman du bicitce gorde bat, lanean ariz, eta obeditz Maria bere Amari eta San Joseperi.

G. *Cer egin du Jesu-Christoc bere bicico azken hirur urthetan, erran nahi baita bere bicitce publicoan?*

I. Jesu-Christoc, bere bicico azken hirur urthetan, predicatu du bere Ebanjelioa, hura baita gure salbamenduaren eracaspena, frogatu du Jainco dela hanitz miraculu eginez, eta ongia egin du zabilan toki gucietan.

G. *Cer da miraculua?*

I. Miraculua da gerthacari bat ageri den mundu huntaco legen contra dena eta Jaincoac baicic egin ez dezakena.

G. *Cein da Jesu-Christoc egin duen lehen miraculua?*

I. Hura da Canaco ezteietan uraren arnorat khanbiatcea.

G. *Errazkitzu, jeneralian, Salbatzailearen miraculu handienac?*

I. Jesu-Christoc, maiz bere hitzaz beraz, sendatu ditu eritasun suerte guciac, itsueri emanez bista, gorreri entzutea, mutueri mintzoa, etc.; izpiritu



Jesusec obeditec cioten Maria bere Amari eta Joseperi.
(Didron. Larresoroco seminarioco Capetan.)

gaichtoaz hartuac libratu ditu, eta hilac phiztu; azkenecotz bere burua phiztu du.

Jesu-Christoren sortcearen chehetasunac. (LUC. II.)

Magoen adoracionea. (MATTH. II.)

Birjina Sainduaren Purificacionea. (LUC. II, 22 et seq.)

Iracur Ebanjelioan Salbatzaileac here hici publicoan egin dituen gauza aiphatuenac.

HAMARGARREN CAPITULUA

IV^{en} Articulua : *Pairatu zuen Poncio Pilatusen manua-
ren azpian; gurutceficatu zuten, hil cen eta ehortci
zuten, jautsi cen ifernuetarat.*

Erospeneco misterioa.

✠ *G. Nola salbatu gaitu Jesu-Christoc?*

I. Jesu-Christoc salbatu gaitu, guretzat hilez gurutce baten gainean.

G. Erraguzu cerbeit Jesu-Christoren heriotceaz?

I. Jesu-Christo izan da Judasec saldua, Juduec Paganoen escuetarat emana, soldado erromanoec azotatua, Pilatusec hiltcerat condenatua, eta azkenecotz gurutceficatua bi ohoinen artean.

✠ *G. Cein egunez hil izan da Jesu-Christo?*


I. Ortzirale Sainduz.

✠ *G. Cer ongi egin daizkigu Jesu-Christoc bere heriotceaz?*

I. Jesu-Christoc, guretzat hilez, erreparatu ditu gure bekhatuac, salbatu gaitu ifernutic eta merecitu daucu bicitce eternala.

G. Nola Jesu-Christo hil ahal izan da, Jainco denaz geroz?

I. Jesu-Christo hil izan da gizon bezala, bai-



Jesu-Christo gure Jauna hiltzen da gurutcearen gainean,
(Pawell. Miarriteco hil-herrian.)

nan, Jainco bezala, eman dio bere heriotceari balio bat izari gabecoa.

G. *Nesenario cen Jaincoaren Semeac paira cezan eta hil zadin gure erosteco?*

I. Ez, Jaincoaren Semeac aski zuen den-gutiena aphaltcea gure erosteco.

G. *Certaco beraz nahi izan du Jesusec heriotce bat hoin icigarria pairatu?*

I. Guri bere amodioaren hobeki eracusteco, eta bekhatuaren azcarkiago higuin-arazteco.

G. *Gizon gucientzat hil izan da Jesu-Christo?*

I. Bai, Jesu-Christo gizon gucientzat hil izan da, eta cinez nahi du gizon guciac salba diten.

✠ G. *Nola deitzen da Jesu-Christo guretzat gurutcean hilaren misterioa?*

I. Deitzen da Erospeneco misterioa.

*Isaiasen profecia Jesu-Christoren heriotceaz. (Is. LIII.)
Jesu-Christoren Pasionea. (MATTH. XXVI, XXVII.)*

HAMECAGARREN CAPITULUA

IV^{en} Articuluaaren segida : *Ehortci zuten, jautsi cen ifernuetarat.*

Jesu-Christoren ehorztea eta Ifernuetarat jaustea.

✠ G. *Jesu-Christo hil ondoan, non eman zuten haren Gorphutza?*

I. Bi dicipuluc ezarri zuten, balsamaturic, hobi berri batean, non ez baitcen oraino nehor ehortcitic.

✠ *G. Norat joan cen haren Arima Saindua?*

*I. Jesu-Christoren Arima jautsi cen Ifernue-
tarat.*

G. Cer aditu behar da hemen Ifernuez?

I. Ifernuez, aditu behar dire hemen Linboac.

G. Cer ciren Linboac?

*I. Linboac ciren lekhu bat, non Jesu-Christo
hil aitcinean, Justuen arimec igurikitcen baitzuten
Salbatzailearen ethortcea.*

G. Certaco jautsi cen Jesu-Christo Linboetarat?

*I. Justuen arimen contsolatceco, eta heieri emai-
teco berria, laster handic atheraco cirela.*

G. Certaco arima hec ez ciren Ceruan?

*I. Ceren, Adamen bekhatuaz geroz, Cerua gizon
gucientzat hetsia baitcen, eta Jesu-Christoc bere
odolaz behar baitzuen ideki, eta bera lehenic
han sarthu.*

Jesu-Christoren ehorztea. (MATTH. XXVII.)

HAMABIGARREN CAPITULUA

Ven Articulua : *Hirurgarren egunean jaiki cen bicirie
hilen artetic.*

Jesu-Christo gure Jaunaren Phiztea.

✠ *G. Jesu-Christo luzaz egon cen hobian?*

*I. Ez, Jesu-Christo hirugarren egunean phiztu
cen.*

G. Norc phiztu du Jesu-Christo?

*I. Jesu-Christo bera phiztu da, Jainco bezala
duen bothereaz.*

✠ G. *Cein egunez phiztu da Jesu-Christo?*

I. Phazco egunean.

G. *Jesu-Christo phiztu-eta, cenbat denbora egon cen lurrean?*

I. Berrogoi egun.

G. *Cer egin zuen berrogoi egun hetan?*

I. Agertu cen ardura bere Apostolueri eta bertce dicipulueri, heiekin solas egiten eta batzuetan jaten ere zuelaric.

G. *Certaco agertu cen hola Jesu-Christo bere Apostolueri?*

I. Heien oraino hobeki argitceco, eta egiazki phiztu cela eracusteco.

Jesu-Christoren Phiztea. (MATTH. XXVIII; LUC. XXIV; JOAN. XX.)





Jesu-Christoren Cerurat igaitea.
(Gust. Doré.)

HAMAHIRURGARREN CAPITULUA

VI^{en} eta VII^{en} Articulua : *Igan cen Ceruetarat, jarria dago Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinan, handie ethorrigo dabicien eta hilen jujatcerat.*

Jesu-Christoren Cerurat igaitea.

✠ *G. Cer egin cen Jesu-Christo, phiztuz geroz, berrogoi egun lurrean egon ondoan ?*

I. Igan cen Cerurat bere bothereaz, Apostoluen eta Dicipuluen bistan.

✠ *G.* *Cein egunez igan cen Jesu-Christo Cerurat?*

I. Jondoni Salbatozez.

G. *Certaco diozu Jesu-Christo jarria dagola Jainco Aita bothere gucia duenaren escuinean?*

I. Adi-arazteco Jesu-Christo guciz botheretsu dela Ceruan eta lurrean.

G. *Non da orai Jesu-Christo gure Jauna?*

I. Jainco bezala, Jesu-Christo orotan da; Jainco-Gizon bezala, Ceruan da eta Aldareco Sacramendu Sainduan.

✠ *G.* *Cer erran nahi dute hitz hauc : handie ethorrico da bicien eta hilen jujatcerat?*

I. Erran nahi dute : munduaren akhabantzan, Jesu-Christo agerian jautsico dela Cerutic lurre-rat, gizon gucien jujatcerat.

Jesu-Christoren cerurat igaitea. (MARC. XVI, 14; ACT. APOST. I.)





Izpiritu Sainduaren jaustea, Mendecoste egunean.

HAMALARGARREN CAPITULUA

VIII^{en} Articulus (Sinhesten dut) : *Izpiritu Saindua
baithan.*

Izpiritu Sainduaren jaustea.

G. Cer egin ciren Apostoluae, Jesu-Christo Cerurat igan ondoan ?

I. Othoitcean egon ciren elgarrekin Jerusalem, Jesu-Christoc hitceman Izpiritu Sainduaren aiduru.

✠ *G. Nor da Izpiritu Saindua ?*

I. Izpiritu Saindua da Trinitate Sainduco hirugarren Presuna.

✠ *G. Cein egunez egorri cioten Jesu-Christoc Izpiritu Saindua Apostolueri ?*

I. Mendecoste egunean, goiceco bederatciac irian.

G. *Cer itchuretan jautsi cen Izpiritu Saindua Apostoluen gainerat?*

I. Suzco mihi batzu agertu ciren, eta jautsi heteric bakhotcharen gainerat.

G. *Cer egin cioten Izpiritu Sainduac Apostolueri?*

I. Jaincozco egien ezagutza eman cioten, eta indarrez eta kharrez bethe cituen Ebanjelioaren munduan predicatceco.

G. *Gutarat ethortcen da Izpiritu Saindua?*

I. Bai, Izpiritu Saindua gutarat ethortcen da graciaren bidez, bereciki Confirmacioneco Sacramenduan.

Izpiritu Saindua Jesu-Christoc Apostolueri hitcemana.
(JOAN. XV, 26; XVI, 7.)

Izpiritu Sainduaren jaustea. (ACT. II.)





Aita Saindua, Izpiritu Sainduac gidatua.

HAMABORTZGARREN CAPITULUA

IX^{en} Articulua (Sinhesten dut...): *Eliza Catolico Sainduan Sainduen partaliertasunean.*

Eliza.

✠ *G. Cer da Eliza?*

I. Eliza da Fededunen batasuna, Jesu-Christoc ezarria. Aita Sainduac eta Aphezpicuec gobernatzen dutena.

G. Nola Jesu-Christoc establitu du bere Eliza?

I. Jesu-Christoc establitu du bere Eliza, hautatuz hamabi Apostolu, haren baithan sinhetsico

zutenen gobernatceco, eta heieri emanaz aircindaritzat Jondoni Petri.

✠ G. *Cer da Aita Saindua?*

I. Aita Saindua da Eliza guciaren Buruzagi ageri dena, Jondoni Petriren ondocoa, Jesu-Christoren Bicariora lurtean.

G. *Elizac badu beraz ageri ez den buruzagi bat?*

I. Bai, hura da Jesu-Christo, Eliza establitu duena.

G. *Cer dire Aphezpicuac?*

I. Aphezpicuac dire Apostoluen ondocoac, Diosesen Buruzagiac, Aita Saindua nausi dutelari.

G. *Norc lagunteen ditu Aphezpicuac beren carguan?*

I. Aphecec, eta bereciki Aphezpicuec herrietan ezartzen dituzten erretorec.

G. *Erraiten denean Elizac cerbeit eracasten edo manatzen duela, cer aditzen da Elizaz?*

I. Aditzen da Aita Saindua bera, edo Aphezpicuac Aita Sainduarekin batean.

✠ G. *Eliza tronpa ditake bere eracaspentan?*

I. Ez, Eliza ez ditake tronpa bere eracaspentan.

G. *Certaco ez ditake tronpa Eliza?*

I. Ceren Izpiritu Sainduac gidatua baita.

✠ G. *Aita Saindua tronpa ditake?*

I. Ez, Aita Saindua ez ditake tronpa, Elizaren buruzagi bezala eracasten duenean cer behar duten Fededunec sinhetsi edo egin.

G. *Aphezpicuac tronpa ditazke?*

I. Aphezpicuac ez ditazke tronpa, Aita Sainduarekin egiten dutelari Elizaco Artzainen batasuna.

G. *Eliza lurreco buruzagi azpico othe da?*

I. Ez, Eliza bere obretan eta bere gobernuan, ez da lur huntan nehoren azpico.

✠ G. *Cenbat iraunen du Elizac ?*

I. Elizac iraun behar du bethi, munduaren akhabantzaraino.

Apostoluen hautatcea. (LUC. VI, 13 et seq.)

Jondoni Petri Elizaren Buruzagi. (MATTH. XVI, 13 et seq.; JOAN. XXI, 14 et seq.)

HAMASEIGARREN CAPITULUA

IX^{en} Articuluaaren segida.

Jesu-Christoren egiazco Eliza eta haren marcac.

✠ G. *Bada Eliza bat baino gehiago ?*

I. Ez, ez da Jesu-Christoren egiazco Eliza bat baicic.

✠ G. *Cein dire Eliza egiazcoaren marcac ?*

I. Badire laur : Eliza egiazcoa da : Bakharra, Saindua, Catolicoa eta Apostolicoa.

G. *Cer erran nahi da, Eliza Bakharra dela ?*

I. Erran nahi da, Elizaren menbro guciac Fede bera dutela, Sacramendu berac errecebitcen dituztela, eta ageri den Buruzagi berari obediten diotela.

G. *Cer erran nahi da, Eliza Saindua dela ?*

I. Erran nahi da, Jesu-Christo, Eliza egin duena, Saindutasuna bera dela; Elizaren eracaspnac sainduac direla; badirela bethi Elizan Sainduac, eta fededunen menean, Elizac ezartcen dituela saindu-
tceco behar diren guciac.

G. *Cer erran nahi da, Eliza Catolicoa dela ?*

I. Erran nahi da hedatua dela lur gucian.

G. *Cer erran nahi da, Eliza Apostolicoa dela?*

I. Erran nahi da Elizac eracasten duela Apostoluen dotrina, eta bai Aita Saindua, bai Aphezpicuac Apostoluetaric heldu direla lerro chuchean.

✠ G. *Non aurkhitcen dire Eliza egiazcoaren laur marca horiec?*

I. Aurkhitcen dire Eliza Erromanoan, edo bertce icenez Eliza Catolicoan.

G. *Cer da Eliza Erromanoa?*

I. Eliza Erromanoa da Erromaco Aphezpicua buruzagi duena.

G. *Nor izan da Erromaco lehen Aphezpicua?*

I. Jondoni Petri, Apostoluen aitcindaria.

G. *Chizmaticoen eta Protestanten elicec badi-tuzte Eliza egiazcoaren laur marcac?*

I. Ez, ez dituzte.

✠ G. *Eliza Erromanoa da beraz bakharric egiazco Eliza?*

I. Bai, Eliza Erromanoa da bakharric Jesu-Christoren Eliza egiazcoa.



Jesu-Christoc eracasten diote Apostolueri *Gure Aita*.

HAMAZAZPIGARREN CAPITULUA

IX^{en} Articuluaaren segida.

Eliza egiazcoan izaitea nesesario da.

G. Certaco ezarri du Jesu-Christoc bere Eliza?

I. Jesu-Christoc ezarri du bere Eliza, gizonec han aurkhi detzaten salbatceco behar dituztenac.

✠ *G. Salba ditake Elizatic canpo?*

I. Ez, Elizatic canpo ez da salbamenduric.

G. Cer erran nahi dute hitz horiec: Elizatic canpo ez da salbamenduric?

I. Erran nahi dute, beren faltaz Eliza Catolico-tic canpo dagocinac ez ditazkela joan Cerurat.

✠ *G. Cein dire Elizatic canpo bici direnac?*

I. Hec dire infidelac, hereticoac, chizmaticoac, giristino arnegatuac eta escumicatuac.

G. *Cer da infidela?*

I. Infidela da bathaiatua ez dena.

G. *Cer da hereticoa?*

I. Hereticoa da fedezco egia cenbeit sinhesten ez duena.

G. *Cer da chizmaticoa?*

I. Chizmaticoa da aphezpicu catolicoen eta bereciki Aita Sainduaren nausitasuna onhesten ez duena.

G. *Cer da giristino arnegatua?*

I. Giristino arnegatua da giristino bat, erlisio-neari osoki ukho egin dioena.

G. *Cer da escumicatua?*

I. Escumicatua da bekhatoros gogortua, Elizac bere batasunetic canpo eman duena, urrikitan sar-arazteco.

G. *Cer ondorio dakharke bereciki escumicoac?*

I. Escumicatuac urrunduc dire Sacramenduetaric, eta ez ditazke giristinoki ehortz.

G. *Icenda zatzu escumicatuac direnetaric cenbeit?*

I. Escumicatuac dire framazonac, nola ere duelean ari direnac, eta Elizaco ontasunac erosten edo alocatcen dituztenac erlisioneco buruzagien baime-nic gabe.

Noeren arca Elizaren itchura. (GEN. VI.)

HEMEZORTCIGARREN CAPITULUA

IX^{ea} Articuluaaren segida (Sinhesten dut): *Sainduen partaliertasunean.*

Sainduen Partaliertasuna.

✠ *G. Cer erran nahi da, Sainduen Partaliertasuna?*

I. Erran nahi da, fededunac arimaco ontasunetan elgarren partalier direla.

✠ *G. Nola hori?*

I. Bakhotchac izaiten dituen graciae, eta egiten dituen obra onac, ororen onetan baitire.

G. Certaco dire fededun guciac arimaco ontasunetan partalier?

I. Ceren Eliza gorphutz bat baita, Jesu-Christo haren hurua, eta fededunac haren menbroac.

G. Sainduen Partaliertasuna elgarrekin dugu bakharric lurreco fededunec?

I. Ez, partalier gare oraino Ceruco Sainduekin eta Purgatorioco arimekin.

G. Ceruco Sainduekin nola gare partalier?

I. Sainduac othoizten baititugu, eta Sainduec guri Jaincoaren ganic graciae ardiesten baitaizcute.

G. Purgatorioco arimekin nola gare partalier?

I. Soleitcen baititugu gure othoitzez eta obra onez, bereciki Mezaco Sacrificio sainduaz.

Jondoni Petri Girstinoec beren othoitzez presondegitic libratua. (ACT. XII.)

*Onias eta Jeremias, aspaldi hilac, Israelgo populua-
rentzat othoitcean. (II MACH. XV, 12 et seq.)*

*Judas Macabec hilentzat sacrificio bat ofrei arazten du.
(II MACH. XII, 43 et seq.)*

HEMERETCIGARREN CAPITULUA

X^{en} Articulua (Sinhesten dut) : *Bekhatuen
barkhamenduan*

Bekhatuen barkhamendua.

✠ G. *Cer erran nahi dute hitz horieci : (Sinhesten dut) bekhatuen barkhamenduan?*


I. Erran nahi dute, Jesu-Christoc eman diola bere Elizari bekhatuen barkhatceco indarra.

G. *Elizac barkha ditzazke bekhatu guciac?*

I. Bai eta bekhatuic handienac ere.

✠ G. *Elizac nola barkhatcen ditu bekhatuac?*

I. Elizac barkhatcen ditu bekhatuac bereciki Bathaioco eta Penitentciaco Sacramenduez.



San Frantses Xavierecoa, escualdun apostolua.
(Steinheil. Baionaco eliza-nausian.)

HOGOIGARREN CAPITULUA

XI^{en} eta XII^{en} Articuluaac (Sinhesten dut) : *Haragiaren phiztean, bethi irannen duen bicilcean.*

Gizonaren laur azken Finac.

G. *Cer eracasten daucute Sinhesten duteco azken bi articuluec ?*

I. Ezagut-aratzen daizcute gizonaren laur azken Finac.

✠ G. *Cein dire gizonaren laur azken Finac ?*

I. Hec dire : Heriotcea, Jujamendua, Cerua eta Ifernua.

✠ G. *Cer da Heriotcea ?*

I. Heriotcea da arimaren gorphutctic berechtea.

✠ G. *Cer eginen da gure arima, gu hil ondoan ?*

I. Jaincoaren aitcinean agertuco da, jujatua izaiteco.

✠ G. *Nola deitzen da hil-eta berehala izanen den Jujamendu hura ?*


I. Deitzen da Jujamendu particularra.

✠ G. *Norat joanen da gure arima Jujamendu particularraren ondotic ?*

I. Joanen da edo Cerurat, edo Ifernurat, edo Purgatoriorat, mereci dukenaren arabera.

G. *Cer eginen da gure gorphutza, hil ondoan ?*

I. Erhauts bilhacatuco da, eta erhauts egonen haragiaren phizteraino.



Andredena Mariaren Cerurat altchatcea,
(Bonnat. Baionaco San Andresen.

✠ G. *Cer aditcen duzu haragiaren phizteaz?*

I. Gizon guciac phiztucó direla munduaren akhabantzán, errán nahí baita, heien arimec hartucó dituztela bician cituzten gorphutz berac.

G. *Cer izanen da haragiaren phiztearen ondotic?*

I. Izanen da Jujamendu jeneralá.

✠ G. *Cer da Jujamendu jeneralá?*

I. Hura da jujamendu público bat, Jesu-Christoc munduaren akhabantzán gizon guciez eginen duena, oro phiztu eta batetarat bildu diren ondoan.

✠ G. *Norat joanen dire gizonac Jujamendu jeneralaren ondotic?*

I. Justuac joanen dire, arima eta gorphutz, Cerurat; gaichtoac joanen dire, arima eta gorphutz, Ifernurat.

Balthazar. (DAN. v.)

Zoroaren parabola. (LUC. XII, 16 et seq.)

Jujamendu jeneralá. (MATTH. XXIV et XXV.)

HOGOI-TA-BATGARREN CAPITULUA

Gizonaren laur azken Finen segida.

✠ G. *Cer da Cerua?*

I. Cerua edo Parabisua da lekhu bat, non Aingeruac eta Sainduac bethicotz dohatsu baitire Jaincoarekin.

✠ G. *Cein dire Cerurat doacinac?*

I. Graciazco estatuan hiltcen direnac, beren bekhatu gucientzat osoki satisfatu ondoan.

G. *Cerc egiten du Ceruco zoriona?*

I. Egiten du Jaincoaren ikhusteac eta Jaincoaz gozatceac, hura baita ontasun soberanoa.

✠ G. *Cer da Ifernua?*

I. Ifernua da lekhu bat, non gaichtoac bethicotz dohacabe baitire debruekin.

✠ G. *Cein dire Ifernurat doacinac?*

I. Bekhatu mortalezco estatuan hiltcen direnac.

G. *Cerc egiten du damnatuen zorigaitza Ifernuan?*

I. Egiten du Jaincoaz bethicotz gabetua izaiteac, eta bethiereco suan erretceac.

✠ G. *Cer da Purgatorioa?*

I. Purgatorioa da sofricariozco lekhu bat non justuen arimec beren bekhatuentzat satisfatcen baitute, Cerurat joan aitecinan.

Aberats gaichtoa. (Luc. xvi, 19 et seq.)





Moïse jausten da Sinaico menditic, Legea izeribatua
zuen harriac escuan.

(Gust. Doré.)

BIGARREN PHARTEA

SALBATCECO BETHE BEHAR DIREN EGINBIBEAC

LEHEN CAPITULUA

Manamenduac.

✠ G. *Non aurkhitzen dire salbatceco bethe behar ditugun eginbideac?*

I. Jaincoaren eta Elizaren manamenduetan.

✠ G. *Cenbat dire Jaincoaren manamenduac?*

I. Badire hamar.

✠ G. *Errazkitzu?*

- I.
1. Jainco bat adora zazu,
Halaber maitha osoki.
 2. Juramenturic ez duzu,
Ez cinic eginen banoki.
 3. Igandeac begira zatzu,
Jauna ere cerbitza debotki.
 4. Aita eta Ama ohora zatzu,
Bici zaitecen luceki.
 5. Nehor' obraz hilen ez duzu,
Ez borondatez gaichtoki.
 6. Lohikeria eginen ez duzu,
Obraz ez gogoz likhiski.

7. Bertcerena ebatsico ez duzu,
Ez atchikico injustuki.
8. Lekhucotasunic ez duzu,
Ez hitz erranen faltsuki.
9. Gogoeta lohiac khenduco tutzu,
Bihotza begiratuz garbiki.
10. Guticia izanen ez duzu,
Bertcerenaren gaizki.

G. *Nola eman ditu Jaincoac manamendu horiec?*

I. Jaincoac eman ditu manamendu horiec Moisi, Sinaico mendiaren gainean, eta gure Salbataileac bere Ebanjelioan fincatu ditu.

G. *Nori behatzen dire Jaincoaren manamenduac?*

I. Lehen hirurac Jaincoari; bertce zazpiac, lagunari edo guhauri.

✠ G. *Jesu-Christoren arabera, certan sartzen dire manamendu guciac?*

I. Jaincoaren eta lagunaren amodioan.

✠ G. *Cenbat dire Elizaren manamenduac?*

I. Berecienac badire sei.

✠ G. *Errazkitzu.*

1. 1. Phestac begira zatzu
Manamenduzcoac sainduki.
2. Meza Saindua entzun ezazu,
Phesta eta igandetan debotki.
3. Bekhatuac cofesa zatzu,
Urthean behin osoki.
4. Gorphutz Saindua errecebi zazu,
Phazcoz bederen humilki.
5. Garthac, bichiliac barur zatzu,
Garizuma ere osoki.
6. Orciralean janen ez duzu,
Ez larunbatean, haragi.

G. *Certaco behar ditugu begiratu Elizaren manamenduac ?*

I. Behar ditugu begiratu, ceren Elizari desobeditcea Jesu-Christori desobeditcea baita.

G. *Certaco diozu, Elizari desobeditcea Jesu-Christori desobeditcea dela ?*

I. Ceren Jesu-Christoc here Apostolueri erran baitiote : Zuec entzuten zaituztenac, ni entzuten nau; zuec arbuiatcen zaituztenac, ni nau arbuiatcen.

✠ G. *Norc du, Elizan, legeen egiteco escua ?*

I. Aita Sainduac egin detzazke legeac Eliza gucico, eta Aphezpicuac bere diosesaco.

Jaincoac emaiten du here Legea Sinaico mendian, (Exod. XIX et XX.)



Zoazte, argi zatzue jendaki guciac, bathaiateen ditutzuelaric Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren icenean.

BIGARREN CAPITULUA

Jaincoaren lehen Manamendua.

✠ *G. Cer manatcen daucu Jaincoaren lehen manamenduac* : Jainco bat adora zazu, halaber maitha osoki?

I. Jaincoaren lehen manamenduac manatcen daucu : lehenbicicoric, Jaincoac eracasten daizcun egien sinhestea; bigarrenecoric, haren baithan esperantza izaitea; hirugarrenecoric, haren oroz gainetic maithatcea; laugarrenecoric, haren, eta haren bakharric adoratcea.

✠ *G. Egizu Fedezco Acta.*

I. Ene Jaincoa, sinhesten ditut cinez, etc., p. 21.

G. *Nola egiten da bekhatu Fedearen contra?*

I. Bekhatu egiten da Fedearen contra: lehenbicoric, ez fermuki sinhetsiz Erlisioneco egia guciac; bigarrenecoric, jakin behar direnac ez icasiz; hirugarrenecoric, ahalgetuz giristino agertceaz; laugarrenecoric, Elizaren eracaspenen contraco solasac erranez edo iracurtceac eginez.

G. *Cein dire, egungo egunean Fedearentzat gehienic caltecor diren iracurtceac?*

I. Hec dire Erlisionearen edo Erlisioneco gauen contraco caceten iracurtceac.

G. *Cer erran behar da holaco cacetac arduran iracurtcen dituztenez?*

I. Erran behar da bekhatu mortalezco estatuan direla, eta ez dezaketela absolucioneric izan, ez badituzte iracurtce horiec utzi nahi.

✠ G. *Egizu Esperantzazco Acta.*

I. Ene Jaincoa, esperantza dut, etc., p. 22.

G. *Nola egiten da bekhatu Esperantzaren contra?*

I. Egiten da bekhatu Esperantzaren contra desesperacionez eta presonpcionez.

G. *Cein dire bekhatu egiten dutenac desesperacionez?*

I. Hec dire Jaincoa baithan confidentcia escas dutenac, eta beren salbamendua ecin eginezcoa edo sobera gaitza daucatenac.

G. *Cein dire bekhatu egiten dutenac presonpcionez?*

I. Hec dire Jaincoa ofentsatcen dutenac, erranez Jaincoac barkhatuco diotela, urricalmendutsua delacotz.

✠ G. *Egizu Jaincoaren Amodiozco edo Caritatezco Acta.*

*I. Ene Jaincoa, maite zaitut ene bihotz gu-
ciaz, etc., p. 22.*

*G. Certaco aiphatcen duzu lagunaren amodioa
Jaincoaren Amodiozco Actan?*

*I. Ceren ez baititake Jaincoa egiazki maitha,
ez bada maithatcen protsimo laguna, gu bezala
Jaincoaren haurra dena.*

Abrahamen Fedea. (GEN. XXII.)

Joben fidantzia. (JOB XIX, 25 et seq.)

Caritatea laudatua. (I COR. XIII.)

HIRURGARREN CAPITULUA

Lehen Manamenduaren segida.

Jaincoari zor zaion Adoracionea eta Sainduen ohoratcea.

✠ *G. Cer da Jaincoaren adoratcea?*

*I. Jaincoaren adoratcea da, hari ohore emaita
gauza gucien Creaizaile eta Nausi soberanoari
bezala.*

*G. Cein dire Jaincoari zor zaion Adoracionea-
ren contraco bekhatuac?*

*I. Badire hirur printcipalac : Idolatria, Sacri-
leioa eta Supersticionea.*

✠ *G. Cer da Idolatria?*

I. Idolatria da Jaincoaz bertceric adoratcea.

✠ *G. Ez detzazkegu beraz Sainduac adora?*

*I. Ez, ez detzazkegu adora, baina ohora ditzaz-
kegu eta behar ditugu ohoratu, Jaincoaren adis-
kideac bezala.*

✠ G. *Ohore bereciric zor diogu Birjina Sainduari?*

I. Bai, zor diogu Birjina Sainduari ohore bereci bat, Jaincoaren Ama delacotz.

G. *Cer diozu Gurutceari, Jesu-Christoren eta Sainduen potreteri, eta Sainduen erlekieri emaiten zaizcoten ohoreez?*

I. Diot guciz ongi direla, ceren ohore horiec Jesu-Christori eta Saindueri bereri baitoaci.

G. *Cer da Sacrileioa?*

I. Sacrileioa da, Jaincoari contsecratua denaren profanatcea.

G. *Cer da Supersticionea?*

I. Supersticionea da, uste izaitea holaco presunac edo halaco gauzac baduketela naturalezaz goragoco cerbeit indar, batere ez dutena.

G. *Bekhatu othe da azti, sorgin, edo bertce holaco cenbeiti contseilu galdatcea?*

I. Bai, holacoeri contseilu galdatcea bekhatu da.

Hirur haurrac labe gorrian. (DAN. III.)

Heliodore gaztigatua Jerusalemeco temploa profanaturic. (II MACH. III.)

Achab gaztigatua, profeta faltsuac mintzaturic. (III REG. XXII.)

LAURGARREN CAPITULUA

Jaincoaren bigarren Manamendua.

✠ G. *Cer debecatcen daucu Jaincoac bigarren manamenduaz : Juramenturic ez duzu, ez cinic eginen banoki?*

I. Bigarren manamenduaz Jaincoac debecatcen

daizcu : beharric gabeco cinac, cin faltsoac, blasfemioac, Jaincoaren Ikena gaizki ibiltcea, eta botuen haustea.

✠ G. *Cer da cin edo juramentu egitea ?*

I. Hura da, gure erranaren fincatceco Jaincoa lekhuco hartcea.

G. *Cina berenaz gauza ona da ?*

I. Bai, cinac Jaincoa ohoratcen du, eta batzuetan behar da cin egin.

✠ G. *Cer da Cin faltsua ?*

I. Gezurraren fincatceco egiten dena.

✠ G. *Cin faltsua bekhatu handia da ?*

I. Bai, bekhatu mortala da.

G. *Juramenturekin hitceman egin behar da ?*

I. Bai, hitceman gauza ona balinbada; bainan hitceman gauza gaizki balitz, bekhatu egin litake hitza atchikiz, hitcemaitean bekhatu egin den bezala.

✠ G. *Cer da blasfemioa ?*

I. Blasfemioa da hitz gaichto bat Jaincoaren edo Sainduen contra.

G. *Cer da Jaincoaren Ikena gaizki ibiltcea ?*

I. Hura da, Icen Saindu horren aiphatcea errespeturic gabe.

✠ G. *Cer da botua ?*

I. Botua da Jaincoari haren gogoraco cerbeiten hitcemaitea, chede hunekin : bekhatu bat izanen dela ez bada hitceman egin.

G. *Gauza ona da botu egitea ?*

I. Bai; bainan behar dire aitecetic gogoetac egin, eta jeneralean Cofesora mintzatu.

Herodesec, cin eginic arinki, Jondoni Joani Batistari burua motzarazten dio. (MATTH. XIV, 3 et seq.)

Blasfematzailea harricatua. (LEV. XXIV, 10 et seq.)

BORTZGARREN CAPITULUA

Jaincoaren hirugarren manamendua.

✠ G. *Cer manatcen daucu Jaincoac hirugarren manamenduaz : Igandeac begira zatzu, Jauna ere cerbitza debotki ?*

I. Hirugarren manamenduaz Jaincoac manatcen daucu igande egunen sainduki iragaitea.

✠ G. *Cer egin behar da igande egunen sainduki iragaiteco ?*

I. Nekhatzale lanetan ez hari, eta Jaincoaren ohoratceari jarraiki.

G. *Cer dire nekhatzale lanac ?*

I. Hec dire lan batzu, gorphutceco indarrez bereciki egiten direnac, eta maicenic biciaren irabazteco.

G. *Cer egin behar da lan bat denean, igandecari, ecin utcia ?*

I. Behar litake Jaun Erretoraren baia galdatu ; eta dudazco casuan, bethi galdegin behar da.

✠ G. *Nola ohoratcen da Jaincoa igande egunetan ?*

I. Ohoratcen da bereciki Meza Saindua entzunez.

G. *Cer zaucu oraino gomendatua, igandearen sainduki iragaiteco ?*

I. Gomendatua zaucu Bezperetan eta predicuetan aurkhitcea, debocionezco eta caritatezco obren egitea, josteta galgarrietaric uruntcea.

Jaunaren eguna begiratu ez zuena harricatua. (NUM. xv, 32 et seq.)

SEIGARREN CAPITULUA

Jaincoaren laurgarren manamendua.

✠ *G. Cer manatcen daucu Jaincoac laurgarren manamenduaz : Aita eta Ama ohora zatzu, bici zaitecen luceki ?*

I. Laurgarren manamenduaz Jaincoac manatcen daucu Aita Amen maithatcea, errespetatcea, obeditea, arimaco eta gorphutceco behar-orduetan laguntcea.

G. Cer laguntza zor diotegu gure burhasoeri ?

I. Zor diotegu heien laguntcea eta soleitcea, pobre, zahar, edo eri direnean; heientzat othoitz egitea, eta bereciki heriotceco orduan, heieri azken Sacramenduen eman-araztea.

G. Ez othe diotegu deusic zor gure aita ameri, hil direnean ?

I. Bai, behar dugu heientzat othoitz egin eta egin-araci, eta heien azken manuac osoki bethe.

✠ *G. Cein dire Aita Amen eginbideac beren haurren alderat ?*

*I. Aita Amec behar dituzte beren haurrac maithatu, haci, giristinoki altchatu, eta beren estatua-
ren arabera gidatu.*

✠ *G. Cer egin behar dute Aita Amec beren haurren giristinoki altchatceco ?*

I. Erlisioea ikhas-araci; fedearen eta onestasunaren galtceco lanjer gucietaric begiratu, etsenplu ona eman, eta behar-orduan correitu.



Familia saindua.

(Delance, Oloronen, Andredena Mariaren elizan.)

✠ *G. Nola Aita Amec betheco dituzte eginbide horie?*

I. Betheco dituzte, beren haurrac, ahal dutelarric, escola giristino batetarat egorriz.

✠ *G. Cer diozu beren haurrac escola tzar batetarat egortcen dituzten burhasoez?*

I. Burhaso horie handizki hobendun direla, Jaincoaren eta beren haurren alderat.

✠ *G. Cer da escola tzarra?*

I. Hura da escola bat, non haurren arimentzat lanjer handiac baitire, ala escola-emaileen gatic, ala haurren escuetan emanac diren liburuen gatic.

✠ *G. Cein dire escola-emaileen eginbideac beren escolieren alderat?*

I. Escola-emaileec behar dituzte beren escolierac giristinoki altchatu; ez diote eman behar liburu tzarric, ez eta ere Erlisionearen contraco eracaspenic.

G. Cer sartcen da oraino laurgarren manamendu hortan?

I. Sartcen dire oraino, aiticindariec eta azpicoec elgarren alderat dituzten eginbideac.

G. Cein dire bereciki sehien eginbideac nausien alderat?

I. Sehiec zor diote nausieri errespetua, leialtasuna eta obedientcia.

G. Cein dire nausien eginbideac sehien alderat?

I. Nausiec behar dute izan on eta zucen sehien alderat, casu egin nola dabilzan, eta lagundu erlisionearen praticatcen.

G. Burhasoec edo aiticindariec mana othe dezakete cerbait Jaincoaren legearen contra?

I. Ez, nehorc ez du dretcho hori, eta bekhatu liteke holaco manu bati obeditcea.

Absalon bere aitaren contra altchaturie gaztigatua. (II REG. XV et XVIII.)

Tobiasen contseiluac bere semeari. (TOB. IV, 2 et seq.)

ZAZPIGARREN CAPITULUA

Laugarren manamenduaren segida.

Elizaco aiteindarien alderateco eginbideac.

✠ *G. Nor dire Elizaco gure aiteindariac ?*

I. Hec dire, Jaincoac Elizan gure buru ezarri dituenac : Aita Saindua, Aphezpicuac eta Aphezac.

✠ *G. Cein dire gure eginbideac Elizaco aiteindarien alderat ?*

I. Behar ditugu ohoratu gure arimen aitac bezala, heien errana entzun errespetu eta obedienciaekin, eta hec bicitceco behar dituztenetan lagundu.

G. Cer zor diote bereciki fededunec beren Erretorari ?

I. Fededunec behar dute Erretora lagundu bere eginbide sainduen bethetcen, bai eta ere Elizaco eta bertce obra izpiritualetaco gastuetan.

✠ *G. Cer da Aphecen paga erraiten zaion obra ?*

I. Hori da Jaun Aphezpicuac ezarri duen obra bat, diosesaco apheceri emaiteco beren bicitcecoa.

✠ G. *Obligatuac gare Aphecen pagarentzat emaita?*

I. Bai, obligatuac gare, eta bekhatu handia litake ez emaita.

✠ G. *Certaco dugu zor paga hori?*

I. Ceren zucen baita, fededunec lagun detzaten gorphutceco beharretan, heien arimaco onarentzat nekhatcen direnac.

✠ G. *Cenbat behar da eman paga horrentzat?*

I. Bakhotchac eman behar du, bere ahalaren arabera, herriari galdatua zaion diruketaren biltceco behar dena.

ZORTCIGARREN CAPITULUA

Laurgarren manamenduaren segida.

Lurreco aiteindarien alderateco eginbideac.

G. *Nor dire lurreco gure aiteindariac?*

I. Hec dire Erresumaco buruzagia eta bertce Cargudun guciac.

✠ G. *Nondic heldu da gure gobernatzailen botherea?*

I. Heldu da Jaincoaren ganic, Jaincoa baita bothere gucien ithurburua.

G. *Nola behar dute gobernatzailc beren cargua bethe?*

I. Gobernatzailc behar dute populuaren ona bilhatu, eta zucen izan beren azpico gucien alde-rat.



Jondoni Petri, Elizaren buruzagia, Jesu-Christoren
bicarioa lurrean.

(Erroman, Jondoni Petriren elizan.

✠ G. *Cer manatcen daucu Jaincoac lurreco gure aitcindarieri buruz?*

I. Jaincoac manatcen daucu heien errespetatcea eta heieri obeditcea, haren lege sainduaren contra ez diren gauza gucietan.

G. *Cer dire, bere herriari buruz, giristino baten eginbideac?*

I. Giristino batec, behar du eman, zucen den heinean, Erresumaco gastuentzat, eta contcientciaz bethe boz-emaiteco eginbidea.

✠ G. *Certaz behar da bereciki grinatu boz-emaile Catolicoa?*

I. Boz-emaile Catolicoac behar du oroz gaine-
tic bilhatu Erlisionearen eta Erresumaren ona.

✠ G. *Haizu da boz-emaitea Erlisionearen eta Erresumaren etsaientzat?*

I. Ez; bekhatu handia da boz-emaitea Erlisio-
nearen eta Erresumaren etsaientzat, eta heien kide-
coentzat.

✠ G. *Certaco da bekhatu handia Erlisionearen eta Erresumaren etsaientzat boz-emaitea?*

I. Ceren hobendun jartcen baita, gizon hec hau-
tatuac balin badire, eginen duten gaizki guciaz.

G. *Cer diozu bocic eman gabe egoiten direnez?*

I. Diot, bocic eman gabe egoiten direnec be-
khatu handia egin dezaketela batzuetan, nausitce-
rat utciz Erlisionearen etsaiac.



Jondoni Martine, caritatearen etsenplua.
(Pauen, Jondoni Martineco elizan.)

BEDERATCIGARREN CAPITULUA

Bortzgarren Manamendua.

✠ *G. Cer debeatcen daucu Jaincoac bortzgarren manamenduaz : Nehor obraz hilen ez duzu, ez borondatez gaichtoki?*

I. Bortzgarren manamenduaz Jaincoac debeatcen daucu : 1° protsimo lagunaren hiltcea, colpatcea edo joitea; 2° haren higuintcea, edo hari-gaizkiaren desiratcea; 3° haren laidostatcea; 4° hari escandala emaitea.

G. *Haizu da bere buruaren hiltzea?*

I. Ez, ez da behinere haizu bere buruaren hiltzea, ceren gure bicia Jaincoarena baita.

G. *Eta duelean hartzea, behkatu handia da?*

I. Bai, behkatu handia da, ceren batec bertzea hil baitezake.

G. *Nola gaztigatcen du Elizac duela?*

I. Elizac gaztigatcen du *duela* escumicoaz.

✠ G. *Cer da escandala?*

I. Escandala da hitz bat edo obra bat, bertceac behkatu egiterat ekhar ditzazkena.

G. *Cer egin behar da escandala eman denean?*

I. Behar da ahalaz erreparatu escandala, eta haren ondorioac desegin.

✠ G. *Aski othe da Lagunaren ez higuintzea, eta hari calteric ez egitea?*

I. Ez; Caritateac manatcen daucu oraino Lagunaren maithatcea, gure burua bezala.

✠ G. *Cer da Lagunaren maithatcea gure burua bezala?*

I. Hura da Lagunari nahi izaitea beretzat nahi den ongi bera, eta haren laguntzea, ahal becenbat, arimaco eta gorphutceco beharretan.

G. *Behar othe ditugu maithatu gure etsaiac ere?*

I. Bai, Jesu-Christoc egin daucu hortaz manu bereci bat, eta berac etsenplua eman daucu, bere burregoentzat othoitz eginez.

Cainen ichtorioa. (GEN. IV.)

Amanen calomnia. (ESTH. III et VII.)

Jesu-Christ ren hitzac escandala emaileen contra. (MATTH. XVIII, 6 et seq.)

Jesu-Christoc manatcen daucu maitha ditzagun gure etsaiac. (MATTH. V, 44.)

Othoitz egiten du bere burregoentzat. (LUC. XXIII, 34.)

HAMARGARREN CAPITULUA

Jaincoaren seigarren eta bederatcigarren Manamenduac.

✠ *G. Cer debeatcen daucu Jaincoac seigarren manamenduaz : Lohikeria eginen ez duzu, obraz ez gogoz, likhiski?*

I. Seigarren manamenduaz Jaincoac debeatcen daizcu obra, hitz, behatce lizunac, eta lohikeriazco bekhatuetarat deramaten gauza guciac.

✠ *G. Cer debeatcen daucu Jaincoac bederatcigarren manamenduaz : Gogoeta lohiac khenduco tutzu, bihotza begiratzuz garbiki?*

I. Bederatcigarren manamenduaz Jaincoac debeatcen daizcu garbitasunaren contraco gogoetac eta guticiac.

G. Gogoeta gaichtoetan baratcea bekhatu handia da?

I. Bai, gogoeta gaichto batean bere nahitarat baratcea, aski litake arimari heriotcearen emaiteco.

G. Cein dire maicenic lohikeriarat deramaten gauzac?

I. Hec dire : iracurtce tzarrac ; lagun gaichto edo galgarriekin ibiltcea ; sobera jatea eta edatea ; comedia eta behar ez diren jostetac ; beztimenda ez aski onestac.

G. Cer egin behar da Garbitasunaren contraco bekhatuetan ez erortceco?

I. Bekhatu hetarat deramaten gucietaric begi-

ratu; othoitz egin, bereciki Ama Birjinari; Sacramendueri jarraiki.

Ceruco sua jausten da Sodomaren gainerat. (GEN. XIX.)
Josepen garbitasuna. (GEN. XXXIX.)

HAMECAGARREN CAPITULUA

Jaincoaren zazpigarren eta hamargarren Manamenduac.

✠ *G. Cer debecatcen daucu Jaincoac zazpigarren manamenduaz : Bertcerena ebatsico ez duzu, ez atchikico injustuki?*

I. Zazpigarren manamenduaz Jaincoac debecatcen daucu bertcerenaren zucen contra hartcea edo atchikitcea, eta lagun protsimoari calte egitea.

G. Cein dire bertcerenaren zucen contra hartceco moldeac?

I. Ardurenac dire : ohointza, lukhura, eta salerospenetaco tronperiac.


G. Cein dire bertcerena zucen contra daucatenac?

I. Hartu gauzac eta begiratceco izanac itzultcen ez dituztenac; hatceman gaucen jabeac bilhatcen ez dituztenac; zorrac pagatcen ez dituztenac, bereciki sehien soldatac eta langileen jornalac.

G. Cer egin behar da Lagunari calte egin zaionean?

I. Erreparatu behar da egin zaion calte gucia.

✠ *G. Cer debecatcen daucu Jaincoac hamarga-*



Jondoni Juliano eta Galactorio, Lescarreco aphezpicu
eta patroinac.

(Baionaco eliza-nausian.)

rrren manamenduaz : Guticia izanen ez duzu bertcerenaren gaizki ?

I. Hamargarren manamenduaz Jaincoac debecatcen daucu bertcerenaren zucen contra hartceco edo atchikitceco nahicundea.

Jezabel Naboten mahastiaz jabtccen da. (III REG. XXI.)
Giezi lepraz estalia. (IV REG. V.)





Joanes Mayorga dohatsua, jesuista eta martira.
(Donibane - Garacin sorthua, 1531^{an.})

HAMABIGARREN CAPITULUA

Jaincoaren zortcigarren Manamendua.

✠ G. *Cer debeatcen daucu Jaincoac zortcigarren manamenduaz* : Lekhucotasunic ez duzu, ez hitz erranen faltzuki?

I. Zortcigarren manamenduaz Jaincoac debeca-

tcen dauzkigu lekhucotasun faltsuac eta gezurrac, calomniac eta medisentciac, jujamendu temerarioac.

G. *Cer da lekhucotasun faltsua?*

I. Hura da, jujen aiticinean lekhuco delaric, gezur erraitea.

✠ G. *Cer da gezur erraitea?*

I. Hura da bere ustearen contra mintzatcea, hala ez dena sinhets-araci nahiz.

✠ G. *Gezurra behinere cilhegi da?*

I. Ez, gezurra ez da behinere cilhegi.

✠ G. *Cer da calomnia?*

I. Calomnia da, lagunaren gain emaita gezurrez huts edo errateco cenbeit.

✠ G. *Cer da medisentcia?*

I. Medisentcia da, lagunaren hutsen edo erratecoen beharic gabe agertcea.

G. *Cer egin behar dute medisentciac edo calomniac hobendun direnec?*

I. Behar dute erreparatu, ahalic hobekiena, lagunaren ohoreari egin dioten caltea.

G. *Cer da jujamendu temerarioa?*

I. Hura da lagunaren gaizki jujatcea, arrazoinic aski gabe.

Suzanaren contra gezurrez mintzaturic bi gizon zahar gaztigatuac. (DAN. XIII.)

Anania eta Zafira gaztigatuac. (Act. v.)

HAMAHIRURGAREN CAPITULUA

Elizaren lehen bi manamenduac.

✠ G. *Cer manatcen daucu Elizaren lehen manamenduac: Phestac begira zatzu manamenduzcoac sainduki?*

I. Elizaren lehen manamenduac manatcen daucu



Jesus jakintsunen erdian.
(Luc - Olivier Merson. Miarrizeco elizan.)

begira detzagun obligacionezco Phestac, igandea bezala.

✠ *G. Cein dire obligacionezco Phestac?*

I. Frantcian badire laur : Eguberri, Jondoni Salvatore, Andre-Dena Maria Agorrilacoa, eta Omia Saindu.

✠ *G. Cer manatcen daucu Elizaren bigarren Manamenduac : Meza Saindua entzun ezazu Phesta, Igandetan debotki?*

I. Elizaren bigarren manamenduac manatcen daucu, Meza Saindua entzun dezagun Igandetan eta obligacionezco Phestetan.

✠ *G. Nola behar da entzun Meza Saindua?*

I. Behar da entzun Meza osoki, atentcionerekin eta debotki.

G. Cein Meza behar da entzun?

I. Hobekienic entzunen da Meza nausia, edo bederen predicuarekin den Meza bat.

HAMALAUARGARREN CAPITULUA

Elizaren hirugarren eta laugarren Manamenduac.

✠ *G. Cer manatcen daucu Elizaren hirugarren manamenduac : Bekhatuac cofesa zatzu urthean behin osoki?*

I. Elizaren hirugarren manamenduac manatcen daucu gure bekhatuen cofesatcea urthean behin bederen.

G. *Nori behar da cofesatu?*

I. Cofesa ditake edo-zoio Apheci, Aphezpicuac cñhetsia bada cofesioetaco.

✠ G. *Cer manatcen daucu Elizaren laurgarren manamenduac : Gorphutz Saindua errecebi zazu Phazcoz bederen humilki?*

I. Elizaren laurgarren manamenduac manatcen daucu comunitatea urthean behin bederen, Phazco denboran.

G. *Non egin behar da Phazcoco comunionea?*

I. Egin behar da herrico elizan, non ez den bertce nonbeit egiteco baimena.

✠ G. *Bekhatu handia da Phazcoric ez egitea?*

I. Bai, Phazcoric ez eginez, huts egiten da eginbide handienetarie bati.

✠ G. *Cer adinetan hasten da cofesatceco eta comunitceco obligacionea?*

I. Obligacione hori hasten da adimenduco adinean, zazpi urtheen inguruan.

✠ G. *Deus bertceric behar da comunionea egin ahal izaiteco, zazpi urthetarat geroz?*

I. Hirur gauza hauc behar dire eta aski dire : lehenbiceric, haurrac izan dezan erlisioneco misterio printcipalen cerbait ezagutza; bigarrenecoric, jakin dezan gorphutz saindua eta arduraco ogia ez direla berdin; hirugarrenecoric, comunia dezan haren adinari doacon debocionearekin.

HAMABORTZGARREN CAPITULUA

Elizaren azken bi Mamamenduac.

✠ G. *Cer manatcen daucu Elizaren bortzgarren manamenduac* : Gartha, bichiliac barur zatzu, Garizuma ere osoki?

I. Elizaren bortzgarren manamenduac manatcen daucu barur egitea Garizuman, Gartha egunetan, eta Phesta bezpera batzuetan.

G. *Cer da barur egitea?*

I. Barur egitea da egunean aphairu bat baicic ez egitea, arratsean colacione arin batekin.

✠ G. *Cein dire barur egin behar dutenac?*

I. Hogoi eta bat urthe betheac dituzten Fededun guciac, salbu zaharrac, eriac, eta lan sobera onhagarrietan ari direnac.

✠ G. *Gicena sori da barur egunetan?*

I. Ez; barur egunac mehe egun dire gucientzat, non ez duen Elizac dispentsa emaiten.

✠ G. *Cer debeatcen daucu Elizaren seigarren manamenduac* : Ortciralean janen ez duzu, ez larunbatean haragi?

I. Debeatcen daucu ortcirale larunbatetan haragirik jatea, beharrie edo permissioneric gabe.

✠ G. *Cer adinetan hasi behar da mehe egiten?*

I. Zazpi urthe bethe-eta.

G. *Certaco manatcen daucu Elizac barura eta mehea?*

I. Gure laguntceco penitencia egiten eta gure jaidura gaichtoen zaphatcen.

Ninibetarren barura. (JOAN. IV.)

Eleazaren martirioa. (II MACH. VI, 18 et seq.)

Jesu-Christo gure Jaunaren barura. (MATTH. IV.)

HAMASEIGARREN CAPITULUA

Bekhatua.

G. *Cer egiten du manamenduac begiratcen ez dituenac?*

I. Jaincoa ofentsatcen du eta bekhatu egiten.

✠ G. *Cer da bekhatua?*

I. Bekhatua da Jaincoaren Legeari desobeditcea.

G. *Cenbat bekhatu suerte dire?*

I. Badire bi suerte : Bekhatu orisinala eta Bekhatu actuala.

✠ G. *Cer da Bekhatu orisinala?*

I. Bekhatu orisinala da sortcean gurekin ekhartcen duguna, Adam gure lehen aitaren bekhatuaren ondorioz.

✠ G. *Cer da bekhatu actuala?*

I. Bekhatu actuala da guhaurec egiten duguna.

G. *Cenbat bekhatu actual suerte dire?*

I. Badire bi suerte : bekhatu mortala eta bekhatu beniala.

✠ G. *Cer da bekhatu mortala?*

I. Bekhatu mortala da Jaincoaren Legeari deso-

beditcea gauza handian, ezagutza eta nahi osoarekin.

✠ G. *Cer egiten daucu bekhatu mortalac?*

I. Bekhatu mortalac heriotcea emaiten dio gure arimari, eta ifernua mereciten daucu.

G. *Nola bekhatu mortalac emaiten dio heriotcea gure arimari?*

I. Gal-araciz gracia habituala, hura baita gure arimaren bici izpirituala.

✠ G. *Behar da hanitz bekhatu mortal ifernua-
ren merecitzeo?*

I. Ez, aski da bat.

✠ G. *Cer da bekhatu beniala?*

I. Bekhatu beniala da Jaincoaren Legeari desobeditcea gauza ttipian, edo oraino gauza handian, bainan ezagutza edo nahi osoa gabe.

G. *Cer egiten daucu bekhatu benialac?*

I. Bekhatu benialac hozten du gu baithan Jaincoaren amodioa, eta mereciten daizcu denbora bateco pena batzu, mundu huntan edo bertcean pairatu beharco direnac.

*Uhaldea, bekhatuaren gaztigua. (GEN. VI et VII.)
Lothen emaztea bekhatu benialaren gatic gaztigatua.
(GEN. XIX, 26.)
Orobat Moisen arreba. (NUM. XII.)*

HAMAZAZPIGARREN CAPITULUA

Bekhatu capitalac.

G. *Cer dire Bekhatu capitalac?*

I. Hec dire bekhatu batzu bertce hainitcen ithurburu direnac.

✠ *G. Cenbat behatu Capital dire?*

I. Badire zazpi : Urgulua, Abaricioa, Lohikeria, Jelosia, Gormandiza, Colera eta Alferkeria.

G. Cer da Urgulua?

I. Urgulua da bere buruaren sobera estimatcea, bertceac baino gehiago dela uste izanez, eta hec baino gorago nahiz altchatu.

G. Cer da Abaricioa?

I. Abaricioa da lureco ontasuneri, eta bereciki diruari, sobera atchikitcea.

G. Cer da Lohikeria?

I. Lohikeria da garbitasunaren contraco atseginen maitatcea.

G. Cer da Jelosia?

I. Jelosia da bertceren onaz tristatcea, eta bertcen calteaz atsegin hartcea.



Morlaaseco Bernat dohatsua, dominicanua, Gorphutz Sainduaren apostolua.

(Baionaco eliza-nausian.)

G. *Cer da Gormandiza?*

I. Gormandiza da jan-edanac sobera maithatcea.

G. *Cer da Colera?*

I. Colera da calte egin daucutenen, edo maite ez ditugunen contra gaizki jazartcea.

G. *Cer da Alferkeria?*

I. Alferkeria da descantsua sobera maitez bere eginbideen bethetceco lazo izaitea.

G. *Bekhatu Capitalac bethi mortalac dire?*

I. Ez, ez dire bethi mortalac, ceren batzuetan gauza ttipia baita, eta nahia ere ez baita bethi osoa.

Amanen urgulua. (ESTH. III, V, VI, VII.)

Achanen abaricioa (JOS. VII) *eta Judasena.* (MATTH. XXVI, 14, 15, 16.)


Josepen anaiac bekhaizti. (GEN. XXXVII.)

Izraeldarren gormandiza. (NUM. XI.)

Esau hasarre Jacoben contra. (GEN. XXVII, 41 et seq.)

Birjina zoroen alegia. (MATTH. XXV.)





Berthute teologalac eta erlisionearen berthutea.

HEMEZORTCIGARREN CAPITULUA

Giristino berthuteac eta bereciki Berthute teologalac.

G. Nola begiratcen dire manamenduac?

I. Manamenduac begiratcen dire giristino berthuteac obratuz.

G. Cer da giristino berthutea?

I. Giristino berthutea da arimaco errechtasun bat, naturalezaz goragocoa, cerucotzat on diren obren egiterat ekhartcen gaituena.

G. Certaco diozu Giristino Berthutea dela errechtasun bat naturalezaz goragocoa?

I. Ceren Jaincoac emaiten baitu gure baithan bere graciaz.

G. *Cenbat Giristino Berthute suerte dire?*

I. Badire bi suerte : Berthute teologalac eta Berthute moralac.

✠ G. *Cer dire Berthute teologalac?*

I. Berthute teologalac dire Jaincoari berari chuchen behatcen direnac.

G. *Cenbat Berthute teologal dire?*

I. Badire hirur : Fedea, Esperantza eta Caritatea.

✠ G. *Cer da Fedea?*

I. Fedea da naturalezaz goragoco berthute bat, sinhets-arazten daizcuna Jaincoac bere Elizaren bidez guri eracatsi guciac.

✠ G. *Cer da Esperantza?*

I. Esperantza da naturalezaz goragoco berthute bat, iguricarazten daizcuna Jaincoaren ganic, confidentcia oso batekin, bethiereco bicitcea eta hartarat heltceco gracia.

✠ G. *Cer da Caritatea?*

I. Caritatea da naturalezaz goragoco berthute bat, Jaincoa maitharazten daucuna, oroz gainetic eta bere gatic; bai eta protsimo laguna, gure burua bezala, Jaincoaren gatic.



Santa Kiteria, birjina eta martira, bere giristino berthuten gatic hanitz aiphatua.

HEMERETCIGARREN CAPITULUA

Berthute moralac.

G. Cer dire Berthute moralac?

I. Hec dire berthute batzu, chuchen bethe-arazten daizcutenac guhauren edo lagunaren alderat ditugun eginbideac.

G. Cein dire Berthute moral horiec?

I. Berecienac laur dire : Zuhurtcia, Zucentasuna, Indarra eta Tenperantcia.

G. Cer da giristino Zuhurtcia?

I. Hura da naturalezaz goragoco berthute bat, ezagutarazten eta hautarazten daizcuna Jaincoaren ganat heltceco bideric hoberenac.

G. Cer da giristino Zucentasuna?

I. Hura da naturalezaz goragoco berthute bat, bihurrazten daucuna baxhotchari zor zaiona.

G. Cer da giristino Indarra?

I. Hura da naturalezaz goragoco berthute bat, garhaitarazten daizcuna gure eginbideen bethetce-
tic gibelatcen gaituzten traba guciac.

G. Cer da giristino Tenperantcia?

I. Hura da naturalezaz goragoco berthute bat, urruntcen gaituena atsegin debecatuetaric, eta neurritz gozarazten haizu direnez.

HOGOIGARREN CAPITULUA

Giristino Perfeccionea eta Ebanjelioco Contseiluac.

G. Cer da giristino perfeccionea?

I. Hura da gure nahiaren orotan eta osoki Jaincoaren nahiarekin bat egitea.

G. Giristino guciac bilhatu behar dute perfet izaitea?

I. Bai, Jesu-Christoc manatcen diote bere Ebanjelioan, dioelarik : Izan zaitezte perfet, zuen Aita cerucoa perfet den bezala.

G. Cein da perfeccionerat heltceco bideric laburrena eta chuchenena?

I. Hura da Ebanjelioco contseiluen segitcea.



Joana d'Arc dohatsua.
(F. d'Epimay.)

G. *Cein dire Ebanjelioco contseiluac?*

I. Badire hirur : bere nahizco pobrecia, garbitasun perfeta eta obedientcia osoa.

G. *Certaco hirur berthute horiec deitcen dire Ebanjelioco contseiluac?*

I. Ceren Jesu-Christoc, bere Ebanjelioan, gomendatcen baitaizcu, bainan ez manatcen.

G. *Ebanjelioco contseiluac bereciki segituac diren estaturic ba othe da?*

I. Bai, Comentuetan bici direnen estatua.

G. *Jaincoac gracia handia egiten othe diote estatu hortarat deitcen ditueneri?*

I. Bai, gracia handia egiten diote, eta burhasoec, ezagutcen dutenean beren haurretan holaco bocacionea, lagundu behar dute.

G. *Munduan bici direnec ere segi detzazkete Ebanjelioco contseiluac?*

I. Bai, guti edo aski, bakhotchac bere estatua-
ren arabera.

Jesu-Christoc eracasten dio gizon gazte bati Perfeccionaren bidea. (MATTH. XIX, 16 et seq.; MARC. X, 17 et seq.)





Jondoni Bichintcho Paulecoa.



San Leoneco ithurri miraculuzcoa, Baionan.

HIRURGARREN PHARTEA
SINHESTECO ETA OBRATCECO JAINCOAC
EMAITEN DAIZCUN LAGUNTZAC

LEHEN CAPITULUA

Gracia.

✠ *G. Mereci dezakegu Cerua guhauren indarrez?*

I. Ez; badugu Jaincoaren graciaren beharra.

✠ *G. Cer da gracia?*

I. Gracia da naturalezaz goragoco dohain bat,

Jaincoac emaiten daucuna Jesu-Christoren mereci-
menduen gatic, gu salbatce n laguntceco.

✠ G. *Cenbat gracia suer^te dire?*

I. Badire bi gracia suerte : gracia habituala edo
Saindu egiten gaituena, eta gracia actuala.

✠ G. *Cer da gracia habituala edo saindu egiten
gaituena?*

I. Hura da gracia bat gure ariman dagona, eta
egiten gaituena justu, Jaincoaren adiskide eta ceru-
cotzat gai.

✠ G. *Nola deitzen da gracia habituala duen
arimaren estatua?*

I. Deitzen da graciazco estatua.

✠ G. *Gal ditake gracia habituala?*

I. Bai, galtcen da bekhatu mortalaz.

✠ G. *Cer da gracia actuala?*

I. Gracia actuala da Jaincoac mementoan emai-
ten daucun laguntza bat, gure arima argitcen eta
azcartcen duena, ongiaren egiteco eta gaizkitic begi-
ratceco.

G. *Gracia actuala gauza beharra da?*

I. Gracia actuala hain gauza beharra da, non,
hura gabe, ez baitezakegu deus egin cerucotzat on
denic, ez eta ere luzaz atchic gracia habituala gure
baithan.

G. *Jaincoac emaiten diozca gizonari salbatceco
behar dituen gracia?*

I. Bai, Jaincoac emaiten diozca gizonari salba-
tceco behar dituen gracia, edo bederen heien
ardiesteco errechtasunac.

✠ G. *Nola ardiesten dugu gracia?*

I. Ardiesten dugu gracia othoitzaz eta Sacra-
menduez.

BIGARREN CAPITULUA

Othoitza.

✠ *G. Cer da Othoitza ?*

I. Othoitza da Jaincoaren ganaco bihotz-altchaltce bat, haren ohoratceco eta hari bere graciaen galdatceco.

✠ *G. Othoitza gauza beharra da ?*

I. Bai, othoitza gauza beharra da: lehenbiceric, ceren gizonac ohore hori zor baitio bere Crea-tzaileari; bigarrenecoric, ceren bethi baitugu Jaincoaren laguntzaren beharra; hirugarrenecoric, ceren Jaincoac berac manatcen baiteraucu.

G. Ongi da beraz maiz othoitz egitea ?

I. Bai, eta bereciki goiz-arratsetan, igande eta phesta egunetan, eta tentatuac garenean.

✠ *G. Cer behar da galdegin othoitcean ?*

I. Galdegin behar dire Jaincoaren loriari, guhauraren edo lagunaren salbamenduari doazconac.

G. Haizu da, lur huntaco gaucen Jaincoari galdatcea ?

I. Bai haizu da, chede onetan egiten delaric, eta Jaincoaren nahiari gaudelaric.

G. Jaincoac entzuten ditu bethi gure othoitzac ?

I. Bai, Jaincoac entzuten ditu bethi othoitz ongi eginac, bainan entzuten ditu gure salbamen-ducotzat hobekien den bezala.

✠ *G. Nola behar dugu othoitz egin ?*

I. Othoitz egin behar dugu atentcionerekin,

humiltasunekin, confidentciarekin eta iraupenekin.

✠ *G. Noren icenean behar da othoitz egin?*

I. Jesu-Christoren icenean.

G. Certaco behar da othoitz egin Jesu-Christoren icenean?

I. Huna certaco : lehenbicoric, ceren gracia ez baitzaucu emana Jesu-Christoren merecimendueri esker baicic; bigarrenecoric, ceren Jesu-Christoc hitceman baitaucu, haren Aitari haren icenean galdatu guciac izanen ditugula.

✠ *G. On da elgarrekin othoitz egitea?*

I. Bai, arras on da elgarrekin othoitz egitea; ecen Jesu-Christoc erran du : Non ere bi edo hirur baitire ene icenean bilduac, ni han naiz heien erdian.

Moise othoitcean, Izraeldarrac Amalecitarren contra guduari ari cirelaric. (EXOD. XVII, 8 et seq.)

Jesu-Christo mintzo da othoitzaz. (MATTH. VII, 7 et seq.; XVIII, 20; XXI, 21 et seq.; XXVI, 41.)

HIRÜRGARREN CAPITULUA

Jaunaren Othoitza.

✠ *G. Cein da Jaincoari egin dezokegun Othoitcic hoberena?*

I. Hura da Pater edo Gure Aita, deitzen dena Jaunaren Othoitza.

G. Certaco deitzen da Jaunaren Othoitza?

I. Ceren Jesu-Christo gure Jaunac eracatsia baiteraucu.

✠ *G. Errazu Gure Aita.*

I. Gure Aita, ceruetan zarena, erabil bedi sainduki zure icena; ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure borondatea, ceruan bezala lurrean ere; iguzu egun gure eguneco ogia; barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatcen dioztegun bezala; eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortcera; bainan begira gaitzatzu gaitcetic. Halabiz.

✠ *G. Errazu latinez.*

I. Pater noster, qui es in Cælis, sanctificetur Nomen tuum; adveniat regnum tuum; fiat voluntas tua, sicut in Cælo et in terra; panem nostrum quotidianum da nobis hodie; et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris; et ne nos inducas in tentationem; sed libera nos a malo. Amen.

Jesu-Christoc eracasten diote dicipulneri othoitz egiten.
(MATTH. VI, 9 et seq.; LUC. XI, 1 et seq.)

LAURGARREN CAPITULUA

Sainduen eta bereciki Birjina Sainduaren othoiztea.

✠ *G. Haizu da Sainduen othoiztea?*

I. Bai, haizu eta arras on da Sainduen othoiztea.

G. Sainduac othoizten ditugu Jaincoa othoizten dugun bezala?

I. Ez, diferentcia handi bat emaiten dugu.



Sarrantceco Ama Birjina, othoitz egizu guretzat.

G. Cer diferentcia?

I. Jaincoa othoizten dugu eman ditzagun behar ditugunac, eta Sainduac othoizten ditugu ardiets ditzaguten Jaincoaren ganic.

✠ *G. Sainduetaric nor behar dugu bereciki othoiztu?*

I. Othoiztu behar dugu bereciki Maria Birjina Saindua, ceren den Jaincoaren Ama eta gure Ama.

✠ *G. Cein da Birjina Sainduari egin dezokegun othoitcie hoberena?*

I. Hura da *Ave Maria* edo *Agur Maria*, deitzen dena Aingeruaren Agurra.

✠ *G. Errazu Agur Maria.*

I. Agur, Maria, graciaz bethea, Jauna da zurekin, benedicatua zare emazte gucien artean, eta benedicatua da zure sabeleco fruitua, Jesus.

Maria Saindua, Jaincoaren Ama, egizu othoitz gu bekhatoreentzat, orai eta gure heriotceco orenean. Halabiz.

G. Errazu latinez.

I. Ave, Maria, gratia plena, Dominus tecum, benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.

Sancta Maria, Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus, nunc et in hora mortis nostræ. Amen.

G. Certaco deitzen da othoitz hori Aingeruaren Agurra?

I. Ceren lehenbicico hitz horiekin Gabriel Aingeruac agur egin baitcion Mariari, eman cionean berria Jaincoaren Ama izanen cela.

G. Cenbat pharte ditu Agur Mariac?

I. Hirur : 1º Aingeruaren hitzac; 2º Santa Elisabethen hitzac; 3º Elizac ondotic ezarri dituenac.

G. Cein dire Aingeruaren hitzac?

I. Agur, graciaz bethea, Jauna da zurekin, benedicatua zare emazte gucien artean.

G. Cein dire Santa Elisabethen hitzac?

I. Benedicatua zare emazte gucien artean, eta benedicatua da zure sabeleco fruitua.

G. Nola bereciki frogatcen diogu gure debocionea Ama Birjinari?

I. Huna nola : haren phestac khartsuki iraganez ; abitu saindua ibiliz ; Anjelusac eta Arro sorioa erranez.

Aingeruec eta Sainduec hel-arasten diozcate Jaincoari gure othoitzac. (Tob. xii, 12 ; Apoc. v, 8.)

Anontciacionea eta Bisitacionea. (Luc. i.)





Lazaren Phiztea.

(Bonnat, Baionan.)

BORTZGARREN CAPITULUA

Sacramenduac.

✠ G. *Cer da Sacramendua?*

I. Sacramendua da seinale sacratu bat, Jesu-Christoc ezarria guri graciaren emaiteco.

G. *Certaco diozu Sacramendua seinale bat dela?*

I. Ceren Sacramenduec agerian seinalatzen baitute emaiten daucuten eta berenaz ageri ez den gracia.

✠ G. *Cenbat Sacramendu dire?*

I. Badire zazpi : Bathaioa, Confirmacionea, Gorphutz-Saindua, Penitentcia, Anontcioa, Ordena eta Ezcontza.

G. *Diferentciaric egin behar da Sacramenduen artean?*

I. Bai badire Sacramendu batzu deitzen direnac hilen Sacramenduac, et bertce batzu deitzen direnac bicien Sacramenduac.

G. *Cein dire hilen Sacramenduac?*

I. Badire biga : Bathaioa eta Penitentcia.

G. *Certaco deitzen ditutzu bi Sacramendu horiec hilen Sacramenduac?*

I. Ceren ezarriac baitire, bekhatuaz hilac direneri graciazco biciaren emaiteco.

G. *Certaco deitzen ditutzu bertceac bicien Sacramenduac?*

I. Ceren heien ongi errecebitceco behar baita Gracia habituala, hura baita gure arimaren bici izpirituala.

G. *Cer gracia emaiten dute beraz bicien Sacramenduec?*

I. Bicien Sacramenduec emendatcen dute jadan ariman cen gracia habituala, eta emaiten gracia bereci batzu, Sacramendu bakhotchari doazconac.

✠ G. *Aski da Sacramenduen errecebitcea gracia ren izaiteco?*

I. Ez, behar dire ekharri nesesario diren disposicioneac.

G. *Bekhatu handia da Sacramendu baten gaizki errecebitcea?*

I. Bai, sacrileio handi bat da.

✠ G. *Badire Sacramendu batzu behin baicic errecebi ez ditazkenac?*

I. Bai, badire hirur : Bathaioa, Confirmacionea eta Ordena.

G. *Certaco ez ditazke hirur Sacramendu horiec, behin baicic errecebi?*

I. Ceren ezartcen baitute ariman marca bat ecin khendua.

G. *Nola deitcen da marca hura?*

I. Deitcen da Sacramenduaren caractera.

SEIGARREN CAPITULUA

Bathaioa.

✠ G. *Cer da Bathaioa?*

I. Bathaioa da Sacramendu bat, bekhatu orisinaletic garbitcen gaituena, eta egiten Jaincoaren eta Elizaren haur.

G. *Bathaioac nola egiten du hori?*

I. Gure baithan ezarriz gracia habituala eta Giristino marca.

G. *Bathaioac ez du khentcen bekhatu orisinala baicic?*


I. Ezagutza ethorritz geroz errecebitcen denean, barkhatcen ditu oraino bertce bekhatuac oro, bai eta ere bekhatu heieri darraizcoten pena guciac.

✠ G. *Bathaioa gauza beharra da salbatceco?*

I. Bathaioa da Sacramendu gucietaric beharrena; hain beharra non bathaiatu gabe hiltcen diren haurrac berac ez baititazke Cerurat joan.

G. *Hanitz hobendun dire beraz burhasoac, lazo balinbadire haurren bathaiarazteco?*

I. Bai, bekhatu mortala egiten dute, uzten badituzte haurrac, Bathaioric gabe hiltceco hirris-



Jesu-Christo gure Jaunaren Bathaioa.

(Baionaco eliza-nausian.)

cuan, edo heien bathaiaraztea sobera luzatcen badute.

G. *Bathaia ez ditekenean, ez othe ditake izan deus Bathaioaren orde?*

I. Bai, Bathaioaren orde izan ditake haurrentzat martirioa; hori deitzen baita odolezco bathaioa.

G. *Eta ezagutzarat helduac direnentzat?*

I. Ezagutzarat helduac direnentzat ere orobat martirioa; eta oraino Caritatezco edo Contricione perfetezco acta bat, bathaiatua izaiteco nahiarekin; hori deitzen da nahicundezco bathaioa.

✠ G. *Norc eman dezake Bathaioa?*

I. Apheza da Bathaioaren ministro arduracoa; bainan behar-orduan nor-nahic bathaia dezake eta behar du bathaiatu.

✠ G. *Cer egin behar da ongi bathaiatceco?*

I. Ur naturala behar da ichuri bathaiatu nahi denaren buruaren gainerat, denbora berean ura ichurtcen duenac berac erraiten duelaric: *Bathaia-tcen haut Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean.*

G. *Cer behar du adimenduzco adinerat geroz Bathaioa errecebitcen duenac?*

I. Behar ditu bi gauza: fedea eta bere bekhatuen urrikia.

*Itsaso gorriaren iragaitea Bathaioaren itchura. (EXOD. XIV.)
Ethiopiaco erreginaren aspico aiteindariaren bathaioa.
(ACT. VIII, 26.)*

ZAZPIGARREN CAPITULUA

Bathaioco Agintzac.

G. Cer hitcemaiten du Bathaioa errecebitcen duenac?

I. Hitcemaiten du Jesu-Christo baithan sinhes-tea eta haren Legeari jarraikitcea.

G. Ceri ukho egiten du?

I. Ukho egiten du debruari, haren ponperi eta haren obreri.

G. Cer dire debruaren ponpac?

I. Debruaren ponpac dire munduaren atsegin galgarriac eta arinkeria guciac.

G. Cer dire debruaren obrac?

I. Debruaren obrac dire bekhatu mota guciac.

G. Haurrec nola hitceman dezakete Bathaioan?

I. Aitabitchi amabitchiec hitcemaiten dute heientzat.

G. Cein dire aitabitchi amabitchien eginbideac?

I. Behar dute, burhasoen escasean, artha hartu Bathaioan atchiki dituztenen giristinoki altchatceaz eta heien salbamenduaz.


G. *Har ditake nor-nahi aitabitchi amabitchizat ?*

I. Ez, ez ditazke har : 1^o centzuric ez dutenac ;
2^o catolico ez direnac ; 3^o bicitce tzarra agerian
deramatenac.



Bathaio - harriac.

(Sedzen, hamabigarren mendecoac.)



Confirmacionea.

ZORTCIGARREN CAPITULUA

Confirmacionea.

✠ G. *Cer da Confirmacionea?*

I. Confirmacionea da Sacramendu bat emaiten daucuna Izpiritu Saindua, eta egiten gaituena giristino perfet.

G. *Cer erran nahi da Confirmacioneac Izpiritu Saindua emaiten daucula?*

I. Erran nahi da Izpiritu Saindua ethortcen dela confirmatuac direnen ariman molde bereci batean egoiterat, eta bethecten dituela bere dohainez.

G. *Cenbat dire Izpiritu Sainduaren dohainac?*

I. Badire zazpi : Zuhurtcia, Adimendua, Con-

tseilua, Indarra, Jakitatea, Debocionea eta Jaincoaren Beldurtasuna.

G. Confirmacioneac nola egiten gaitu giristino perfet?

I. Bathaioco gracia gure baithan azcartuz, eta guri emanaz indarra Jesu-Christoren fedearen aithortceco goraki, biciaren beraren hirriscuan.

G. Confirmacioneco Sacramendua baitezpada necesario da salbatceco?

I. Ez; bainan lazakeriaz utz lezakena errecebitu gabe, gracia handiaz gabetua litake.

✠ *G. Nore emaiten du Confirmacioneco Sacramendua?*

I. Aphezpicua da Sacramendu horren ministro arduracoa.

✠ *G. Cer egin behar da Confirmacionearen ongi errecebitceco?*

I. Behar da : 1º graciazco estatuan izan ; 2º erlisioneco egia berecienac jakin.

Apostoluac cenaclean Ispiritu Sainduaren aiduru. (Act. 1, 11.)

Jondoni Petri eta Jondoni Joani ez dire icitcen Mendecoste egunean. (Act. 14.)

BEDERATCIGARREN CAPITULUA

Confirmacioneco Ceremoniae.

G. Nola emaiten du Aphezpicuac Confirmacioneco Sacramendua?

I. Lehenbicoric, escuac hedatcen ditu confirmatu behar direnen gainerat, heien ganat deitzen duelaric Ispiritu Saindua; bigarrenecoric, egiten

diò bakhotchari copetan gurutce bat Crisma sainduarekin; hirugarrenecorie, emaiten dio zarta ttipi bat, diolaric: *Bakea dela zurekin.*

G. Cer da Crisma saindua?

I. Crisma saindua da olio naturala, balsamoarekin nahasia, Aphezpicuac ortcegun sainduz consecratua.

G. Cer seinalatcen du olioac Confirmacionean?

I. Olioac, berenaz hedacor baita eta indar-emaile, seinalatcen ditu Izpiritu Sainduaren graciaren nasaidura eta indarra.

G. Cer seinalatcen du olioarekin nahasia den balsamoac?

I. Balsamoac, bere usain onaz, seinalatcen du Confirmatuac protsimo lagunari zor dion etsenplu ona.

G. Certaco egiten du Aphezpicuac copetan gurutcea Crisma sainduarekin?

I. Eracusteco behar dugula giristino agertu goraki eta beldurric gabe.

G. Certaco emaiten dio Aphezpicuac zarta ttipi bat confirmatu duenari?

I. Hari eracasteco behar dituela jasan laido guciac Jesu-Christoren gatic.

Jondoni Petric eta Jondoni Joanic escuac hedatcen dituzte Samariaco fededunen gainerat. (Act. viii, 14 et seq.)

HAMARGARREN CAPITULUA

Gorphutz-Saindua.

✠ *G. Cer da Gorphutz-Saindua?*

I. Gorphutz-Saindua da Sacramendu bat Jesu-Christo gure Jaunaren gorphutza, odola, arima eta

jaincotasuna dauzcana, ogiaren eta arnoaren idurien edo itchuren azpian.

✠ G. *Noiz establitu du Jesusec Gorphutz-Sainduco Sacramendua?*

I. Ortcegun sainduz, hiltceco bezperan, bere Apostoluekin egin zuen azken aphauruan.

✠ G. *Erraguzu nola Jesusec establitu zuen Gorphutz-Saindua?*

I. Jesusec hartu zuen ogia, benedicatu, hautsi eta eman bere Apostolueri, ciolaric : *Har eta jan zazue*, HAU DA ENE GORPHUTZA. Gero hartu zuen arnoa zaucan calitza, benedicatu eta escaini bere Apostolueri, ciolaric : *Har eta edan zazue*, HAU DA ENE ODOLA.

✠ G. *Cer egin zuen Jesu-Christoc hitz horiez : Hau da ene gorphutza, hau da ene odola?*

I. Erranez : *Hau da ene gorphutza, hau da ene odola*, Jesu-Christoc khanbiatu zuen ogia bere gorphutcerat eta arnoa bere odolerat.

G. *Eta cer egin zuen Jesu-Christoc erranez bere Apostolueri : Egin zazue hori ene orhoitzapenetan?*

I. Hitz horiec erranez, Jesusec eman cioten bere Apostolueri eta apheztasunean heien ondoco behar cireneri, botherea khanbiatceco ogia haren gorphutcerat eta arnoa haren odolerat.

✠ G. *Noiz obratcen da gure aldaretan ogiaren khanbiatcea Jesu-Christoren gorphutcerat eta arnoaren khanbiatcea haren odolerat?*

I. Meza artean, aphezac Contsecracioneco hitzac akhabatcearekin.

G. *Cein dire Contsecracioneco hitzac?*

I. Hec dire Jesu-Christoren hitz berac. Aphezac erraiten du ostiaren gainean : HAU DA ENE GOR-



Jesusec establiten du Gorphutz-Sainduco Sacramendua,
(Gust. Doré.)

PHUTZA; eta arnoa daucan calitzaren gainean : HAU DA ENE ODOLA.

✠ G. *Ez da deus gelditcen ogitic eta arnotic Contsecracione ondoan?*

I. Ez da gelditcen iduriac edo itchurac baicic, hala nola moldea, colorea, usaina eta gostua.

✠ G. *Ez da Jesu-Christoren gorphutza baicic ogiaren itchuraren azpian, eta haren odola baicic arnoaren itchuraren azpian?*

I. Jesu-Christo, den gucia aurkhitcen da itchura bakhotcharen azpian.

✠ G. *Ostia contsecratua hausten denean, Jesu-Christo hausten da?*

I. Ez, Jesu-Christo oso-osea da ostia hautsiaren pusca bakhotcharen azpian.

✠ G. *Jesu-Christoc uzten du Cerua Gorphutz-Saindurat ethortceco?*

I. Ez, denbora berean Jesu-Christo Ceruan da eta Gorphutz-Sainduco Sacramenduan.

✠ G. *Adoratu behar da Jesu-Christo Gorphutz-Sainduan?*

I. Bai, dudaric gabe, Jesu-Christo Jainco denaz geroz, aurkhitcen den toki gucietan.

G. *Certaco establitu du Jesu-Christoc Sacramendu hori?*

I. Bere Aita Jaincoari ofreitua izaiteco Mezaco Sacrificio sainduan, eta gure arimen hazcurri izaiteco Comunione sainduan.

Mana, Gorphutz-Sainduaren itchura. (EXOD. XVI.)

Gorphutz-Saindua hitce mana. (JOAN. VI.)

Jesu-Christoc establiten du Gorphutz-Saindua. (MATTH. XXVI.)



Meza Saindua. Sagara.

HAMECAGARREN CAPITULUA

Mezaco Sacrificio Saindua.

G. Cer da Sacrificioa?

I. Sacrificioa da Jaincoari, haren ohoretan destruitcen den bitima baten escaintcea.

✠ *G. Cer da Mezaco Sacrificioa?*

I. Hura da Jesu-Christoren Gorphutzaren eta Odolaren Sacrificioa, ogiaren eta arnoaren itchuren azpian.

✠ *G. Cer da Mezaco Sacrificioa Gurutceco Sacrificioari buruz?*

I. Mezaco Sacrificioa Gurutceco Sacrificioa bera da, egun guciz gure Aldaretan erreberritcen dena, haren merecimenduen gutarat jauts-arazteco.

G. *Nola da Mezaco Sacrificioa Gurutceco Sacrificioa bera?*

I. Ceren Mezan, Gurutcearen gainean bezala, Jesu-Christo baita, denbora berean, Bitima eta Ofreitzale.

G. *Ez du aphezac ofreitcen Mezaco Sacrificioa?*

I. Bai, bainan ofreitcen du Jesu-Christoren ordain bezala eta haren icenean.

G. *Ez othe da bada diferentciaric batere bi sacrificio horien artean?*

I. Bada diferentcia ofreitceco moldean: Gurutcearen gainean Jesu-Christoc bere burua ofreitu du guretzat hilez; Mezan ez da hiltcen, bainan Gurutcearen gainean pairatu heriotcea du ofreitcen.

✠ G. *Certaco ofreitcen da Mezaco Sacrificioa?*

I. Laur chedetat: Jaincoaren adoratceco, haren hasarrearen eztitceco, hari eskerren emaitceco, eta hari graciën galdatceco.

✠ G. *Mezaco Sacrificioa ez da ofreitcen bicientzat baicic?*

I. Ofreitcen da oraino Purgatorioan pairatcen duten arimentzat.



Hau da ene gorphutza : hau da ene odola.

HAMABIGARREN CAPITULUA

Comunione Saindua.

✠ G. *Cer da Comunionea?*

I. Hura da Jesu-Christo Gure Jaunaren errecebitcea Gorphutz-Sainduco Sacramenduan.

✠ G. *Bada comunitceco obligacioneric?*

I. Bai, bada comunitceco obligacione handia urthean behin bederen Phazcotan, eta hiltceco lanjerean.

G. *Ontsa da maiz comunitcea?*

I. Bai, hori da Jesu-Christoren nahia, eta Elizac gomendatcen daucu maiz comunitcea eta ahal badugu, egun guciz.

✠ G. *Cer egiten du Comunione on batec gu bailhan?*

I. Laur gauza : lehenbiceric, Jesu-Christore-

kin bat egiten gaitu; bigarrenecoric, hazten eta emendatzen du graciaren bicia; hirugarrenecoric, gure jaidura gaichtoac ezitcen ditu; laugarrenecoric, phizte loriosaren gei egiten gaitu.

G. *Cein dire ongi comunitateco behar diren disposicioneac?*

I. Badire batzu arimacoac, eta bertceac gorputcecoac.

✠ G. *Cein dire arimaco disposicioneac?*

I. Behar da izan graciaco estatuan, jakin Erlisioneco egia berecienac, eta Jesu-Christoren ganat hurbildu amodiorekin, confidentciarekin eta errespeturekin.

✠ G. *Bekhatu handia da comunitatea bekhatu mortal batekin?*

I. Bai, sacrileio ikharagarri bat da.

✠ G. *Cer egin behar du, comunitatu aiticinean, bekhatu mortalaz hobendun dela dakienac?*

I. Behar du cofesatu eta absolucionea errecebitu.

✠ G. *Cein dire gorputceco disposicioneac?*

I. Behar da izan barur, erran nahi baita gauerdiz geroz jan ez edan gabe, eta onheski beztitua.

✠ G. *Ez da behinere haizu barur ez delaric comunitatea?*

I. Haizu da, comunitatzen denean Biatico bezala, erran nahi baita hiltceco lanjerean.

✠ G. *Elizac ez othe du bertce batzuetan ere uzten comunitacerat barur izan gabe?*

I. Bai, luzatzen duten eritasun batzuetan, Elizac haizu uzten du edari cerbeiten hartcea comunitatu aiticinean.

Soldado aiticindariaren fedea eta umiltasuna. (MATTH. VIII.)

Gomitatuac eta ezteietaco arropa. (MATTH. XXII.)



Lehen comunionea.

HAMAHIRURGARREN CAPITULUA

Comuniatceco Moldea.

G. *Nesario da Mezan comuniatcea?*

I. Ez, bainan hola hobe da, ahal denean.

G. *Certaco da hobe Mezan comuniatcea?*

I. Ceren hobeki bat egiten baita Meza emaiten duen aphezarekin.

✠ G. *Cer egin behar da comuniatu aiticinttoan?*

I. Behar da berecikiago gogoan erabili Noren errecebitcerat dohan, eta bere baithan egiazco khartsutasun bat sustatu, eginez, bederen bihotzez, fedezco, adoracionezco, umiltasunezco, contricio-
nezco, esperantzazco, amodiozco eta guticiazco actac.

✠ *G. Cer egin behar da comuniatceracoan?*

I. Behar da Mahain Saindurat errespeturekin hurbildu, belhaunicatu, begiac aphalt, bainan arras hetsi gabe, eta ez ahoz othoitcie egin orduan; bakharric ongi litake erraitea aphaltic, bereterracgora erraiten duenean, *Confiteor* edo *Cofesatcen nitzaio*.

✠ *G. Cer egin behar da Aphezac comuniatcerat emaiten duenean?*

I. Atchiki oihala escuen gainean, cocotsaz beherachago, begiratz errespeturekin Ostia Sainduari, eta ez Aphezari; burua chuchen, ahoa erdi idekia eta mihia azpico ezpainaren gainerat aitcinatutchea.

✠ *G. Cer egin behar da Ostia Saindua errecebitu ondoan?*

I. Aphezac escua gibelatu duenean, ahoa hetsi behar da eta Ostia Saindua iretsi, aphur bat hezatu che den becen laster.

✠ *G. Cer egin behar da comuniatu ondoan?*

I. Elizan egon behar da aphur bat, eskerren emaiten.

G. Cein dire comunione ondoco actac?

I. Berecienac dire: adoracionezco, esker-onezco, ofrimenezco, amodiozco, chede-cinezco eta galdezco actac.

HAMALAURGARREN CAPITULUA

Penitentciaco Sacramendua.

✠ G. *Cer da Penitentciaco Sacramendua?*

I. Hura da Sacramendu bat bathaiatuz geroz egin bekhatuac barkhatcen dituena.

G. *Penitentciaco Sacramenduac ez du bekhatuac barkhatcen baicic?*

I. Bihurtcen ditu oraino osoki bekhatuac gal- araci cituen merecimenduac eta graciaren dohainac.

✠ G. *Noiz errecebitcen da Penitentciaco Sacra- mendua?*

I. Errecebitcen da cofesioan, Aphezac absolucio- nea emaiterekin.

✠ G. *Cer da absolucioea?*

I. Absolucioea da bekhatuen barkhamendua, Aphezac emaiten duena Jesu-Christoren icenean.

G. *Noiz eman diote Jesu-Christoc Apheceri bekhatuen barkhatceco ahala?*

I. Phazco arratsean, bere Apostolueri erran cio- tenean : *Errecebi zazue Izpiritu Saindua; bekha- tuac barkhatuac izanen zaizcote zuec barkhatcen diotzueteneri, eta ez zaizcote barkhatuac izanen zuec barkhatcen ez diotzueteneri.*

G. *Aphez guciec eman dezakete absolucioea?*

I. Ez, behar da hortaco izan Aphezpicuac apro- batua edo onhetsia cofesioentzat.

✠ G. *Penitentciaco Sacramendua gauza beha- rra da salbatceco?*

I. Bai, Penitentciaco Sacramendua gauza beha-

rra da, Bathaioaz geroz bekhatu mortal cerbeit egin duten gucientzat.

G. *Contricione perfetac ez ditu khentcen bekhatuac bere baitharic eta absolucioneric gabe?*

I. Bai, khentcen ditu; bainan hola barkhatua izan den bekhatoreari gelditcen zaio obligacionea bekhatu mortalen cofesatceco, behar den denboran.

✠ G. *Noiz behar da baitezpada cofesatu?*

I. Behar da baitezpada cofesatu: lehenbiceroric, urthean behin; bigarrenecoric, hiltceco lanjerean; hirugarrenecoric, comuniatu aiticinean, bekhatu mortalic balinbada.

✠ G. *Cer egin behar da Penitentciaco Sacramenduaren ongi errecebitceco?*

I. Egin behar dire laur gauza: lehenbiceroric, Contcientcia etsaminatu; bigarrenecoric, bekhatuen urrikia izan; hirugarrenecoric, bekhatuac erran aphez aprobatu bati; laugarrenecoric, izan chedea cofesorac eman penitentciaren egiteco.

HAMABORTZGARREN CAPITULUA

Contcientciaco Etsamina.

✠ G. *Cer da Contcientciaren etsaminatcea?*

I. Hura da egin diren bekhatuen bilhatcea.

G. *Cer artharekin behar da etsaminatu cofesalceratecoan?*

I. Balio duen gauza batentzat hartcen den artha berarekin.

G. *Etsamina escasez cofesio gaichtoa egin ditake?*

I. Bai, artha escasa handia bada eta hirriscatcen badugu bekhatu mortal baten ahanztea.

✠ G. *Cer egin behar da Contcientcia etsaminatu aiticinean?*

I. Behar da Jaincoari galdatu bere bekhatuen ongi ezagutceco gracia.

✠ G. *Ceren gainean behar da etsaminatu?*

I. Jaincoaren eta Elizaren manamenduen, zazpi bekhatu capitalen, eta bere estatuco eginbideen gainean.

G. *Cer da hoberenic etsamina horren errechki egiteco?*

I. Arrats guciez etsaminatcea etzateracoan.

G. *Cer egin behar da Contcientcia etsaminatu ondoan?*

I. Contricionea bere baithan phitz-araci.

HAMASEIGARREN CAPITULUA

Contricionea.

✠ G. *Cer da Contricionea?*

I. Contricionea da Jaincoa ofentsaturicaco urri-
kia, haren gehiago ez ofentsatceco chede cinare-
kin.

✠ G. *Contricionea baitezpada nesesario da?*

I. Bai, contricionea hain da nesesario non, hura gabe, ez baititake behinere izan bekhatuen barkhamenduric.

✠ G. *Cenbat contricione suerte dire?*

I. Badire biga : Contricione perfeta, eta Contricione inperfeta, deitzen dena Atricionea.

✠ G. *Contricionea noiz da perfeta?*

I. Contricionea perfeta da, bere bekhatuez urriki denean Jaincoa maite delacotz, eta Jaincoac bekhatua hastio duelacotz.

✠ G. *Contricionea noiz da inperfeta?*

I. Contricionea inperfeta da, bere bekhatuez urriki denean Jaincoaren eta haren gaztiguen bel-durrez.

✠ G. *Cer indar du Contricione perfetac?*

I. Contricione perfetac khentcen ditu bekhatuac bere baitharic eta absolucionea izan baino lehen.

✠ G. *Contricione inperfetac ere khentcen othe ditu bekhatuac bere baitharic?*

I. Ez, bainan preparatcen gaitu heien barkhamenduaren errecebitcera Penitentciaco Sacramenduan.

✠ G. *Egiazco Contricioneric izan ditake chede cina gabe?*

I. Ez, ez ditake egiazco Contricioneric izan, bekhatutic eta bekhatuzco ocasionetarie urruntceco chede cina gabe.

Madalenaren contricione perfeta. (Luc. vii, 36 et seq.)



Jesu-Christoc kharraiatcen du bere gurutcea.
(Betharrameco calbarioan.)



San Leon Aita Sainduac egortcen du.
(Steinheil. Baionaco eliza-nausian.)

HAMAZAZPIGARREN CAPITULUA

Nolacoa izan behar den Contricionea.

✠ G. *Nolacoa behar du izan Contricione onac?*
I. Contricione onac behar du izan jenerala, soberanoa eta surnaturala.

✠ G. *Cer erran nahi da, Contricionea behar dela izan jenerala?*

I. Erran nahi da, Contricionea hedatu behar dela bederen bekhatu mortal gucietarat.

✠ *G. Cer erran nahi da, Contricionea behar dela izan soberanoa?*

I. Erran nahi da, behar dela bekhatua hastiatu gaitz gucietaric handiena bezala.

✠ *G. Cer erran nahi da, Contricionea behar dela izan surnaturala?*

I. Erran nahi da : lehenbicitoric, Contricione onic ez dezakegula izan graciaren laguntza gabe ; bigarrenecoric, bekhatuez behar garela urrikitu, ez mundu huntaco arrazoinen gatic, bainan bai fedezco arrazoinac gogoan erabiliz.

G. Cein dire fedezco arrazoin hec?

I. Printcipalac dire : lehenbicitoric, ofentsatu dugun Jaincoa neurriric gabe ona dela ; bigarrenecoric, bekhatuaren gatic pairatu duela Jesu-Christoc bere Pasionea ; hirugarrenecoric, bekhatuac gal-arazten daucula cerua ; laugarrenecoric, bekhatuac mereciten daucula ifernua.

Antiocusen alegiazco contricionea. (II MACH. X.)

Haur prodigoa. (LUC. XV, 11 et seq.)



San Leon predicatcen ari.
(Steinheil. Baionaco eliza - nausian.)

HEMEZORTCIGARREN CAPITULUA

Cofesioa.

✠ G. *Cer da Cofesioa?*

I. Cofesioa da bere bekhatuen erraitea Apez aprobatu bati, haren ganic absolucionearen ardies-teco.

✠ G. *Cofesatu behar dire bekhatu guciac?*

I. Cofesatu behar dire bederen bekhatu mortal guciac.

✠ G. *Erran behar da cenbat aldiz egin den bekhatu mortal bakhotcha?*

I. Bai, orhoitcen ahal den becenbat.

G. *Eta bekhatuen chehetasunac, behar dire erran?*

I. Erran behar dire bederen bekhatu batetarie bertce bat egiten duten chehetasunac.

G. *Errazu nola chehetasun batec egiten duen bekhatu batetarie bertce bat?*

I. Elizaren ontasun cerbeit ebastea ez da bakharric ohointza bat, bainan oraino sacrileio bat da.

✠ G. *Bekhatu mortal bat bere nahiz gorde lezakencac ardiets lezake bertce bekhatuen barkhamendua?*

I. Ez; bainan, absolucionea hola errecebituz, bertce bekhatuen gainerat sacrileio bat egin lezake.

✠ G. *Cofesio gaichto bat egin denean, cer da egiteco?*

I. Cofesio hura behar da berriz egin, eta bereciki aithortu egin den sacrileioa.

✠ G. *Cer egin behar da, bekhatu mortal bat ustegabetan ahantci balinbada cofesioan?*

I. Behar da erran ondoco cofesioan.

✠ G. *Behar dire bekhatu benialac ere cofesatu?*

I. Ez, bainan arras on da.

Dabidec aithorteen dio Nathani bere bekhatua. (II REG. XII.)

Juduec aithorteen diozcate Jondoni Joaniri heren bekhatuac. (MATTH. III, 6.)

Efesaco fededunen cofesioa. (ACT. XIX, 18.)





San Leonen othoitzac eror-arazten
du Mars jainco faltsua.

(Steinheil. Baionaco eliza-nausian.)

HEMERETCIGARREN CAPITULUA

Cofesatecco Moldea.

✠ G. *Nola behar da Cofesatu?*

I. Behar da : lehenbiceroric, belhaunicatu, ceinatu eta erran : *Aita, benedica nezazu, ceren egin baitut bekhatu*; bigarrenecoric, erran *Cofesatcen nitzaio* hitz hautaraino : *ene fallaz*; hirugarrene-coric, erran bere bekhatuac eta ihardetsi garbiki Cofesoraren galderi.

✠ G. *Nola behar da akhabatu bere bekhatuen declaracionea?*

I. Akhaba ditake erranez : *Acusatcen naiz oraino orhoit ez naicen bekhatu guciez eta bici iraganecoez ; barkhamendu escatcen diot Jaincoari, eta zuri, ene Aita, penitencia eta absolucione, zure ustez mereci balinbadut?*

✠ G. *Cer egin behar da bekhatuac erran ondoan?*


I. Behar da akhabatu *Cofesatcen nitzaio* erranez : *ene faltaz*; gero Cofesoraren erranac entzun, emaiten duen penitencia onhartu eta Contricionezco acta on bat egin.

✠ G. *Egizu Contricionezco acta.*

I. Ene Jaincoa, handizki damu dut zu ofentsaturic, ceren guciz ona zaren, eta ceren bekhatua hastio duzun. Barkha zadazu Jesu-Christoren merrecimenduen berthutez. Hartcen dut chede cin bat, zure graciarekin batean, zu gehiago ez ofentsatceco eta penitencia egiteco.

✠ G. *Cer egin behar da cofesatu ondoan?*

I. Eskerrac eman Jaincoari errecebitu graciaz; gogoan erabili Cofesoraren abisuac; gehiago bekhaturic ez egiteco chedea berritu, eta lehenbailehen egin emana izan zaucun penitencia.



San Leonen martirioa.
(Steinheil. Baionaco eliza-nausian.)

HOGOIGARREN CAPITULUA

Cofesorac eman Penitencia.

✠ G. *Behar da egin Cofesorac eman penitencia?*

I. Bai, eta bekhatu litake ez egitea, ceren penitencia hori Sacramenduaren pharte bat baita.

✠ G. *Nola deitzen da Cofesorac eman penitencia?*

I. Deitzen da Satisfacionea.

✠ G. *Certaco du icen hori?*

I. Ceren emana baita bekhatuac Jaincoari egin laidoaren erreparatceco.

✠ *G. Certaco behar da Jaincoari satisfatu, bekhatua barkhatua izan den ondoan ?*

I. Ceren Absolucioneac, bekhatua barkhatcean, ez baitu barkhatcen bekhatuari zor zaion pena gucia; bainan bakharric eternitateco pena baitu khanbiatcen denbora batetaco penetarat.

✠ *G. Cofesorac eman penitencia aski da Jaincoari osoki satisfatceco ?*

I. Ez, maicenic ez da aski; egin behar dire oraino bertce cenbeit obra saindu, nola baitire othoitza, amoina, barura, eta gainerateco mortificacioneac.

G. Satifa dezokegu Jaincoari, heldu zaizcun nahigabez ?

I. Bai, pairatcen baditugu pacientciarekin eta penitenciazco chedez.

✠ *G. Cer gerthatuco zaiote bekhatuentzat bici huntan osoki satisfatu ez duteneri ?*

I. Purgatorioan satisfatuco dute, hanitz garratzago diren penez.

G. Elizac laguntcen gaitu Jaincoari satisfatcen ?

I. Bai laguntcen gaitu bereciki asco othoitz eta obra onentzat indulientciac emanaz.

Dabiden penitencia, bekhatua barkhatua izan ondoan.
(II REG. XII, 13 et seq.)

HOGOÍ ETA BATGARREN CAPITULUA

Indulientciac.

✠ *G. Cer da indulientcia ?*

I. Indulientcia da Elizac emaiten duen barkhamendua, bekhatu barkhatueri zor zaizcoten pena tenporalentzat.

G. *Norc eman dio Elizari indulientcien emaiteco ahala?*

I. Jesu-Christoc, erran diotenean Apostolueri : *Lurrean zuec barkhatu guciac barkhatuac izanen dire Ceruan.*

G. *Norc du Elizan indulientcien emaiteco ahala?*

I. Aita Sainduac eta Aphezpicuec.

G. *Cenbat indulientcia suerte dire?*

I. Badire bi suerte : indulientcia osoa, eta inducicia ez osoa.

G. *Cer da indulientcia osoa?*

I. Hura da bekhatuari zor zaizcon pena gucien barkhamendua.

G. *Cer da indulientcia osoa ez dena?*

I. Hura da bekhatuari zor zaizcon penetarie cenbeiten barkhamendua.

✠ G. *Cer erran nahi dute hitz hauc, edo hola-tsucoec : berrogoi-ta-hamar egunen, ehun egunen, zazpi urtheen indulientcia?*

I. Hitz horiec erran nahi dute barkhatuac direla, Elizac lehenago, berrogoi-ta-hamar egunen, ehun egunen, zazpi urtheen penitentcia publicoaz barkhatcen cituen pena berac.

✠ G. *Cer egin behar da indulientcien irabaz-teco?*

I. Behar da izan graciazco estatuan, eta marca-tuac diren condicioneac chuchen bethe.

G. *Irabaz ditzazkegu indulientciac Purgatorioco arimentzat?*

I. Bai, Elizac erraiten duenean heientzat irabaz ditzakela.





Martiren zubia, Orthezen.

HOGOI ETA BIGARREN CAPITULUA

Anontcioa edo Oliadura.

✠ *G. Cer da Anontcioa?*

I. Anontcioa da Sacramendu bat, erien ariman eta gorphutcean soleitceco establitua.

G. Cer on egiten dio Anontcioac arimari?

I. Anontcioac khentcen ditu bekhatu benialac, eta bekhatu mortalac ere, eriac ez badetzazke cofesa eta hetaz urrikitan bada; azcartcen du eria debrua-ren tentacioneen, eta heriotceco icialduren contra; emaiten dio ongi hiltceco gracia.

G. Aphezac certaco egiten ditu oliadurac gorphutceco pharte cenbeitetan?

I. Eriac ardiets dezan gorphutceco sentsu bakho-tcharekin egin bekhatuen barkhamendua.

G. *Cer on egiten dio Anontcioac gorphutzari?*

I. Anontcioac oinhaceac eztitcen diozca eriari, eta osagarria ere emaiten, haren salbamenduarentzat on balinbada.

✠ G. *Noiz behar da errecebitu Anontcioa?*

I. Eri handi denean, bainan azken mementoa iguriki gabe.

✠ G. *Nori behar zaio eman Anontcioa?*

I. Behar zaiote eman adimenduzco adinerat helduac diren gucieri, eri handi direlaric.

✠ G. *Cer egin behar da Sacramendu horren ongi errecebitceco?*

I. Behar da : lehenbicicoric, graciazco estatuan sarthu ; bigarrenecoric, Jaincoaren misericordiari handizki fidatu ; hirugarrenecoric, Jaincoaren nahiari osoki egon.

Ezekiacen eritasuna eta sendatcea. (ISA. XXXVIII.)
Jondoni Jacoberen hitzac Anontcioaz. (JAC. V.)



Ordenaco Sacramendua.

HOGOI ETA HIRURGARREN CAPITULUA

Ordena.

✠ G. *Cer da Ordena?*

I. Ordena da Sacramendu bat, emaiten duena Elizaco funcionen egiteco ahala, eta heien sailduki bethetceco gracia.

G. *Cein dire Elizaco funcione berecienac?*

I. Hec dire : Mezaco Sacrificio Sainduaren ofreitcea, fededuneri Erlisionearen eracastea eta Sacramenduen emaita.

G. *Norc eman dezake Ordenaco Sacramendua?*

I. Aphezpicuac bakharric.

✠ G. *Nola behar da errecebitu Ordenaco Sacramendua?*

I. Behar da : lehenbiceroric, apheztasunerat Jaincoac deithua izan; bigarrenecoric, Jaincoaren loria eta lagunaren salbamendua bakharric bilhatu; hirugarrenecoric, bicitce garbi bat eta behar den jakitatea; laugarrenecoric, graciazco estatua.

G. *Ohore handi bat da haur giristino batentzat Jaincoac apheztasunerat deitcea?*

I. Bai, ohore handi bat da haur harentzat eta benedicione bat haren familiarentzat.

G. *Cer diozu beren haurrac apheztasunetic gibelatcen dituzten burhasoez?*

I. Bekhatu handi bat egiten dute Jaincoaren nahiari ihardokiz, eta hurriscatcen dute Jaincoaz madaricatuac izaitea.

G. *Cer diozu beren haurrac, Jaincoac deithu gabe, apheztasunean sar-araci nahi dituzten burhasoez?*

I. Hec ere hanitz hobendun dire Jaincoaren aiticinean, eta beren haurren zoriona eta salbamendua hurriscu handitan emaiten dute.

G. *Cein dire fededunen eginbideac Ordenaco Sacramenduari buruz?*

I. Fededunec behar dute : lehenbiceroric, othoiztu Jaincoa eman ditzan Aphez onac bere Elizari; bigarrenecoric, lagundu ahal becenbat aphecen egiten; hirugarrenecoric, errespetu handi bat izan Erlisionearen ministroentzat.

San Mathiasen hautatcea. (Act. 1, 21 et seq.)

Zazpi diacreen hautatcea. (Act. VI.)

Jesu-Christoc emaiten diote Apostolueri bere Gorputzaren eta Odolaren contsecratceco ahala. (Luc. XXII, 19.)



Andredena Mariaren eta San Josepen ezcontza.

HOGOI ETA LAURGARREN CAPITULUA

Ezcontza.

✠ *G. Cer da Ezcontza?*

I. Ezcontza da Sacramendu bat egiten duena senhar-emazte girstinoen arteko batasun zucena, eta emaiten diotena beren estatuco eginbideen bethetceco gracia.

G. Cer erran nahi da batasun zucena?

I. Erran nahi da, deus trabaric gabe, herrico erretoraren eta bederen bi lekhucoen aitcinean egina dena.

✠ *G. Nola behar da errecebitu Ezcontzaco Sacramendua?*

I. Izan behar da graciazco estatuan eta behar dire Ezcontzaco eginbideac jakin.

✠ *G. Nola behar da preparatu Sacramendu hortarat?*

I. Behar da Jaincoa othoiztu, cofesio on bat, eta ahal bada, comunione saindua egin.

G. Cein dire senhar-emazteen eginbideac?

I. Batasun saindu batean elgarrekin bicitcea, Ezcontzaco nekheen eta penen pacientciarekin jasaitea, eta beren haurren giristinoki altchatcea.

G. Jaincoac benedicatcen ditu hanitz haur dituzten familiac?

I. Bai, Jaincoac benedicatcen ditu bereciki hanitz haur dituzten familiac.

✠ *G. Ezcontza hauts ditake?*

I. Ez, Jesu-Christoc erran du Ezcontza ecin hautsia dela.

G. Cer eracasten daucu Elizac dibortza deitzen den Tribunaletaco jujamenduaz?

I. Elizac eracasten daucu dibortzac ez duela ezcontza hausten, eta dibortzaren jujeari galdatcea bekhatu mortala dela.

G. Cer diozu dibortzatu ondoan, bertce ezcontza bat egiten dutenez, edo herrico-etchean baicic agerreen ez direnez?

I. Diot ez direla ezconduae Jaincoaren begietan, bekhatoros publicoac direla, eta ez dela holacoenztat bician sacramenduric, ez eta hil ondoan Elizaren othoiteie.



San Grat, Oloroneco aphezpicu eta patroina.

(Baionaco eliza-musian.)

HOGOI ETA BORTZGARREN CAPITULUA

Ezcontzari maicenic gerthatcen zaizcon trabac.

G. Cein dire ezcontzari maicenic gerthatcen zaizcon trabac ?

I. Hec dire odoleco ahaidegoa edo ezcontzac emaiten duena, laurgarren gradoraino : eta ahaidego izpirituala, bathaioaren edo confirmacionearen ocasionez biltcen dena.

G. Cer balio luke traba horietaric batekin egin ezcontzac ?

I. Ez luke deus balio.

G. Ezcontzaco traba horiec khen othe ditzazke ?

I. Bai, Elizac khen ditzazke, arrazoinic aski denean.

G. Ezcontza batentzat traba cerbeit badela dakitena bortchatuac dire erraiterat ?

I. Bai, bortchatuac dire erretorari erraiterat; bertcenaz, bekhatu mortal bat egin lezakete.

G. Haizu zaio catolico bati bere erlisionecoa ez den norbeitekin ezcontcea ?

I. Ez, Elizac ez ditu onhesten holaco ezcontzac, eta ez du emaiten hortaco permisionea, arrazoin handienac gabe, eta condicione bereci batzuekin baicic.

G. Cein dire condicione hec ?

I. Badire biga printcipalac : lehenbicoric, hitceman behar dute serioski senhar-emazte geiec ezcontza hortaric sorthuco diren haur guciac izanen direla erlisione catolicoan bathaiatuac eta

altchatuac; bigarrenecoric, hitceman behar du catolico ez denac utcico duela bere lagun catolicoa erlisioneco eginbide gucien bethetcerat.

HOGOI ETA SEIGARREN CAPITULUA

Sacramentalac.

G. *Cer dire Sacramentalac?*

I. Sacramentalac dire gauza edo egintza batzu, Elizac onhetsiac, arimaco edo gorphutceco onetan, hetaz debocionerekin baliatuco direnentzat.

G. *Cenbat Sacramental dire?*

I. Sacramental guciac eman ditezke sei lerro-tan :

1° *Othoitza* : hitz horrec marcatcen du hemen *Gure Aitaren* edo *Paterraren* erraitea, eta Elizaco oficioetan aurkhitcea ;

2° *Ur benedicatua*, Elizan aspalditic ibiltcen dena ;

3° *Ogi benedicatua*, Apostoluen denboretaric ezagutua ;

4° *Confiteor* edo *Cofesatcen nitzaio*, mezaren hastean eta comunione aiticinean errana delaric ;

5° *Amoina*, erran nahi baita, lagunaren ala ari-man ala gorphutcean laguntceco egiten ditugun guciac ;

6° *Elizac ezarri benedicioneac* : hec baitire, Sacramendu Sainduaren benedicionea, aphezpicua-ren benedicionea, aphezac emaiten duena mezaren ondarrean, edo mezatic canpo comunionearen on-

doan; azkenean gauza benedicatuac, hala nola hautsa, erremuac, chirioac, gurutceac, medailac, arrosorioac.

G. *Cerc egiten du Sacramentalen eta Sacramenduen arteko diferentzia?*

I. Lehenbicoric, Sacramentalac Elizac ezarriac dire, eta ez Jesu-Christoc; gero heien ganic dugun ona ez daucute beren baitharic emaiten, Sacramenduec bezala, bainan bai hec errecebitcean dugun fedearen arabera.

G. *Cer egiten daucute Sacramentalec?*

I. Sacramentalec khentcen dituzte bekhatu benialac eta bekhatuari zor zaizcon denbora batetaco penac; begiratcen gaituzte tentacionetaric eta errecontru gaichtoetaric; contserbatcen daucute arimaco eta gorphutceco osagarria.

G. *Certaric behar gare beiratu, Sacramentalez baliatcen garenean?*

I. Behar gare beiratu supersticionetic; ecen supersticionea litake uste izaitea holaco gauza segurardietsico dugula, Sacramental horietaric cenbeiti esker.

PHESTA

GIRISTINO BERECIENAC

Nola Elizac partitcen duen urthea.

G. Nola Elizac partitcen du urthea?

I. Laur phartetan : Abendoa eta Eguberri denbora; Garizuma; Phazco denbora; Mendecoste ondoco denbora.

Badire oraino phesta batzu Birjina Mariaren eta Saïnduen ohoretan.



Jesu-Christo Gure Jaunaren sortzea.
(Didron, Larresoroco semenarioan.)

I

ABENDOA ETA EGUBERRI DENBORA

G. Cer da Abendoa ?

I. Abendoa baditu laur aste, baliatu behar ditugunac, Elizaren arabera, Eguberrico phestarat khartsuki heltceco.



Errege Magoec adoratcen dute Jesus.
(Restout, Donibane Lohitzuneco elizan.)

G. Cer da Eguberri?

I. Eguberri da phesta handienetarik bat, Elizac ezarria, abendoaren hogoi-ta-bortcean, Jesu-Christo Gure Jaunaren sortcearen ohoratceco.

G. Cer da Urtheberrico phesta?

I. Hura da phesta bat, urtharrilaren lehenean, orhoitarazten gaituena gure Salbatzaileari icena Jesus eman cioten egunaz.

G. Cer da Trufania?

I. Trufania da phesta bat, urtharrilaren seian, orhoitarazten gaituena Salbatzailearen agertceaz paganoeri, noiz eta ere Magoac ethorri baitcitzaiz-con iguzki-aldeatic adoratcerat.

II

GARIZUMA

G. Cer da Garizuma?

I. Garizuma da berrogoi egunetaco barur bat, Elizac ezarria, Jesu-Christoc desertuan egin zuen baruraren ohoratceco, eta gu penitentciaz sainduki Phazco phestarat hel-arazteco.

G. Certaco emaiten dire hautsac Garizuma hastean?

I. Gu orhoitarazteco hil behar dugula, eta heriotceac gure gorputza herrauts bilhacaracico duela.

G. Nola deitzen da Garizumaco azken astea?

I. Deitzen da Aste Saindua; hasten da Erremu igandearekin, orhoitarazten baigaitu Jesu-Christoc, hil baino bortz egun lehenago, Jerusalemen egin zuen sartce ikhusgarriaz.

G. *Certaco deitzen da aste hori Aste Saindua?*

I. Ceren hortan celebratzen baitire gure Erlesione Sainduco misterio miragarrienac: Ortcegun Sainduz, Gorphutz Sainduaren eta Giristino Apeztasunaren hastapena; Ortcirale Sainduz, Jainco Semearen oinhaceac eta heriotcea; Larunbat Sainduz, haren gorphutzaren ehorztea, eta haren arimaren ifernuetarat jaustea.

III

PHAZCO DENBORA

G. *Cer da Phazco phesta?*

I. Phazco phesta da urtheco phestari handiena, Elizac ezarria celebratceco Jesu-Christo Gure Jau-naren phiztearen misterioa.

G. *Cer dire Errogacioneac?*

I. Errogacioneac dire othoitz publico batzu profesioneekin Elizac egin-arazten dituenac, Salvatore aitcineco hirur egunetan.

G. *Certaco egiten dire prosesionec Errogacionetaco hirur egunetan eta San Marc egunean?*

I. Prosesionec horiec egiten dire, Jaincoaren hasarrea haren populuaren ganic urruntceco, eta othoizteco benedica detzan lurreco fruituac.

G. *Cer da Jondoni Salvatore?*

I. Jondoni Salvatore da phesta handi bat, Elizac ezarria ohoratceco Jesu-Christoren cerurat igaittea, phiztu eta berrogoi egunen buruan.

G. *Cer da Mendecoste?*

I. Mendecoste da phesta handienetari bat, Elizac ezarria ohoratceco Izpiritu Sainduaren Apostoluen gainerat jaustea.



Izpiritu Saindua jausten da Apostoluen gainerat.
(Baionaco eliza-nausian.)

IV

MENDECOSTE ONDOCO DENBORA

G. Cein dire Mendecoste ondoco phesta berecienac?

I. Berecienac dire : 1° Trinitate Sainduaren phesta ; 2° Phesta - Berri ; 3° Bihotz Sacratuaren phesta.

G. *Cer da Trinitate Sainduaren phesta?*

I. Elizac ezarria du phesta hori ohoratceco misterio gucietan miresgarriena, Jainco bakhar bat hirur presunetan.

G. *Cer da Phesta-Berri?*

I. Phesta-Berri da phesta bat Elizac ezarria, ohoratceco molde bereci eta ikhusgarri batean Jesu-Christo bere Sacramendu Sainduan aurkhitzen dena.

G. *Phesta-Berri nola behar dugu sainduki beiratu?*

I. Debocionerekin aurkhituz egun horrekin egiten diren prosesione ederretan.

G. *Cer da Bihotz Sacratuaren phesta?*

I. Phesta hori ezarri du Elizac, Jesu-Christo berac galdaturic, ezagutceco eta ohoratceco haren negurri-gabeco amodioa gizonen alderat, eta barkhamendu escatceco bekhatoresec egiten diozcaten laidoez.



San Josep,
Eliza guciaren patroina.

V

ANDREDEÑA MARIAREN ETA SAINDUEN PHESTAC

G. Cein dire Andredena Mariaren phesta berecienac?

*I. Hec dire : haren Notharic gabeco Concepcio-nea, abendoaren zortcian ; haren Sortcea, buruila-
ren zortcian ; Anontciacionea, martchoaren hogoi-
ta-bortcean ; Purificacionea, otsailaren bian ; Ceru-
rat altchatua izaitea, agorrilaren hamabortcean.*



*Jõndoni Mikele Arcanjeluae garhuiteen du debruu,
(Raphaël.)*

G. Cer da Notharic gabeco Concepcionea?

I. Hura da Elizac ezarri duen phesta, ohoratceco Andredena Mariari egina izan zaion berechcunde bat, bekhatu orisinaletic beiratua izan baita, haren ganic sorthu behar cen Salbatzailearen merecimendueri esker.

G. Cer da Sortcearen phesta?

I. Phesta hori Elizac ezarri du Andredena Mariaren sortcearentzat Jaincoari eskerren bihurtceco.

G. Cer da Anontciacionea?

I. Hori da Gabriel Aingeruac Andredena Mariari ekharri cion mezuaren urtheburua, erran ciolaric Jainco Semearen Ama bilhacatuco cela.

G. Cer da Purificacionea?

I. Phesta hori da ohoratceco Jesusen ofreitcea eta Mariaren garbitcea Tenploan. Maicenic erraiten zaio Ganderailu.

G. Cer da Cerurat altchatua izaitearen phesta?

I. Phesta hortaz Elizac ohoratcen du Andredena Mariac, arima eta gorphutz, ceruan egin zuen sartce miresgarria.

G. Nola Elizac ohoratcen du San Josep?

I. Elizac baditu, San Josepen ohoretan, bi phesta handi : bat, martchoaren hemeretcian; bertcea, handiena, Phazco ondoco hirugarren igandean.

G. Cein dire Sainduen ohoretan Elizac ezarri dituen phesta berecienac?

I. Huna cein diren : Jondoni Mikele (buruila- ren hogoi-ta-bederatcian); Aingeru begiraleac (urriaren bian); Jondoni Joani Batista (errearoan, Jondoni Petri aitcineco igandean); Jondoni Petri eta Paulo (errearoaren hogoi-ta-bederatcian); diose- setaco eta herrietaco patroinac, etc.

G. *Ez da Saindu gucien ohoretan ezarria den phesta bat?*

I. Bai, hura da Omia Saindu, heldu dena haci-laren lehenean, Saindu guciac elgarrekin phesta berean ohoratceco.

G. *Cer da Hilen eguna?*

I. Hura da Omiasaindu biharamuna, Purgato-rioco arimentzat, eta bereciki gehienic ahantciac direnentzat, othoitz egiteco.

G. *Nola behar ditugu iragan Elizaco phestac?*

I. Egun horietan, behar ditugu gogoan erabili orhoit-arazten dauzkiguten misterioac; behar ditugu sailduki iragan othoitz eginez eta, ahal dugularic, mahain saildurat hurbilduz.

MEZA SAINDUKO OTHOITZAC

Elizan sartcearekin, orhoit zaite Jaincoaren etchean sartcen zarela. Har zazu errespeturekin ur benedictua, eta egizu debotki Gurutcearen seinalea.

Belhaunica zaite Jesu-Christo gure Jaun, aldarean dagonaren adoratceco, eta errazu hunelaco cerbait :

Ene Jaincoa, adoratcen zaitut gauza gucien Nausi soberano baxarra bezala, eta emaiten daitzut ene ohoreac ene Creatzaileari bezala, zure ganic baititut naicen gucia eta ditudanac oro.

Meza hasi aiticinean erran behar den othoitza.

ZURE aldare sainduaren oinetan ahuspez emanic, adoratcen zaitut, Jainco bothere guciac ditutzuna; fermuki sinhesten dut entzuterat nohan meza dela Jesu-Christo, zure Seme Jaincoaren gorputz eta odolaren sacrificioa, ofreitceco moldea hala halacoa ez izan arren; hanc berac Calbarioco mendian gizon gucientzat ofreitu zuen sacrificio hura bera. Egidazu grazia sartceco, ó ene Jaincoa, Aphezaren escuz, hau zuri behar den bezala ofreitceco, behar ditudan sentimenduetan. Ofreitcen darotzut, bat egiten naicelari Jesu-Christoren eta haren Elizaren chedekin : 1^o Zure Mayestate dibinoari zor zaioen adoracione eta ohore soberanoaren bihurtceco; 2^o egin darozkigutzun on eta ongi guciez eskerren emateco; 3^o munduco bekhatu gucientzat eta bereciki eneentzat zuri satisfacione egiteco; 4^o azkenecotz, arimaco salbamenduarentzat eta gorputceco biciantzat behar ditudan laguntcen eta sokhorrien zure ganic ardiesteco. Gracia hauc guciac uste dut emanen deraiztatzula Jesu-Christo, zure Semearen merecimenduen bidez, ceinac nahi baitu berac izan sacrificio adoragarri hunen Apheza eta bitima.

Mezaren hastean, eta Confiteor erratean.

ENE bekhatuen jakiteco eta ezagutceco, o ene Jaincoa, nahiz ez duzun behar ene aithorric eta cofesioric, eta ene gaichtakeria guciac nahiz ene bihotcean iracurtcen ditutzun, cofesatcen darozkitzut halere ceruaren eta lurraren aitcinean : aithortcen dut ofentsatu zaitudala gogoz, hitzez eta obraz. Ene bekhatuac handiac dire; bainan zure misericordiec neurriric ez dute. Urrical nakizu, o ene Jaincoa! orhoit zait zure escuco obra, zure odolaren precioa naicela.

Birjina saindua, zeruco Aingeruac, Parabisuco Saindu eta Saindac, guretzat othoitz egizue : eta nigarrezco eta miseriazco haran huntan dolhamenetan gaudecen orduetan, gracia esca zazue guretzat, eta ardiets diezaguzue bekhatuen barkhamendua.

Introitean.

JAUNA, zue Partriarkei eta Profetei eman diotzotzute, zure Seme bakharra lurrerat jausten ikhusteco hain guticia khartsuac ; indazu heien khar saindutie inhar bat ; eta egizu, bicitce hilcor hunen gora beheren erdian, ene baithan senti dezadan zurekin bat izateco lehia saindu bat.

Kyrie eleison.

<p>KYRIE, eleison (3 aldiz). Christe, eleison.</p>	<p>JAUNA, urrical zakizkigu. Jesu-Christo, urrical zakizkigu.</p>
<p>Kyrie, eleison.</p>	<p>Jauna, urrical zakizkigu.</p>

Gloria in excelsis.

<p>GLORIA in excelsis Deo. Et in terra pax hominibus bonæ voluntatis. Laudamus te. Benedicimus te. Adoramus te. Glorificamus te. Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam. Domine Deus, Rex cælestis, Deus Pater omnipotens. Domine, Fili unigenite, Jesu Christe. Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris : Qui tollis peccata mundi, miserere nobis. Qui tollis</p>	<p>LORIA Jaincoari ceru gorenetan. Eta bakea, lurrean borondate onezco gizoneri. Laudatcen zaitugu. Benedicatcen zaitugu. Adoratcen zaitugu. Gorosten zaitugu. Eskerrac deraitzugu, ceren zaren loriaz bethea. Jainco Jauna, ceruco erregea, Jainco Aita guciz botheretsua. Jainco Seme bakharra, Jesu-Christo. Jainco Jauna, Jaincoaren Bildotsa, Aitaren Semea : Munduco bekhatuac khentcen dituzuna, urrical</p>
--	---

zakizkigu. Munduco bekhatuac khentcen dituzuna, onhetsazu gure othoitza. Aitaren escuinean jarria zarena, urricak zakizkigu. Ceren zu baitzare bakharric Saindua. Zu bakharric Nausia. Zu bakharric oroz-gainecoa, o Jesu-Christo, Izpiritu Sainduarekin batean, Jainco Aitaren lorian. Halabiz.	peccata mundi, suscipe deprecationem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis. Quoniam tu solus Sanctus. Tu solus Dominus. Tu solus Altissimus, Jesu Christe. Cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. Amen.
--	--

Oremusetan, edo Oracionetan.

AGRADA bekizkitzu, Jauna, guretzat egiten zaizkitzun othoitzac: igutzu Eliza zure esposac, aphezaren ahoz, gure fagoretan, galdegiten darozkitzun gracia eta berthuteac. Ez dugu merci (hala da) entzunac izatea: bainan considera zazu gracia horiec escatcen darozkitzugula Jesu-Christo, zure Semcaren bidez; ceina zurekin bici baita eta erreginatcen baitu mendeen mendetan. Halabiz.

Epistolan.

EPISTOLA humi begiratcen diot, o ene Jaincoa! zure borondateac iracasteco egortcen darotazun liburu bati bezala. Othoi, indazu manatcen darotazunaren bethetceco indarra. Zuc ceronec, Jauna, Profetei eta Apostoluei erran diozotzute, iscribuz utci darozkiguten egia: heien argietaric pharte indazu eta phitz zazu ene bihotcean, hec erretcen cituen su sacratu hura: maitha zaitzadan eta cerbitza, hec bezala, ene bici guzian.

Ebanjelioan, chutitaric.

CHUTITCEN naiz, o Lege egile soberanoa! zuri eracusteco Ebanjelio sainduan diren egia handiac, ene odolaz cigilacterat paratua nagoela. Egia horiec ene bihotcean ceronec, othoi, Jauna, barnerraino sarraraz zatzu. Horiec betzate erregela ene gogoetac, ene hitzac eta ene obrac. Ez dut gehiago egin nahi zure erranez bertceric: mintza zaitte, Jauna, huna non aditcen zaitudan sehi baten aphaltasun oso berarekin; indazu zure erranen obratceco haubat indar, nola baitut cintasun heien sinhesteco.

Credoa.

CREDO in unum Deum, Patrem omnipotentem, factorem cæli et terræ, visibillum omnium et invisibillum. Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei unigenitum. Et ex Patre natum ante omnia sæcula. Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero. Genitum, non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt. Qui propter nos homines, et propter nostram salutem descendit de cælis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Maria Virgine, ET HOMO FACTUS EST. Crucifixus etiam pro nobis, sub Pontio Pilato passus et sepultus est. Et resurrexit tertia die secundum scripturas. Et ascendit in cælum, sedet ad dexteram Patris. Et iterum venturus est cum gloria, judicare vivos et mortuos, cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur, qui locutus est per Prophetas. Et unam, sanctam, catholicam, et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptisma in remissionem peccatorum. Et expecto resurrectionem mortuorum. Et vitam venturi sæculi. Amen.

SINHESTEN dut Jainco bakhar bat baithan. Aita gucz bothere-tsuana, ceruaren eta lurraren, ageri diren eta ageri ez diren gauza gucien Creatzailean. Eta Jesu-Christo Jauna, Jainco seme bakharra baithan. Hura da Aita ganic mende guciac baino lehen sorthua : Jaincoa ganic Jainco, argitic argi, Jainco egiazcoa ganic, egiazco Jainco. Sorthua da, etez egina, Aitaren izaitte bera baitu, eta gauza guciac hartaz dire egina. Gu gizonen gatic eta gure salbatceco, jautsi da ceruetaric. Eta gorphutz bat hartu du Izpiritu Sainduaren berthutez Maria Birjina ganic, eta Gizon EGIN DA. Gu gatic oraino izan da gurutceficatua; pairatu du Pontcio Pilatus buruzagi celaric, eta ehortcia izan da. Phiztu da hirugarren egunean, Escripturen arabera. Igan da cerurat, eta han jarria dago Aitaren escuinean. Eta berriz ethortcecoa da, ospe handian, bicien eta hilen jujatcera, haren erreinuac ez du izanen akhabantzaric. Sinhesten dut Izpiritu Saindu, gure Jauna eta biciaren emailea baithan, ceina Aita et Semearen ganic ethortcen baita. Hura, Aitarekin eta Semearekin batean behar da adonatu eta lorificatu, hura mintzatu izan da Profeten aboz. Sinhesten dut Eliza bakhar, saindu, catolico eta apostolicoan. Aithortcen dut bathaio bat badela, bekhatuen barkhatceco. Igurikitcen dut hilen phiztea, eta bethiereco bicia. Halabiz.

Ofertorioan.

NAHIZ creatura hilcor eta bekhatuz estali bat baicie ez naicen, escaintzen darozkitzut Aphezaren escuz, o egiazco Jainco bici eta bethierecoa, ogi hori eta arno hori, ceinac izan behar baitute khanbiatuac zure Seme Jesu-Christoren gorphutcerat eta odolerat. Errecebi zazu, ene Jauna, ecin erranezco sacrificio hau amultsuki eta gozoki, eta onhetsazu escaintza saindu horri junta diozadan ene gorphutzaz, arimaz, ontasunez, biciaz, eta ditudan guciez egiten darotzudan sacrificioa. Egizu nitaz, ô ene Jaincoa! creatura berri bat; ogi hori eta arno hori zure bothereaz khanbiatcerat zohacen bezala.

Aphezac bere escuac garbitcean.

GARBI nazazu, Jauna, sacrificatua izatera dohatzun Bildoaren odolean; notha guciatarie chahutua eta zure graziaren espos-arropaz aphaindua, zure ganat escu churi eta bekhatu gabeac altcha detzadan, eta esperantza izan egun batez errecebitua izateco zure hautatuei Ceruan paratu diozuten aphairu sacratuan.

Aphalki Aphezac erraten dituen othoitcelan.

AGRADA bekizu, o ene Jaincoa, zure icen sainduaren ohoretan, gure eta zure Eliza sainduaren onetan, ofreitcen zaitzun sacrificioa. Chede beretan sarthuric, galdetcen darozkitzut, Elizac orai Aphezaren bidez escatcen darozkitzun gracia guciac : eman dietzagutzu othoi nasaiki, Jesu-Christo gure Jaunaren bidez eta icenean.

Prefacioan.

ONDU da, o ene arima! altcha gaitecen behere huntaco gauza guciez gorago. Altcha zatzu, Jauna, altcha zatzu gure bihotzac zure ganat : utz gaitzatzu zor zaizkitzun laudorioen eta eskerren bihurtceco, junta detzagun gure boz ahulac, Izpiritu dohatsuen alegrantciazco eta bozcariozco cantuekin, eta desterruco lekhu huntan erran diezazugun hec loriaren egoitzan cantatcen darotzutena.

Sanctusean.

SANCTUS, Sanctus, Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cæli et terra gloria tua : Hosanna in excelsis.

Benedictus qui venit in nomine Domini : Hosanna in excelsis.

SAINDUA, Saindua, Saindua da armadetaco Jainco Jauna, Ceru lurrac betheac dire zure loriaz : Ohore ceru gorenentan.

Benedicatua izan bedi Jaunaren icenean heldu dena : Ohore ceru gorenentan.

Sanctus erran ondoan.

AITA bethierecoa, artzainen Artzain guciz handia, zure Eliza begira eta bida zazu, finca zazu, eta heda lurraren bazter gucietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emozute Christau guciei. Benedica zazu gure Aita saindua, gure Aphezpicua, gure Aiteindariac, gure Erretora, eta zure Elizaren sinhestean bici diren guziac.

Lehenbicio Mementoan.

JAUNA, orai zure erresuman zarena, orhoit zaite nitaz zure misericordian; eta sacrificio saindu hunen merecimenduz emadatzu behar ditudan berthute guciac. Eta batac bertcearentzat othoitz egitea manatu darocuzunaz geroz, Jauna, othoi, adi zatzu eta entzun humilki eta confidentciarekin egiten darozkitzudan othoitzac ene ahaidentzat, adiskidentzat, arimaco eta gorphutceco ongi egilentzat. Ene bihotz guciac halaber gomendatcen darozkitzut ene etsaiac eta tratamendu gaichto cenbait egin ahal darotaten guciac; ahantz bekizkitzu heien bekhatuac eta nereac : ene bihotcetic khen zatzu khirastason guciac. Mundu guciac senti beza Sacrificio hunen ona. O ene Jaincoa! iguzu guciei bake egiazco bat, ceinac, elgarrekin batasunean atchikitcen gaituela bethicotz baigaitu batasunean emanen Birjina amarekin, zure Apostoluekin, eta azkenean eternitate gucian zurekin.

*Aphezac Calitzaren eta Ostiaren gainean escuac
zabaldnac daduzcanean.*

HEDA zazu, Jauna, ene gainera zure escu dibinoa, ene bihotzaren eta ene sensuen jabe sar nadin; ene baithan chuchentceco zure contra den gucia, ni contsecratceco zure Aita Jaincoari zurekin eta zutaz, eta ni bide hortaz libratceco debruaren escuetaric eta bethicotz galtcetic.

SAGARA EDO CONTSECRACIONEA

ICHIL zaito, ene arima : conplitecera doha misterio handia ; ceruac zabalteen dire, eta bere loriazco tronutic gure ganat jausten da Jainco Salbatzailea.

OSTIA SAINDUA ALTCHATCEAN

Adora zazu burua aphalduz, eta gero begira zozu ostia sainduari errespetu eta amodiorekin, erraiten duzularic ahapetic :

ENE Jauna eta ene Jaincoa! (*Indul.*) Adoratcen zaitut Jesus ene Salbatzailearen Gorphutz egiazcoa, gurutcean gure gatic itzatua izan zarena. (*Indul.*)

Calitzaren altchatcean.

Egizu Ostia Sainduarentzat bezala, erraiten duzularic :

ENE Jauna eta ene Jaincoa! (*Indul.*) Adoratcen zaitut Jesus ene Salbatzailearen Odol baliosa, Calbarioan gure gatic ichuri izan zarena. (*Indul.*)

Jaun handia altchatu ondoan.

Ez darotzugu gehiago ogia eta arnoa ofreitcen, bainan bai Jesu-Christo zure Semearen gorphutz adoragarria, o ene Jaincoa! haren pasionearen, phiztearen, eta cerurat igaiterearen orhoitzapenetan : gure escutic, Jauna, errecebi zazu, eta bethe gaitzatu zure graziez.

Bigarren Mementoan.

ORHOIT zaito halaber, Jauna, Purgatorioan diren arima gaichoez : zure adiskideac eta zure hautetsiac dira. Bereciki gomendatcen darozkitzut ene ahaideenac, adiskideenac, arimaco eta gorphutceco ongi egileenac eta othoitz beharra gehien dutenac.

Nobis quoque peccatoribus erratean.

Gucia bekhatore naicelarie, ausartatcen naiz galdetcera gracia bera enetzat ; erran nahi da, o ene Salbatzailea ! zure lorian pharte ttipi bat. Mila bekhatuz hango zucena galdu dudala ikhusten dut eta aithortcen zure aitcinean, o ene Jaincoa ! Ene mercecimenduei begiratcen badiozute, ez duket esperantzatic aurkhi nadin Erresuma hartan, ceinetarat Apostoluec, Martirec eta Birjina sainduac ecin ardietsi

baitute heltcea, hainitz sofrituz eta berthute giristinozco guciac obretan eman ez baicen. Nola beraz ausarta ere othe naiteke, Jauna, esperantza izaterat? Zure odolac egiten du ene fidantzia gucia. Barkha dietzadatzu ene hutsac, eta penitencia egiazco batez egin nezazu zure erresumarat heltceco merezdun.

Pater erratean.

CREATURA ez deus eta dohacabe bat baicie ez naicen arren, halere Jainco handia! ausartatcen naiz zu ene Aita deitcerat, zeren hola nahi duzun; egidazu gracia, o ene Jaincoa! zure haur gisa ibil nadin bethi. Errazu *Gure Aita*.

AGNUS DEI

AGNUS Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

JAINCOAREN Bildotsa, munduco bekhatuac khentcen ditutzuna, urricai zakizkigu.

Jaincoaren Bildotsa, munduco bekhatuac khentcen ditutzuna, urricai zakizkigu.

Jaincoaren Bildotsa, munduco bekhatuac khentcen ditutzuna, emaguzu bakea.

Jaincoaren Bildotsa, munduco bekhatuez cargatu nahi izan duzuna, garbi datzu eta itho nic egin guciac zure odolean, hain khario erosi duzun bakea izateco merezdun bilhaca nadintzat. Indazu bake hura zurekin, bake hura protsimoa- rekin, bake hura nere buruarekin: sarrarazten nauzularic humiltasun osoenean; eta ene baithan ithotcen ditutzularic mendecuzco nahicunde guciac.

Domine non sum dignus erratean.

Ha Jauna! sobera baicen ez da egia ez dudala mercei zure errecebitcea; higuingarri bilhacatu naiz osoki ene bekhatuez: guciez urriki dut eta dolore, ceren damustatu baitzaituzte; eta zure ganic urrundu bainaute. Zure hitz bakhar batec senda dezake ene arima: o ene Jaincoa! errazu hitz on hura, eta izanen naiz sendatua.

Aphazaren comunionean, norc berac comuniatcen ez duenean errealki.

O ene Jesus maithagarria! egun zure haragi sainduaz hacia izateco zoriona ez badut, sofri zazu errecebi zaitzadan bederen izpirituz eta bihotzez: eta zurekin bat egin nadin fedeaz, esperantzaz, eta caritateaz. Sinhesten dut zure baithan; zure baithan dut ene esperantza, eta maite zaitut ene bihotz

guciaz. Ala dohatsu baininteko, ene Salbatzaile maitea, zure ganat hurbiltceco, zure mahain sainduan jartceco, eta Gorphutz sacratua errecebitceco, eta zure odola edateco estatuan banintz! Ah! cer atsegin, cer gozagarri, cenbat gracia ez diozute emaiten hetaz hazten ditutzunei!

† *Nore berac comuniatcen duenean, horren orde egin behar ditu comunionea Actac.*

Ostia ondarrac Aphezac biltcean.

JAUNA, zure graciatic mendreena hainitz baliosa da; ja erran dut, ez dut mercei zure mahainean zure haurren lerroan jartcea; bainan utz nezazu biltcerat bederen errotcen diren porroscac, Cananearrac galdetcen zautzun bezala. Egizu ez dezadan zure graciatic batere galtcerat utz: ecen bide hortaz ekharria cintecke ene uzterat gauza gucien escasian.

Post-Comunionean.

AKHABATU dire guciac, o Jauna! ene begien aitcinean izan zare sacrificatua. O ene Jaincoa! ez naiz nihoiz geldituco zuri laudoriozco sacrificioa bihurtcetie; eta guciz bihotz, zu ofentsaturic doloratu, zaurtu eta humiliatu baten sacrificioa ofreitcetie.

Azkeneco Oracionetan.

NAHI duzu, Jauna, arteric utci gabe gure bihotzac alcha dietzatzugun, ceren dugun bethi zure gucien beharra. Ichur zazu gure gainerat, eta iguzu othoitzaren izpiritua, ceina baita humiltasunezco, confidentciazco eta amodiozco izpiritu bat: hortaz errekeritcen zaitugu Jesu-Christo zure Semeaz, ceinac zurekin erreginatcen baitu lorian.

Benedicionearen aitcinean.

TRINITATE guciz saindu eta adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, Jainco choil eta bakhar bat zarena: zutaz sacrificio hau hasi dugu, zutaz akhabatcen dugu: agrada bekizu, eta indaguzu zure benedicionea.

Azkeneco Ebanjelioa erratean.

Berbo eternala, gauza gucien Egilea, denborac bethe cirenean gure gatic Gizon eginic, Sacrificio miragarri hau establitu duzuna: eskerrac humilki bihurtcen darozkitzugu, ceren egin darocuzun gracia meza hunen entzuteco, hunen ondorio salbagarriac errecebi detzaguntzat. Aingeru eta Saindu

guciec, hortaz lauda bezaitzate bethi ceruan, eta gu has gaitecen zu hortaz benedicatcen lurrean, ibiltcen garelaric egungo egunean zure legearen arabera. Barkha diezadazu, o ene Jaincoa ! ene izpirituco barraiamendua eta ene bihotceco hoztasuna, zutaz bethea eta zuretzat sustatua izan behar zuten denbora hortan. Ahantz bekizkitzu, Jauna, ene bekhatuac, ceinentzat Jesu-Christo zure Semea, aldare hunen gainean sacrificatcetic heldu baita : eta ez dezazula onhets aski ondicozcoa izan nadin, zure hemendic harat ofentsatceco ; bainan egizu, zurekin ibiltcen naicelanic, bethi begira diezazudan ene gogoeten, ene hitcen, eta ene obren erre-gelari eta azken finari bezala. Halabiz.



MEZAREN AKHABANTZAN



AINGERU batec Mariari,
Dio graciaz bethea
Salbatzaile dibinoari
Emanen diozu sortcea.

Jaincoaren nahi saindua
Ni baithan dadin egina
Izan nadina amatua
Bainan geldituz birjina.

Orduan Berbo dibinoa
Gorphutz batez da beztitcen.
Oi onthasun egiazcoa,
Jauna gurekin egoiten.

Othoitz zazu zure Semea,
Gure ama amultsua,
Izan dezagun fagorea
Ardiesteco zerua.



MEZAREN ONDOTICACO OTHOITZAC

AITA SAINDUAREN MANUZ ERRAITEN DIRENAC

Othoitz horiee erran behar dituzte aldi-adizca aphezac eta fededunec :
Hirur ehun egunen indulientciac eratchikiac zaizcote.

Hirur aldiz Ave Maria.

SALVE, Regina, Mater misericordiæ, vita, dulcedo et spes nostra, salve. Ad te clamamus, exsules filii Hevæ; ad te suspiramus, gementes et flentes in hac lacrymarum valle. Eia, ergo, Advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte. Et Jesum, benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende : O clemens, o pia, o dulcis Virgo Maria.

ÿ. Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix.

ñ. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

